



Koadrilak domekan arineketan

Santamasetako koadrilen arteko 35. krosa egingo dute | 28

"Memoria historikoan, unibertsitateak parte hartu behar du"

Francisco Etxebarria

Aranzadi elkarteko presidentea | 10



GABONAK ETA SANTAMASAK 2012

Agenda, menuak, Santamasak... | Gehigarria



Uzarraga elizatearen egoera azalduko dute Antzuolan | 12



'Goenkale'-ren antzezlanaren Arrasaten estreinatuko dute domekan | 31



TXIKIONDAKO ERE SANTAMASAK JAI HANDI

Arrasateko Santamas eguna abenduaren 22an da, baina oraingo asteburuan hasten dira ekitaldiak. | 14

Unax Gonzalez, Garazi Azkarate, Jakes Sarabia, Alaitz Etxebarria, Lide Azkarate eta aurrean Jurgi Unamuno, Santa Barbarako dragoiaren babespean. | XABIER URTZELAI

SINADURAK

Istoriotxo bat... | 6
JUAN MARI OKINA

6 | Adierazpen askeko guneak
INAZIO ARREGI

Eredua | 40
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 11 | KIROLA 28 |
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35 |
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37 |
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

Naiara Agreda umeari laguntzeko kontzertua

Des-kontrol eta Arkada Social taldeek egingo dute garun-paralisia duen umearen aldeko emanaldia | 33

Hiru orduko osoko bilkura Bergaran atez atekoaren gainean

Batzar monografikoa egin dute asteen | 16



Zer izan da 2012. urteko onena eta txarrena?

Eman zure iritzia
Goiena.net-en abenduaren 19ko 13:00ak baino lehen.

Multimedia disko gogorra zozketatuko dugu parte hartzaileen artean.



goiena

“EGUNEROKO AZOKA BIRTUALA”

Debagoiena
BASERRI
SAREA
Auzolanean zurekin

ETXERAINO DOHAINIK!
URTARRILAREN 5A ARTE!

www.baserrisarea.com



ETXE-AUNDI JATETXEA 2013rako enpresa-bazkide egin da Oñatiko jatetxe ezagun hori, eta, gainera, ahoa ondo gozatzeko abantailak emango dizkie Goiena Klubeko bazkide diren bezeroei:

"%10eko deskontua menu berezian (asteburuetaoan) eta kartan; pentsatzen dugu beti dagoela ondo Goienan egotea", adierazi du Margarita Romariz uzazabak.

ARRIKRUTZ-OÑATIKO KOBAK Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziako Ikerne Altube zerbitzuburuak esan du %10eko deskontua egingo diela bazkide berriei 2013an Arrikruzeko kobetarako sarreretan; horrez gain, urtean zehar sarrerak zozkatuko ditu Goiena Klubeko bazkideen artean. "Bertako proiektua gara, eta bertako jende askok oraindik ez gaitu ezagutzen; bertako komunikabideetan sinesten dugu; elkarlana garrantzitsua da.



Goienako bazkide eta euskaltzaleak sarituguran, Goiena Kluba

Goiena Kluba osatzen duten 4.000 lagunren familia handituguran, bazkide kanpaina abiarazi du Goienak; 'Zatoz gurekin!' da leloa



Goiena Klubeko txartela. | GOIENA

UBANE MADERA | ARRASATE

Negozio gehienek, guztiak ez esatearren, gaur egun badituzte bezeroei abantailak edo lehenatasuneko tratua eskaintzeko klubak eta txartelak. Goiena Komunikazio Taldeak ere saritu gura ditu babesa ematen dioten bezero fidelak, eta, era berean, euskara bultzatu gura du, Debagoieneko euskarazko komunikazio taldea garen neurrian. Bada, helburu bi horiekin, Goiena Kluba sortu zuen 2009an.

Harrezkero 4.000 debagoiendar erakarri ditu klubera Goienak, eta familia hori handitzeko kanpaina

abiarazi dute, urte berria gertu gertu dagoela aintzat hartuta. "Kontuan izanda 4.000 bazkidek baino gehiagok osatzen dugula Goiena Kluba, *Zatoz gurekin!* da erabili dugun leloa", adierazi du Imanol Elortzak, Goienako publizitate arloko komertzialak.

Eta kanpaina hasi eta dagoneko lortu ditu bazkide partikular berriak, baita saltoki kolaboratzaileak zein enpresa berriak erakartzea ere.

Abantaila ugari

Izan ere, abantailak besterik ez du eskaintzen Goiena Klubak,

Txartela oparitu

Goiena Klubeko txartela opari polita izan daiteke Gabonetarako, "gainera, txartelaren onurak urte osoan aprobetxatzekoak direnez, oparia jasotzen duenaren poza ere luzaroagorakoa da", dio Elortza komertzialak.

batez ere, ekonomikoak, ezin egokiagoak krisi bete-betean gauden honetan.

Batetik, Goiena Klubeko bazkideei deskontuak egiten dizkiete ibarreko establezimendu askotan (zerrenda ondoan ikusgai) txartela erakutsiz gero.

Bestetik, Goienak berak eskaintzen dituen zerbitzuetan ere deskontu esanguratsuak aplikatzen dira eskela eta iragarki sailkatuetan (ikus bigarren orriko taula).

Hirugarrenik, asteburuak emandakoaren eta norberaren herriko albisteen berri ematen duen asteleheneko *Goiena* papeira etxeraino eramateaz gainera, kioskoan erosita baino merkeago eskuratuko du Klubeko bazkideak. Eta nahiago balu asteleheneko *Goiena* Internet bitartez jaso, formulario bat beteta aldizkaria PDF formatuan deskargatzeko aukera ere badauka.

Eta hori guztia gutxi balitz, Goienak astero-astero egiten dituen zozketetan, Klubeko bazkideek bakarrik parte hartu ahal dute: X Box bat, telebista bat, spa tratamenduak, asteburuetao menuak, gure ibarrean egiten diren kontzertu esanguratsuenetarako sarrerak, ikuskizunetarakoak (zarzuela, *Lete gogoan...*), zinemarakoak, liburuak, CDak, dokumentalak, puzzleak...

50 euro, urte osorako

Goiena Klubeko bazkidetzaren prezioa da 50 euro urte osorako. Eta norberaren beharren edo erraztasunen arabera egin daiteke bat Klubeko bazkide. Hiru bide

Beharpena duten saltokiak*

Aquarium (Donostia): bi erosi eta bat ordaindu.

Argia: %25 harpidetzan.

Avia Meca gasolindegia (Arrasate): %2 erregaia erosita; %2 dendako produktuetan.

Begiondo Optika (Aretxabaleta): %15 produktu guztietan. Kontsulta doan.

Esko Sport kirol denda (Eskoriatza): zapatila eta arropan, %10eko deskontua.

Eureka! Zientzia Museoa (Donostia): %10 museo eta planetariumeko sarreran, eta astronomia jardueretan.

Gahir fisioterapia-osteopatia (Eskoriatza): %50 lehen kontsultan.

Gaes entzumen zentroa (Arrasate): %10 deskontua.

Gutziz Eder edertze zentroa (Oñati): %5-%10, tratamendu eta programetan.

Jaixak (Bergara): %10, 20 eurotik gorako erosketetan.

Lastai (Gasteiz): %5-%10 arteko beharpenak.

Lilura edertze institutua (Bergara): %10-%20 bitarteko beharpenak.

Multiópticas (Arrasate): %15eko beharpenak.

Naren fisioterapia zentroa (Aretxabaleta): %15 zerbitzu guztietan.

Txuri-Urdin izotz jauregia (Donostia): deskontu esanguratsua sarreretan.

*Litekeena da edizio hau kaleratzerako, saltoki gehiago ere atxikitu egotea.



ZEU ZARA
PROTAGONISTA

Zornotzako Barnetegia

Larrea auzoa z/g - 48340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)
info@zornotzakobarnetegia.com
www.zornotzakobarnetegia.com
Tel.: 94 630 83 04

**IMPRESAL ARTE GRAFIKOAK**

%5eko beherapena egingo die bezeroei Bergarako Impresal inprentak, bertan egiten diren lan (fotokopiak, koadernatzeak...) edo erosketetan.

"Propaganda egiteko beste puntu bat izango dela pentsatzen dugu, eta Goiena Klubeko txartelarekin datozenei detailetxo bat eman nahi diegu", esan du Benito Cantero ugazabetako batek.

BIOTIKA

PARAFARMAZIA "Oso aukera ona da niretzat denda moduan; eta uste dut jendearendako ere aukera ona dela. Horrez gainera, bultzatzen badugu bertako jendeak bertan erostea, ba hobeto", adierazi du Espe Arriaranek, Arrasateko Biotika Parafarmaziako ugazabak. Bazkideei eskainiko dien deskontua, berriz, da %10 Hauschka kosmetika etxearen makillaje produktuetan: "Oso onak dira azalerako, oso samurrak", azpimarratu du.

**Deskontuak eskeletan**

Goiena Klubeko bazkide direnek beherapen bereziak dituzte egubakoitzeko zein asteleheneko *Goiena* paperean argitaratzen diren eskeletan. Batez beste, 10 eta 20 euro arteko deskontua aplikatzen zaie kontratatzen duten eskela bakoitzeko, izan aldizkari bakarrean edo izan bi aldizkarietan.

	PREZIO ARRUNTA (€)	KLUBEKO KIDEEK (€)
ESKELA INDIVIDUALAK		
Egubakoitza edo astelehena + 'Goiena.net'	130	118
Egubakoitza + astelehena + 'Goiena.net'	175	159
PERTSONA BAT BAINO GEHIAGOKO ESKELAK		
Egubakoitza edo astelehena + 'Goiena.net'	154	139
Egubakoitza + astelehena + 'Goiena.net'	211	190

*BEZa bane

daude: telefonoz deituta, 943 25 05 05 zenbakira; e postaz, kluba@goiena.com helbidera mezu bat bidalita; edo formulario bat bete-ta, helbide honetan: goienakluba.com/bazkide-egiteko.

Bazkide-txartelak norberaren izen-abizenak eta bazkide zenbakia jasotzen ditu eta asteleheneko *Goiena* paperarekin batera iritsiko da etxera. "Gero, erabil-tzea erraza da: saltokira edo den-dara joan, erosketa egin, txarte-la erakutsi, eta kitto", azaldu du Goienako komertzialak.

Txartelaren eskaintzak urte naturalean aplikatzen dira, hau

Sailkatuetan beherapenak

Egubakoitzeko eta asteleheneko *Goiena* paperean eta *Goiena.net*-en kaleratutako iragarki laburretan.

ASTEAK	PREZIOA	KLUBEKO KIDEEK
1	22 euro	20 euro
2	32 euro	29 euro
3	38 euro	33 euro
4	43 euro	39 euro

*BEZa bane

da, urte berri bat hasten denetik amaitzen denera arte.

Bazkideendako opariak

Gainera, bazkide direnen fideliza-zioa saritzeko hiru opari eder zozketatuko ditu Goienak, abenduaren 17an, *Magazinea*-n, 20:15ean: Aisia Deba hotolean bi lagunen-dako ostatua eta buffet-gosaria (bi gau) eta zirkuitu termala (bi bonu); bi pertsonarentzako relax gastro-nomikoa (bi bonu) eta bi lagunen-dako saria eta relax termala (bi bonu). Eta bazkide berrien artean Txopebentan asteburuko egonaldia zozkatuko dute.

Zerk sortu du krisia? Lehentasuna etekin ekonomikoak metatzeari ematea, ez pertsonen bizitzari eta zainketari.

#EgitekoAsko

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana



berdintasuna **
egiteko asko

www.berdintasuna.tv

Eroski guztiz jasangarria inauguratu zuten agintariek Oñatin eguenean

Eroskiko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak izan ziren han

TXOMIN MADINA | OÑATI

Urria ezker zabalik egon den arren, eguen goizean inauguratu zuten ofizialki Oñatiko Eroskiren supermerkatu berria, %100 jasangarria den Europako lehenengo denda. Bertan egon dira Eroskiko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako hainbat ordezkari, eta denek ere gorai-patu egin dute horrelako denda bat zabaltzea.

Oñatiko Eroski zentro berriak energia kontsumoa %65 murrizten du eta zero isurikoa deritzona da: CO2 isuriak neurri baten murriztu eta gainerakoak konpentsatzen dituenak, hain zuzen ere. BREEAM España ziurtagiria lortzen duen lehen supermerkatua da, baita ISO 50001 ziurtagiria lortzen duen Europako lehenengoa ere.

Ingurumenarekin "harmonia"

Agustin Markaidek, Eroskiko presidentek, kooperatibek eredu jasangarriagoa negozio-eredu berrietara zabaltzeko duten kezka azpimarratu du: "Oñatiko Eroski berriaren "izateko arrazoietakoa bat ingurumenarekin harmoniaz jokatzeko da".



Leturiondo, Errazkin, Markaide eta Zorrilla zinta moztzen. | T.M.

Tokiko produktuek duten presentzia azpimarratu zuen ere.

Iñaki Errazkinek, Foru Aldundiko Ingurumen diputatuak erakundearen "poza" adierazi zuen, energiaren kontsumoan aurreratu behar diren kontzientzia zabaltzen ari delako. Ekonomia eredu berri baten beharra ere azaldu zuen.

Arantza Leturiondok, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburuordeak, bestalde, esan zuen denetarikozko organizazioek "egiten duten jarduerak ingurumenarekin duen inpaktua minimizatzeko ardura bere gain hartu beharko" dutela, eta Eroskiren eredu jarraitu.

Pilar Zorrilla Merkataritza eta Turismo sailburuordeak aspektu ekonomikoari egin zion erreferentzia batez ere, denda berria irekitzeko enplegua sortzen duela gorai-patuz.

Hiru atxilotu Bergaran, enpresa batean lapurtzea egotzita

Eguaztenean, goiz partean egin zituen atxilotetok Ertzaintzak, ustezko gaizkileak Bergarako San Juan auzoko enpresa batetik kobrezko piezak harrapatzen atzeman zituztenean. Dirudenez, ibilgailu bat enpresaren barrutira sartzerakoan aprobetxatu zuten euren barrura sartzeko, bertan zegoen kobrea lapurtzeko helburuarekin. Autoan kobrezko 25 pieza kargatzea lortu zuten. Atxilotuak 23, 30 eta 37 urteko gizonezkoak dira.

Heriotza duina eta dolua berbegai bihar eta astelehenean

Biharko, zapatua, Arantzazun egin dute hitzordua. Bidegin elkarrearen eskutik, Gabonetan dolua zelan bizi azaltzeko jardunaldia izango da. 10:30ean da hitzordua, Asis Topagunean, eta 15:30eko bisita gidatuarekin amaituko da.

Bestalde, modu duinean hiltzeko eskubidearen gaineko hitzaldia antolatu du Goienagusi elkarteak. Kasu horretan, Arrasaten egin dute hitzordua, astelehenean, hilaren 17an, 18:00etan.

Supermerkatuen kontrako protesta egin zuten

Inaugurazio ekitaldia egiten zuten bitartean, San Martingo asanbladako hainbat kidek elkarretaratzeko egin zuten supermerkatu kanpoan, *Supermerkatu ereduari ez lelopean*. Salatu zuten etekin ekonomiko handiak ateratzeko, supermerkatuek gertuko produktuak baztertzen dituztela, baita supermerkatu ereduaren etorrerarekin denda txikiak gainbeheran daudela ere. Gaineratu zuten supermerkatu ereduak tamaina txikiko nekazaritza eredu tradizionala desagerrarazi duela.



Gazte batzuek bilkura egin zuten. | TXOMIN MADINA

Eskaintza
199,90 €



HUSQVARNA 236

Eskaintza
299,90 €



HUSQVARNA 240 e TB

Eskaintza
399,90 €



HUSQVARNA 140

Eskaintza
499,90 €



HUSQVARNA 450e

Eskaintza
599,90 €



HUSQVARNA 346XP

Eskaintza
699,90 €



HUSQVARNA 365XT

Eskaintza
799,90 €



HUSQVARNA 372XP XT



Gabon zorientsuak, guztioi!

Husqvarna®



comercial BRUNET
www.comercialbrunet.com

Telleria, 2 • Labegarieta
Tel.: 943 76 31 52 • Fax: 943 76 70 12

brunett@telefonica.net
BERGARA - GIPUZKOA

Jarrai gaitzazu:



Ibai Redondo | Sorturen Debagoieneko komunikazio arduraduna

"Sortu sustraitzen bada, erronka guztiei erantzuteko gai izango da Euskal Herria"

Sortu eratzeko prozesuaren bigarren deialdia egin dute oraingo astebururako

UBANE MADERA | ARRASATE

Sortu lau urteotan izango duen ildo politikoa finkatzeko herriz herri batzarrak egingo dituzte. Ibai Redondok, ibarreko komunikazio arduradunak, eman ditu xehetasunak:

Zeintzuk izango dira hausnarke-tarako mahai gainean jarriko dituzuen puntuak?

Hainbat gai mamitsu jorratuko ditugu: estatu sozialistaren ezaugarri nagusiak; EH Bilduren ibilbidea eta etorkizuna; euskal estatua lortzeko abertzale guztien arteko elkarlanerako aukerak; eraldaketa sozialerako urratsak; bake prozesua eta preso zein iheslarien etxeratzea; desobediencia zibila; euskara eta hezkuntza;...

Herriz herriko hitzordua egin dituzue; zelan planteatzen dituzue, baina, batzarrok?

Ponentziaren laburpena izango dute guztiek lagungarri, eta gaian sartzeko bideo bat ere egongo da. Ondoren, batzarrak parte hartzaileak izan daitezten, talde txikietan banatu eta bakoitzak gogokoen duen gaia lantzeko aukera izango du.

Batzarretan lantzen denarekin, gero zer egiten da?

Euskal Herrian 200 batzarretik gora izango dira, bertan jasotako ekarpenekin ponentziak moldatzen eta osatzen joango gara. Sortu milaka ezkerriar eta abertzale sortutako tresna izango da; gauzak ondo, otsailaren 23ko Kongresu Nazionalean aurkeztuko du bere burua. **Aurreko herri batzarrak oso jen-**



Ibai Redondo. | SORTU

detsuak izan ziren; datuak ere badituzue...

Debagoieneko herri guztietan 200dik gora lagunek parte hartu zuten lehenengoan. Euskal Herri osoan 5.500 lagunetik gora. Espero dugu bigarrenak ere arrakastatsuak izatea.

Beste zerbait gura baduzu gaineratu...

Erronkaz betetako egoera dugu: kapitalismoaren krisia, independentziarako aukera, gatazkaren konponbidea... Herri bizia da gurea, hamaika proiektu eta herri mugimendu. Sortu herri honetan ongi sustraitzen bada, erronka guztiei erantzuteko gai izango da Euskal Herria.

"Milaka ezkerriar eta abertzalek sortutako tresna izango da Sortu"

Asteburuko hitzordua, herriz herri

Elgetan gaur, egubakoitza, egingo dute batzarra, 19:00etan, kultura etxean; gainontzeko guztiak zapatu goizean dira: Arrasaten, 10:00etan, Kulturaten; Bergaran, 10:00etan, Irizar jauregian; Oñatin, 09:00etan, gaztelekuan; Aretxabaletan, 09:00etan, Arkupe kultura etxean; Eskoriatzan, 10:00etan, Ibarraundin; eta Antzuolan, 09:00etan, Olan etxean.

200 milioi eurotan handitu nahi ditu salmentak Fagor Etxetresna Taldeak

Asteon onartu duen 2013-2016 Plan Estrategikoaren oinarrietako bat da

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Fagor Etxetresnak Kooperatiba Taldeak bi ez ohiko batzar orokor egin ditu eguaztenean eta eguenean, eta onartu egin du zuzendaritzak proposatutako 2013-2016 Plan Estrategikoa.

Horren arabera, datozen lau urteotan, kooperatibak hazi egin nahi du, batetik munduko beste enpresa batzuekin aliantzak osatu eta, bestetik, kooperatiba taldea osatzen duten enpresen "dimentsionamendua" bultzatuz, betiere "pertsonei garrantzia" emanez. Helburua da salmentak 200 milioi eurotan handitzea.

Bazkideen ekarpena

Plan estrategiko hau onartzearen ondorioetako bat da, "finantza plan bat bultzatzea, kanpo baliabideak erakartzeko eta barruko baliabideak berrindartzeko", bereziki, bazkide kooperatibisten eskutik.

Fabian Bilbao Fagor Etxetresnen Taldeko zuzendariak azpimarratu du, europar merkatu nagusiek bizi duten egoera ekonomikoak eragindako hazkunderik ezaren aurrean, Arrasateko kooperatiba taldeak bere parte hartze mailari eutsi egin diola, eta baita handitu ere, etxetresna elektrikoan alorrean, Espainian eta Frantzian. "Gaur egungo merkaturak daukagun egonkortasunak bultzatzen gaitu zabaltzera hazkundera dauden herrialdeetara, hala nola, Txinara edo Ekialde Ertaineko herrialdeetara, enpresen arteko aliantzen bitartez. Horrek lagunduko digu produkzio kostuak optimizatzen, erosketa bateratuak egiten edo produkzioak elkartrukatzen" esan du Bilbao.

Gama altua Asiako merkaturak

Hark gogora ekarri du, era berean, urte hasieran Roban enpresa txinatarrekin hitzarmen sinatu zutela, De Dietrich gama altuko "gure marka Asiako merkaturak sartzeko".

Hauxe izan zen, Bilbaoren esanetan, etxetresna elektrikoak hazkunde bidean dauden herrial-



Fagor Etxetresnetako egoitza, Arrasateko Garagartz auzoan. | GOIENA

deetan komertzializatzeko elkarlan estrategikoaren hasiera.

"Dimentsionamendu" prozesua

Hazkunde eta aliantza estrategia honek zera ekarriko dio Fagor Etxetresnak Taldeari: batetik, Fagorrendako ezinbestekoak diren Polonia bezalako herrialdeetan duen produkzio ahalmena handitzea, eta bestetik, barruko eraginkortasuna eta lehiakortasuna hobetzera bideratuta dagoen "dimentsionamendu prozesua" azkartzea. Horretarako, balio erantsi handiena duten produktuetan oinarrituko da Fagor Etxetresnak.

Era berean, Fagor Etxetresnetako zuzendariak gogora ekarri du, Plan Estrategiko hau taldea osatzen duten pertsonen zuzenduta dagoela, bereziki: "Ekonomia sozialeko mundu mailako korporazio garrantzitsuenaren barruan gaude eta gure hazkunde ekonomiko denboran jasangarria den lan kooperatiboarekin konpromisoarekin lotuta dago". Azkenik, Fagor Etxetresnak apustu egin du "berrikuntza eta irtenbide teknologikoen garapenaren" alde. Bereziki, "merkaturari irtenbideak emango dizkioten egoketa alorreko produktu eta zerbitzu berriak" ekoiztuz.

Carrefour GORBEIA Abenduaren 24ra arte

OPARIA

%8* **DESKONTU TXARTELA ERREGAIETAN**

*60 € baino gehiagoko erosketentatik. Club Carrefour zure txartela aurkeztuz edo PASS Visa zure txartelaz ordainduz. Urartea kalea - 23 (Ailbarra izkina), Foronda, Zurbano eta Arrasateko AVIA zerbitzuguneetan trukagarria.

mó BETAURREKO PROGRESIBOAK

50% desk. lente guztietan

Goi mailakoak • Islen kontrako kristalak • Graduazio Guztiak

Gabonetan, izarrak bezain distiratsu.

Konsulta itzazu optikan, kanpalaren ezaugarriak. Armazioa erosi beharko da promozioa onartzeko. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95

ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75

BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

ZABALIK

JUAN MARI OKINA
http://goiena.net/iritzia/



Istoriotxo bat...

Lan angabezia bi urte zeramatzen lagun bati gertatu zitzaion. Laidako hondartzan zegoen; itsas ertzean paseoa zihoala itsasgora hasi zen. Berarekin paseoa zebilen bere bi urteko umea eskutik hartu eta arin abiatu ziren toallarantz. Itsasgora euren atzetik azkar zihoala, hondartzan baten batek utzitako motxila ikusi zuen nire lagunak. Alde batera eta bestera begiratu, eta jabea agertzen ez zenez, motxila busti baino lehenago, berarekin eramatea erabaki zuen. Motxila leku seguru baten utzi eta bere mutikoarekin hondarretan jolastera joan zen. Ordu erdira, atzeritarra ematen zuen gizon bat agertu, lurretik motxila jaso eta leku guztietara begiratu zuen, motxila hor nork demontre utzi ote zuen bere buruari galdetuz. Neure lagunak umearekin jolasten jarraitu zuen, bere barrenean poztasun anonimo batekin.

"Besteez apur bat gehiago arduratuz gero, gehiago irabaziko genuke"

Hortik sei hilabetera, eta desesperantzak nahiko jota zegoela, nire lagunak lanpostu baten eskaera jaso zuen. Bizkaian, multinazional batek lantegi bat eraiki eta 300 lanpostu sortuko zituen. Poz-pozik nire lagunak lanari ekin zion. Aspaldiko partez, lehen argi izpiak ikusten hasi zen.

Lan berrian bi aste zeramatzala, lan jardunaldia bukatu eta autorantz zihoala, bere ondotik ezaguna egin zitzaion gizon gorbatadun bat pasa zen. Jakin-minak jota bere lankide bati galdetu zion:

—Eta gizon hori nor da?

—Gizon hori Marcus da, lantegiaren jabea. Esan didatenez, zalantza asko zeuzkan lantegi berria hemen zabaltzeko asmoaz, baina, azken momentuan, bat-batean iritiz aldatu, eta hemengo jendearengan konfiantza handia zuen argudioaz, 300 lanpostu berri sortu dituen lantegia jarri du.

Neure lagunak ez zuen ezer esan. Baina segituan konturatu zen Laidan bere motxila uretan ia galdu zuen gizona zela Marcus.

Ikasketa interesgarria iruditu zitzaidan; trukean ezer itxaron gabe, besteez apur bat gehiago arduratuz gero, akaso guztiok gizar-te moduan gehiago irabaziko genuke. Ondo izan!

USTEAK USTE

INAZIO ARREGI | iarregi@goiena.com

Adierazpen askeko guneak

Oñatiko Udalak adierazpen libreko guneak jarri ditu. Erabaki bikaina, baina ez nahikoa beste ekimen batzuekin borobiltzen ez bada. Adierazpen askatasuna gauza guztien gainetik defendatu behar den eskubidea da, herriko etxeetako eraikinak garbi ikusteko eskubidea bezala. Paretak gauez margotu izan ohi dira, norberak edo taldeak adierazi nahi duena adieraztea debekatuta dagoelako. Gaur adierazpen eskubidea era askotara gauza daiteke: Internet erabiliaz (blogak, albisteak erantzunaz), tokiko prentsaren bidez... nahi erara. Ez ditzagun nahastu adierazpen askatasuna eta berau gauzatzeko edozein euskarri erabiltzekoa. Guneekin batera, lan pedagogikoa eta araudia beharko dira.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Gorroto duzun hori

Jon Eskisabel

http://paperekoa.berria.info/plaza/2012-12-11/033/001/gorroto_duzun_hori.htm

Ajuria Enea uzteko bi egun geratzen zaizkion Patxi Lopez lehendakariari esker ona adierazteko ETBko zuzendaritzak egin nahi izan dion despedidako oparia izango da, akaso. Ezaguna da Lopezen musika zaletasuna, eta ematen ez badu ere, Ruper Ordorikaren jarraitzailea da. [...] Hortaz, blegean euskarazko kantu bat jartzeko ordua zela iritzi zionean, Ordorikaren ale bat aukeratu zuen, *Zaindu maite duzun hori*. [...] Haatik, azalpenik ez zuen eman kantuaren esanahiaz edota sortu zeneko testuinguruaz. Deigarria, Ordorikaren edozein zalek baitaki *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxierarekin lotuta dagoela kantua. Orduko hitzak aipatuz, "euskaldun izateagatik gutxienez susmagarri garen honetan" sortu zuela Ordorikak. Ia hamar urte igaro badira ere, oraindik ere kantuaren inguruak gogora ekartzen ditu Ordorikak zuzenean jotzen duen aldiro. Abestia eta *Egunkaria*-ren bortxazko itxieraren salaketa

—eta oro har, euskalgintzaren aurkako eraso ororena— betiko lotuta gelditu dira, bereizezinak dira. Protesta kantu bihurtu da. Indar sinboliko hori du.

ETBk 19 legebiltzarkide kantuan jarri ditu Gabon gauean emitituko duen *Euskal Kantuen Gaua* saiorako. EAJ, EH Bildu, PSE-EE, PPko eta UPDko 19 legebiltzarkide. Bideo bat grabatu dute [...] Milaka kanturen artean bat aukeratu behar, eta *Zaindu maite duzun hori* hautatu dute. Bai, irakurle maiteok. *Egunkaria* indarrez ixtea babesteaz aparte, hura euskal kulturaren eta euskararen beraren mesederako operazioa zela esanez iseka egin zigun Angel Acebes ministroaren alderdiko ordezkariak jarri dituzte *Zaindu maite duzun hori* kantari; tortura salaketak gutxiesteaz gain, torturatuak auzitara eramaten ahasartu zen ministro horren alderdikide Iñaki Oiatzabal, auzipetuen absoltzioaren ondoren auziaren zentzugabetasuna aitortu eta auzipetuei elkartzasuna azaldu beharrean, epaia "onartu" egiten zuela adierazi eta Justiziak bere lana ondo egin zuelako pozik azaldu zen berbera, bideoan ageri da, Laura Garridorekin batera, "baina gauzak zer diren, kontuak ez zaizkit ateratzen

ongi" irribarrez abesten. [...] Hori bai, bideoa muntatzean egileek ez dute lotsaren marra gorria zeharkatu nahi izan eta esaldi giltzarria, "inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den", EH Bildukoentzat gorde dute.

Gosaldu berri, barrenak nahastu zizkidan bideo aurrerapenak. Ez dut uste beharrezkoa denik arrazoietan sakontzea, begi bistakoa da zer egin duten kantuarekin, esanahia ebatsi, hutsaldu eta desitxuratu. Errespetua galdu. Zikindu. [...] Ni, euskaldun, *Euskaldunon Egunkaria*-ko langile ohi, kazetari, musika zale eta euskaltzale gisa, iraindua sentitu naiz, erasoa, neure barruko zokorik intimoenean kolpatua. Eta min egin dit alderdi abertzaleak laidoaren neurriaz oharu ez eta pantomima horretan parte hartzeko prest azaltzeak, edota oharurik ere uko egiteko gaitasunik ez izateak, eta tristatu nau Laura Mintegi Euskal PEN Clubeko presidentea ere, *Egunkaria*-ren auzia munduan ezagutarazteko lan handia egin ostean, bideoan ikustek.

Zaindu gorroto duzun hori. Hori ere esaten du kantak. Bideoan nori egokitzen zaion abestia ikuskizun dago.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Maketaziora Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifiano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER A
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00


ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Baliteke gidariren bati teleordainketa berriak ilusiorik ez egitea

Gipuzkoako autobideetan, gehienez

25,64€ / hilean
(gipuzkoarrentzat bakarrik)

AP-1 / AP-8

VIA-T teleordainketa



Ibilgailu homologatua baldin baduzu eta mutur batetik bestera ibili behar baduzu, autobidean barrena, interesgarria irudituko zaizu zifra hau: 25,64 €/hilean. Gehieneko tarifa berria duzu, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bidegik martxan jarria, AP-1ean eta AP-8an egunero ibiltzen diren milaka gipuzkoarren gastua arintzeko.

www.bidegi.net



Gipuzkoa
BERRIA

Francisco Etxeberria | Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentea

"Memoria historikoaren gaian unibertsitateak ezin du albora begiratu, parte hartu behar du"

- ▶ Auzitegi-mediku, irakasle eta antropologo ospetsua Bergaran izan da, UNEDen ekitaldian
- ▶ Torturaz, memoria historikoaz eta unibertsitateaz dihardu Aranzadiko presidenteak

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Francisco Etxeberria (Beasain, 1957). Antropologoa, EHUko irakaslea, Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentea... Auzitegi-mediku ezagun eta izendunetako. Torturaz, memoriaz historikoaz, unibertsitateaz... jardun dugu harekin. UNEDeko ikasturte hasiera ekitaldian izan zen, Bergaran.

Bergarako seme baten izena darian zientzia elkarteko buru zara. Bergarako UNEDen eman izana berbaldua berezia da?

Ohore handia da Aranzadi Zientzia Elkarteko presidentea izatea; izan ere, 16 urte nituenetik nago bertan. Horren gaztetatik Aranzadin aritzeak eman dit aukera gauzak modu batera bizitzeko eta ikerketarako metodologia praktikoa eta konkretuak ikasteko. Oso jende baliotsua ezagutu dut hemen. Esan izan dut Aranzadik balio duela bokazioak bideratzeko. Bestetik, sarritan erabiltzen dut ikasle eta agintarien aurrean Telesforo Aranzadiren esaldi hau: "Ezagutzen dutena bakarrik ikusten dute begiek; bilatzen dutena topatzen ez badute, esaten dute ez dagoela ezer".

Unibertsitatean ere memoria historikoaren gaia egon beharra azpimarratu duzu. Zergatik?

Unibertsitatean diziplina guztiek dutelako tokia eta ikuspegiak diziplina askotarikoa izan behar duelako beti. Beste profesional batzuek beste ikuspuntu batzuetatik ere ekarpena egin dezatela beharrezko dugu. Historia hau ez da horren zaharra eta gaur egungo errealitatea baldintzatu du. Unibertsitateak ezin du alde batera begiratu.

Hobiak lurpetik ateratzen, duintasanak berreskuratzen izenburuko berbaldua eskaini zenuen. Espainiako gerran fusilatutako hainbat eta hainbat hobiak lurpetik ateratzen zabilzate azkeneko urteotan. Zer moduz?

Gure erantzukizuna da informazioa eskaintzea egia ezagutzeko. Justizia egiteko eta kalteak konpontzeko lehen zutarrria egia da. Eta, egiaren bila, objektiboak eta inpartzialak izan behar dugu, baina ez neutralak. Ezin gara neutralak izan oinarritzko giza eskubideen urraketari buruz dihardugunean.

Zaila da gorpu horiek lurpetik ateratzea? Zein da zailtasun nagusia?

Gure zailtasun nagusia izan da ulertezintasuna. Gaur egun hori desagertu egin da, baina hainbat alderdi politikok beldurra adie-



Francisco Etxeberria auzi medikua Bergarako udaletxean, UNEDen ikasturte hasiera ekitaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

razten dute, ezin dezaketelako kontrolatu herritar xume eta arruntek bultzatu duten fenomeno hau.

Adierazi duzu Auzitegi Nazionalako auzitegi-mediku gehienak estaltzaileak izan direla beti...

Beti kritikatu izan dut Auzitegi Nazionalako lege berezi batzuen

"Aranzadi Zientzia Elkartea balio du bokazioak bideratzeko"

"Gorpuak lurpetik ateratzean zailtasun nagusia izan da ulertezintasuna"

ondorioz atxilotuek duten babes judizialik eza. Baina aitortzen dut ez dudala beharko nukkeen bezain tinko, gogor edo ozen esan. Tortura ohiko norma izan da eta hala sinisten ez dutenak dira, Amnesty Internationalek dioen moduan, torturaren kontua sinistu nahi ez duten hiritar horiek, hiritar guztien erdiak, hain justu ere. Franco hil ostean ere torturak iraun baldin badu, asko ezkutatu egin dutelako izan da. Egunotan albiste da hainbat polizia katalan indultatu dituztela, tortura kasu larriengatik epaitu eta zigortu dituztenak.

Auzitegi-mediku horiek gaur egun ere egia ezkutatzeko ari dira?

Unibertsalki ezagunak diren protokoloak ezartzen ez badituzte eta baloik kanpora botatzen ari badira, bai.

80ko hamarkadan gertu-gertutik jarraitu zenituen torturatuena salaketak, testigantzak... Oso ohikoa zen orduan torturatzea?

Eguneroko kontua zen, eta baita delinkuentzia komunean ere. Zelanbait esatearren, atxilotuari belarrondokoak eman eta zigorrak ezartzea ohikoa zen. Halako jazarpenak jasan dituzten elkarretaratze bat egingo balitz, ez litzateke tokirik izango hauek batzeko.

"Inork ez dio oparitzen Gabonetako otarra premia duenari"

"Kordobako umeen auzia gai erraza da, auzitegi-medikuaren ikuspegitik"

Eta gaur egun existitzen da oraindik?

Egun, ez dut uste tratua bera denik. Hala ere, atxilotuen kudeaketa zulo beltz bat da eta politikariak horren jakitun dira. Gaur egun atxilotu batek gaua pasa dezake udaltzainen ziega batean manta zikin batek estalita?

Esan izan duzu epaileen eskuetan dagoela tortura kasuak irautea ala desagertzea. Zergatik?

Ikerketako efikazia handiko metodo osagarri bat delako. Eta, horri gehitu behar diogu polizien departamendu ezberdinetako hierarkian inor ez dela kontra egiteko gauza. Hau dena aldatzeko makineria geldoegia da.

Hiritartasun merituen garaikurra eman zizuten iaz. Pozik?

Sariak dira Gabonetako otarren antzekoak, jasotzen dituztelako erosi ahal dituztenek. Inork ez dio oparitzen Gabonetako otarra benetan premia duenari. Eta uste dut giza eskubideen gaineko sariak jaso beharko lituzketela nik baino lan handiagoa egin dutenek. Sariak eta garaikurrek famatu egiten zaituzte, baina hau ez da ona, erretiroa hartuta ez baldin bazau, behinik behin.

Zure lanak balio izan du hainbat ikerketa argitzeko. Kordobako bi umeen kasua da ezagunenetakoa eta berriena. Zela dago kontua?

Otsailean egingo da ahozko epaiketa eta uste dut gaia oso garbi dagoela. Auzitegi-medikuaren ikuspegitik gai erraza, argia, da. Eta horregatik bakarrik egindako guztiak merezi izan du. Beste kontu bat da polizien arteko nahasketa, gutxi batzuk haseraztu dituenak.

Eta ze iruditzen zaizu beste auzitegi-medikuak ez asmatu izana bi umerenak zirela Kordobako azien-dan hartan aurkitutako gorpuak -hondarrak?

Ezjakintasunaren eta prestakuntza urriaren ondorio da. Edozeinek egin dezake hutsegiteren bat, baina tamaina horretarako nik ez daukat gogoan.

Lasa eta Zabalarena izan zen beste aurkikuntza sonatu bat. Zela aurkitu zenituzten gorpuak?

Gogoratzen dut datu asko azaleratu zirela, eta arrasto batzuek Alacantaren erroaten gintuzten. Ez nuen uste pista hark bide onera eroango gintuenik, ez neukan itxaropen handirik, egia esan. Baina zur eta lur geratu nintzen hezurdurak aurkitu genituen. Egia azaleratzeko, ezinbestekoak izan ziren sentiberatasun berezia zuen agintari judizial bat eta familiakoen abokatuak.



Opariak geurean

JOLAS. Bergarako Jolas-en diseinuzko arropa eta osagarriak aurkituko dituzu. Argot Margot, Smash eta beste zenbait marka... Etor zaitez begiratu bat ematera. Gabon jai zoriontsuak!
JOLAS - Barrenkale 27 - BERGARA - Tel.: 943 76 46 48



Santakurtz 27-amaiaumedenda@hotmail.com



TERNUA TXAKETA ETA FRAKAK. Gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat, barruko ehundura ile luzekoa duten haize-babesle Windshell Softshell® Highloft jakak eta ShellStretch®-ezko prakak. Hainbat koloretan eskuragarri.

M5 KIROL DENDA.
 Mitarte 5, ARETXABALETA. Tel.: 943 54 09 55

BASERRITAR JANTZIAK. Baserritar jantzetan aukera zabala. ETORRI eta IKUSI.

AMAIA UME DENDA. Santakurtz, 27. ARETXABALETA.

ZubiKua

Replay
 IKKS
 Diesel
 Kilt
 Hiptee



Bluton
 Modttal
 Zero
 Laserre
 Rocca Garcia

ZUBIKOA. Edurnek eta Kristinak bergarar eta debagoiendar guztioi gabon jai zoriontsuak opa dizkizue!

Barrenkale 24 - Tel.: 943 76 10 16 - BERGARA



IRATXO. Etor zaitez, lentzerian azkena dena ezagutzera. Iratxo-ren partez, Gabon jai zoriontsuak izan!
 Telesforo Aranzadi kalea 2 - BERGARA - Tel.: 943 76 00 79

GABONETAKO ESKAINTZABEREZIA **0% 30EKO DESKONTUA**

TXAKETA FRAKAK

Mitarte 5 - ARETXABALETA
 Tel. 943.54.09.55

SUBIJAI.
 - 2 eta 16 urte arteko umeentzako.
 - Denetarikoz jantziak eta gustu guztientzako.
 - Bergara erdialdean gaude. Zatoz!
SUBIJAI.
 Irizar Pasealekua 1. BERGARA. Tel.: 943 764241



HERRIAK

ANTZUOLA

Uzarraga, bizirik mantentzeko

Abenduaren 20an, Olaran etxean, Uzarragaren egoera eta plangintza aurkeztuko dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Antzuolaren sorrera ezin da ulertu Uzarraga aipatu barik. Ahozko tradizioari nahiz hainbat idatziri kasu eginez gero, eliza tenplarioek eraikitakoa da. 1625ean Lope de Isastik idatzi zuenez, elizako atean San Juanen orde-nako intsignia zegoen, tenplarioek erabiltzen zutena. Baina gaur egun ez dago horien aztarnarik, lurren mugimenduagatik berri-itu behar izan baitzuten eliza.

Uzarragak garrantzi handia izan zuen garai batean. Esaten denez, bertako hilerrian lurperatzen zituzten bailarako ospetsuak. Liburu batzuetan agertzen denez, Bergarako Ozaeta jauregiko jaunak Uzarragako hilerrian lurperatzea eskatu zuen 1484an. "Uzarraga bizirik mantentzeko kide herriak egin nahi ditugu. Gure helburua Antzuolan jatorria izan zen Uzarragako eliza, eskola, kanposantua eta ingurua zutik mantentzea da", azaldu digu Jose Mari Iturbek, Uzarraga Bizirik taldeko kideak. "Uzarraga eta haren historia auzotarrentzat eta antzuolarrentzat erreferente



Uzarragako kanpandorrea, aurrean taberna izandako eraikina daukala. | GOIENA

nabarmenak dira. Egungo egoera ikusirik, azken urteetako zainketa faltak eta azken egunetako desegite lanek bultzatu gaituzte

eskaera egitera", azaldu digu Iturbek. Izan ere, elizatearen jabea Gotzaindegia da. "Eliza-ekarteak eliza itxi eta bertatik

baliozko elementuak atera ondoren, Uzarragaren egoera hondamendiaren bidean doa; honen aurrean etsipena nagusi den arren

guk uste dugu zerbait egin daitekeela. Bertako elementu batzuk zutik mantentzea posible da. Elizbarrutiko arduradunekin harremanetan gaude, baina erantzuna ez den arren oso baikorra, atek ez daude guztiz itxita", gaineratu dute Uzarraga Bizirik taldeko kideek.

Uzarraga Gipuzkoako elizate zaharrenetakoa dugu eta auzotarrek penaz ikusten dute hondatzen auzoaren eta Antzuolaren historian horrelako zeresana izan duen lekua.

Aurkezpena, hilaren 20an

Olaranen, eguenean, 19:00etan egingo dute aurkezpena. Bertan, Uzarragaren historia labur azaldu eta egungo egoera eta plangintza zein den azalduko dute Uzarraga Bizirik taldekoek.

"Zer egin eta nola jokatu azaltzeko bilera bat egitea beharrezkoa ikusten dugu. Antzuola osoaren inplikazioa lortzeko denon indarra eta ahalegina beharrezkoak izango direlako Uzarraga bizirik mantentzeko", nabarmendu dute taldeko kideek.



INIGO RAMIREZ DE OKARIZ

UZARRAGA, 1940 Antzuolako lehenengo parroquia dugu –San Joan eta Piedadekoa–. Atzealdean Santakutz gaina dago. Han egon zen XVIII. mendean desagertu zen Santa Kruz basiliza.

Eskola: zaindu beharreko ondarea

Auzoko lehenengo eskola ere zutik mantendu gura du Uzarraga Bizirik taldeak. "Orain 50 urtera arte martxan zegoen eta bertan ibilitako herritarrek ezagutzen ditugu; horrelako eskola gutxi gertatzen da, gainera. Ondare materiala eta immateriala da, zalantza barik; horregatik, elizatearekin batera eskola berri-itu nahi dugu", azaldu digute Iturbek eta Pollero-k.



Uzarragako eskola-umeak, 1954an. | I.R.D.O.

Valentziako laranjak Arrasaten!
Jaso berriak, Albalat de la Ribera-ko uzta propioetatik.

Ostiralero Arrasateko azokan.

Interneten erosi beharrean, eros itzazu Arrasaten bertan.

Antzeko diru kopurua, baina gastu gehiago

Zailtasunen aurrean orain arteko lehentasunei eusteko konpromisoa hartu du Udal Gobernuak

J.B. / Z.V.D.M. | ARRASATE

Eguaztenean prentsurrekoa eskaini zuen Udal Gobernuak, "Arrasateko Udalaren egoera ekonomikoa eta 2013ko aurrekontuak nondik nora joango diren azaltzeko". Egoera ekonomikoa zaila dela berretsi zuten bertan, eta krisi globala izan zuen hizpide alkateak: "Egoeraren erdian dago Euskal Herria. Aldaketa politiko-soziala burutzeko premia handia dago. Herri bezala gure etorkizuna erabakitzea bizirau-penerako ezinbestekoa da, eta geu ere zuzenean ukitu gaituen krisi honetatik ateratzeko, gure baliabideak gure beharren arabera erabiltzeko ahalmena izan behar dugu".

Egoeraren osagai nagusiak

Egungo egoera ekonomikoa deskribatzeko osagai nagusien artean, krisiak eragindako Foru Fondoaren bilakaera negatiboa aipatu zuen alkateak: "Udal baliabide nagusia da. Aurrekontuaren %34 da (aurten 11.338.883 euro)". Bestalde, Udalen Legea ere izan zuen berbagia: "Beste instituzio batzuei dagozkien zerbitzuen kargu egin behar izateak gastu handiak suposatzen dizkio Udalari". Gainera, prentsurrekoan esan zuenez, beste administrazioetatik jasotzen diren dirulaguntza programen murrizketa nabarmenak zuzenean eragin du egungo egoeran.

Diru, batzordez batzorde

2013ko aurrekontua lantzen hasita daude dagoeneko, eta, alkateak jakinarazi zuenez, 2012koaren antzerakoa izango da: 30 milioi euro inguru erabiliko dituzte Arrasate kudeatzeko, geroz eta gastu gehiagorekin. Eta bestalde, Aukea eta Iturbide egoitzarako 4.948.171 euro edukiko dituzte.

Oposizioko kideek jaso dute batzorde bakoitzera bideratuko

den diru kopuruaren berri. Oposizioko alderdiek proposamenak egin behar dituzte orain, eta asmoa da abenduaren 26an egingo den osoko bilkuran aurrekontu horiek onartzea.

Arduraz jarduteko unea dela gaineratu zuen alkateak; izan ere, "seguruenik datozen urteotan ez dira gehituko diru kontuak eta finantzak". Horregatik, gastuari utsiko diote, ahalik eta gutxien zorpetzeko. Hori, ekonomia-finantza kudeaketa eraginkor eta iraunkorra landuz eta Udal Gobernuaren lehentasunak kontuan hartuz egingo dutela gaineratu zuten eguazteneko agerraldian.

Lehentasunak zehaztuz

Egoeraren aurrean, orain arteko lehentasunekiko konpromisoa agertu zuten, ongizatea, enplegua, euskara eta kultura, mugikortasuna, parte hartzea eta hondakinen kudeaketa arduratsua sustatuz.

ESANAK

"Epe motzera ez dira gehituko diru kontuak eta finantzak"

I. AZKARRAGAUZAR | ALKATEA

DATUA

30

MILIOI

Arrasate kudeatzeko 30 milioi euro inguru ditu Udalak 2013an.



Iratxe Zeziaga, Ogasun zinegotzia, eta Inazio Azkarragaurizar, alkatea. | JOKIN BEREZIARTUA



TOYOTA

75 URTEURRENA

APROBETXA ITZAZU BERE ABANTAILAK TOYOTA GAMA OSOAN

Ereman osatu Toyota bat aukeratu behar duzuekin

7

urteko artekoa

Finantzazerbitzua

5

urteko



Auris 2012 likidazioa. 0 km-ko 10 auto

12.700 € eurogatik (Pive plana barne)

Garantia: 3 urte + 2 urte autoa Toyota Euskoautorekin finantzatuz gero

PIVE PLANA BARNE

EuskoAuto www.euskoauto.toyota.es

BERGARA
Olabarrena, 2/g
Tel: 943 762 385

ELGOIBAR
Olaso industrialdea
Olaso kalea 23 - Tel: 943 747 417

PASAIA ANTZO
San Markos errepidea 32
Tel: 902 345 245

OLABERRIA
Karobi industrialdea
Tel: 943 805 926

TOYOTA
Familiarrean zaudete.

Batez besteko kontsumoa (l/100 km): 4,5. CO2 igorpenak (g/km): 118.

Hauetako diru isurpena: REZA, garapena, mobilizazio-erregia, promozioa, koordinatzailearen ekarpena, 3 urteko garantia edo 100.000 km (defenagor gertatzen dena), beste lekuetako Erreturaren garantia gehigarria, 3 urteko erregidatzaile garapena eta Pive plana. Puntuak merkatatuta ez dago izan. Ezarritako balantza, izanik agurta arte, itxeraren ondoren baldarrendatuta bakarrik. Proiektu hau ez da inongo beste edukiarekin edo beste bati loturik. Proiektu honetarako lango garrantzitsuak dira diruak indusgai eta konpromisoa diruarekin. Buztegi diruaren erabilera ez da erabiltzen diru. Informazio gehiago, zure jabea Toyota EuskoAuto kontsultatzen.



Goienari-rent
Ibilgailuen alokairua

- IBILGAILUA ERAMATEN DIZUGU:
 - LANTOKIRA
 - ETXeko ATARIRA
 - AIREPORTURA...
- ETORRI GUREGANA ETA **GABONETAKO DESKONTUAK** DISFRUTA ITZAZU!!!

JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON OPA DIZUEGU!!!

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK
943 71 66 52 / 619 44 71 75
info.goienarent@i-rent.es
www.goienarent.com





Hauetako diru isurpena: REZA, garapena, mobilizazio-erregia, promozioa, koordinatzailearen ekarpena, 3 urteko garantia edo 100.000 km (defenagor gertatzen dena), beste lekuetako Erreturaren garantia gehigarria, 3 urteko erregidatzaile garapena eta Pive plana. Puntuak merkatatuta ez dago izan. Ezarritako balantza, izanik agurta arte, itxeraren ondoren baldarrendatuta bakarrik. Proiektu hau ez da inongo beste edukiarekin edo beste bati loturik. Proiektu honetarako lango garrantzitsuak dira diruak indusgai eta konpromisoa diruarekin. Buztegi diruaren erabilera ez da erabiltzen diru. Informazio gehiago, zure jabea Toyota EuskoAuto kontsultatzen.

Elkano Browning Cream taldearen erritmo biziak

Amaia antzokiko 'hall'-ean arituko da hirukotea gaur iluntzean, 20:00etan hasita

Z.V.D.M. | ARRASATE

Mikel Azpiroz donostiarrak, Franck Mantegari paristarrak eta Dave Wilkinson ingelesak osatzen dute Elkano Browning Cream taldea, eta teklatua, bateria eta gitarra jotzen dute, hurrenez hurren. Gaur iluntzean Amaiako hall-ean hiru diskotako kantuak interpretatutako dituzte.

Hiru jatorri, proiektu bat

"Ameriketako Estatu Batuetan musika egiten ari ginela ezagutu genuen elkar, 2007an". Hala eman dio aditzera Azpirozek Arrasate Irratiari. "Baina Wilkinson barik, Matt Harding gitarra jole amerikarra zegoen taldean eta harekin grabatu genituen aurreneko diskoak".

Jatorri askotariko musikariek osatzen dute taldea. "Nork

bere karga kulturala ekartzen diogu taldeari". Toki askotariko lagunak, musika bidez elkartuak. "Euskal Herrian, Txinan edo Australian, musika hizkuntza instrumentu moduan hartuta konexio bat sortzeko aukera izatea primerakoa da".

Jazz egituratik abiatuta, haratago joaten da hirukotea. "Eklektikotasunari garrantzi handia ematen diogu eta munduan zehar entzuten ditugun musikak gure abestietan sartzen saiatzen gara".

Erritmo osagai indartsua dauka Elkano Browning Cream taldeak. "Mantegari Afrikan asko ibilitakoa da eta hark ekartzen du groove edo dantzarako erritmo hipnotiko hori". Askok erabiltzen duten elementua, hain zuzen.



Urteaga, Urrutia eta Iborra, aurkezpenean. | Z.V.D.M.

Egitaraua aurkeztuta hasi da festarako atzerako kontaketa

Santamasetan ez dira faltako dantza emanaldiak, taloak eta euskal musika tresnen erakusketa

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Martitzen iluntzean Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan aurkeztu zuten 2012ko Santamasetako egitaraua. Santamas Komisiñoko Ikeia Iborrak, Kultura zinegotzi Kepa Urteagak eta herriko zenbait kultur taldeetako ordezkari Eneritz Urrutiak hartu zuten parte aurkezpenean.

Egitarau oparoa

"Maien egutegixan arabera, mundue ez da mundu izengo abenduan 22xen. Apokaliptikuen berbetan, bezperan, izetiai itxiko dutzau goizeko hamaikak aldera... Nola? Hortan, zorionez, ez die ados jarten". Santamasak antolatutako arduradunak baikorragoak dira, egitarau oparoa prestatu dute.

Abenduaren 21ean, Luixifer txerria aurkeztuko dute Herriko Plazan, 19:00etan. Gainera, Arrasateko Bertso Eskolako eta Gaztetxeako bertsolarien arteko desafioa egingo dute kale eta tabernetan, 19:00etan.

Santamas egunari dagokionez, betiko hitzorduek arrakasta izaten jarraitzen dute: txerri-dantzak eta larrain-dantzak, Uarkapeko pilota jaialdiak, Amaiako bertso saioak... Eta noski, azokek.

Abereen azokak berritasuna dakar; "euskal arrazako animalia gehiago" egongo direla eman zuten aditzera antolatzaileek. Bestalde, artisau ferian bigarrenez lanbide zehatz bat hartu eta monografikoa egingo dute. Iaz artzaintza izan bazen protagonista, aurten euskal musika tresnak izango dira. Zuzenean nola egiten dituzten ikusteko aukera egongo da. Gaiarekin zerikusia duten beste bi ekimen prestatu dituzte: Lorentxo Altube euskal musika tresnetan aditua da, eta erakusketa egingo du hilaren 15tik 19ra, Harresi aretoan. Erakusketaren azken egunean, gainera, Oreka TXK txalapartari buruzko tailerra egingo du, 18:30ean, aretoan bertan.

Martin Abaderen bisita

Beste nobedadeetako bat da abenduaren 24an Martin Abade Arrasateko pertsonaia mitologikoa bertatik bertara ezagutuko dugula. Txoronpio eta Txoronpiari lagunduko die herriko haurrek Olentzerori bidalitako eskutitzak jasotzen. Hilaren 23an, pertsonaia hobeto ezagutzeko ipuin kontaketa egingo dute Kulturaten, 18:00etan. Bestalde, Olentzerorekin kantuan irteteko dei egin du Olentzeroren Batzordeak. Interesatuz gero, gaur 18:00etan elkartuko dira eta bihar 12:00etan, Goikobaluk Erlojuaren eraikinean duen lokalean.

Kike Amonarrizek berbaldia eskainiko du hilaren 19an

Kike Amonarrizek itxiko du AEDK antolatutako Lau begiratu euskararen norabideari hitzaldi zikloa. XXI. mendeko euskaldunak: nola ari diren aldatzen gauzak, kamarada! izeneko berbaldia eskainiko du. Hilaren 19an izango da, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan hasita.

Bertso musikatu gaua antolatu du Arrasateko Bertso Eskolak gaurko

Arrasateko Bertso Eskolak eta Monte tabernak bertso saio musikatu antolatu dute gaurko, 22:30ean, Montan bertan. Xamoa, Jokin Labaien, Mantxi eta Jon Martinek bertsoak egingo dituzte, Haritz Casabalek gaiak jarriko ditu eta Imanol Ugarte eta Eneko Sierrak musika ipiniko dute.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismokak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.


Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Sipi Sipi

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PUB HAIZEA



arbolapeta

beinke

Arrasate Musikalen eta Goikobaluren kontzertua

Z.V.D.M. | ARRASATE

Arrasate Musikalek zenbait kontzertu eskainiko ditu datozen egunetan. Bihar izango da lehenengoa, San Frantzisko elizan, 20:00etan. Goikobaluko abesbatzekin batera arituko dira Arrasate Musikalekoak.

Aurrena, Txistularien Banda Gaztea eta Goikobalua Txiki eta Gazteren txanda izango da, eta *Otsango, Gora ikastolak* eta *Belenen jaio da* interpretatuko dituzte. Nagusiek, berriz, *Gabonetako sonata txoa*, *El banco de Mendiguren*, *Ai hau gauaren zoragarria*, *Bigarren kalez kale* eta *Olentzero* interpretatuko dituzte, beste hainbaten artean.

Abenduaren 20an eta 31n, berriz, kalera irtengo dira Arrasateko Musikalekoak. Kulturaten izango da, datorren egunean, 18:30ean, eta ikasleak izango dira protagonista. Urtea amaitzeko, berriz, ohi bezala, Amaia antzokian elkartuko dira hilaren 31n; Gabon zaharreko kontzertua eskainiko dute, 13:00etan hasita.

Josemari Velez de Mendizabal | Historialaria

"XVIII. eta XX. mende arteko zubia izan zen Miguel de Madinabeitia"

Z.V.D.M. | ARRASATE

Arrasate Zientzia Elkarteak antolatutako *Arrasateko iragana astintzen* hitzaldi zikloaren barruko azken berbaldia eskaini zuen martitzen iluntzean, Kulturaten, Josemari Velez de Mendizabal historialariak. Miguel de Madinabeitia arrasatear ezezaguna eman gura izan zien ezagutzera bertaratuakoei.

Berbaldian, Miguel de Madinabeitia gerturatu zenien herritarrei.

Bai, eta Miguel de Madinabeitia zer eta nor izan zen azaltzen saiatuko naiz.

Eta zer izan zen arrasatearra? Nire iritziz, XVIII. eta XX. mendeen arteko zubia izan zen, baita idazlea ere, Arrasateko artxiboa arakatzen aitzindaria eta, gainera, hari esker dakizkigu Erdi Arotik hasita herriaren gaineko datuak. Bestalde, dibulgatzaile handia ere izan zen Madinabeitia.

Eta nor izan zen?

Miguel de Madinabeitia 1828an jaio zen eta 1903an hil zen. 34 urtez udal idazkaria izateagatik ezezaguna da, baina aurretik sarri lagintza enpresa pribatu baten aritu zen. Arrasateko seme ezezaguna izan zen, eta ea, behingoz, lehendabiziko zertzeladak emateko gai naizen.



Josemari Velez de Mendizabal. | Z.V.D.M.

Miguel de Madinabeitia ez da pertsonaia ezezaguna. Nola izan zenuen haren berri?

XX. mendeko historialari askok aipatu izan dugu Madinabeitia, baina ez geneukan haren arrastorik, ez genekien benetakoa zen edo ez.

Iaz denbora nahikoa eduki nuen ikertzeko; haren familiarengana jo nuen, eta haiek ere gutxi zekiten. Baina nire eskarri erantzunda, ganbara baten dokumentazio multzo bat topatu zuten eta nire eskuetan utzi zuten. Orduan ohartu nintzen zenbat gauza idatzi zituen, tartean Arrasateko historiaren gaineko 74 orri. Orain, dokumentazio hori aztertzen ari naiz.

Zaisa Irun taldearen bisita bihar Mojategin

X.U. | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeko mutilak hasi dira bigarren fasea hasterakoan egindako promesa betetzen; alegia, sailkapenean aurrean egoteko beharrezkoak diren garaipenak lortzen.

Joan den astean hasi zuten fase berria, Uribealdearen kantxan. Arrasatekoendako zelai ezezaguna zen, ligako lehen jardunaldia han jokatu zutelako, eta baita jipoi polita jaso ere (25-4). Zapatuan, baina, gauzak erabat ezberdinak izan ziren. Lehen itzuliko azken partiduetan izandako hobe-kuntza baieztatuta, Igor Isa-siren mutilak Uribealdea menperatzeko gauza izan ziren, (10-19) eta garaipen horrekin nahi moduan hasi dute fase berria. Garaipen horri esker etxeko mutilak laugarren dira sailkapenean.

Zapatuan, berriz, zazpigarren lekuan sailkatuta dauden Zaisa Irun taldearen bisita izango dute Mojategin (16:30). Irungoak minduta egongo dira, joan den astean Hernanik erreposoa eman zielako, euren etxean, gainera.

ZALDIBAR

EMAITZAK	
Iluna Tab - Dribling	2-8
AT Betrayer-Ostantz	3-3
Abokajarro-Irizar	5-5
Sonografos-Irizar	4-2
Haizea's Weah-Lasagabaster	2-5
Aston Birra-Aldatz	3-7
Fidel & Discipulos-Ostantz	4-5
Iluna Taberna-Irizar	1-17
AT Betrayer-Irizar	3-6
Abokajarro-Lasagabaster	8-5
Sonografos-Aldatz	4-2
Haizea's Weah-Aston Birra	6-4

SAILKAPENA		
TALDEA	P	J
1 Irizar	13	5
2 Sonografos	13	5
3 Ostantz	11	5
4 Abokajarro	10	4
5 Dribling	9	4
6 Lasagabaster	6	5
7 Aldatz	6	5
8 Haizea's Weah	6	5
9 AT Betrayer	4	4
10 Irizar	4	5
11 Fidel & Discip.	3	4
12 Aston Birra	1	5
13 Iluna Taberna	0	4


PARTIDUAK	
ABENDUAK 15. ZAPATUA	
10:30	Abokajarro-Aston Birra / AT Betra.
11:30	AT Betrayer-Aldatz / Abokajarro
12:30	Dribling-Irizar / Aldatz
ABENDUAK 16. DOMEKA	
10:30	Iluna Tab.-Lasagabaster / Fidel &
11:30	Fidel & Discipulos-Irizar / Lasagabas.
12:30	Sonografos-Haizea's / Irizar

Jokalari berriendako epea: urtarrilak 28

Zaldibarko taldeek jokalaria berriak fitxatzeko azken eguna izango da urtarrilaren 28a. Hortik aurrera ezingo da aldaketarik egin.

aurreztu
gastuetan
% 50

eska iezaiguzu ikerketa bat konpromezurik gabe!



www.fincasdonosti.com

Jarri zure komunitatea eskurik onenetan

Espezialistak gara

Zure komunitatearentzako onena

eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan

- Jabekideen komunitateen kudeaketa integrala
- Bulego-erakinen kudeaketa integrala
- Garaje-solairuen kudeaketa integrala
- Atzeratutako kuotak kobratzeko kudeaketa
- Alokairuen kudeaketa
- Eraikinen ikuskapen teknikoak: EIT
- Garbiketa-zerbitzuak
- Mantentze-lanak eta konponketa zerbitzua eguneko 24 orduetan.
- Bulegoa irekita eguneko 24 orduetan



Fincas Donosti-Arrasate
Garibai 6B Bis ARRASATE
Tel eta Faxe.: 943 252638
E-posta.: arrasate@fincasdonosti.com
www.fincasdonosti.com

Atez atekoaren eztabaidak ia hiru ordu iraun zuen

Asteleheneko osoko bilkura monografikoarekin bete egin zen aretoa

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Astelehenean egin zen EAJko Udal Taldeak eskatutako atez atekoaren gaineko ezohiko osoko bilkura monografikoa. Bergarako bilkuren aretoa lepo bete zen. Bergara Garbia plataformako kideak ere bertan ziren. Gobernu kideen eta EAJko zinegotzien arteko eztabaidak luze jo zuen; ia hiru ordu eta erdi iraun zuen.

Atez atekoaren alde egiteko Udal Gobernuak erabilitako argudioak izan ziren, besteak beste, ingurumenarekiko eskaintzen dituen onurak, lortzen den birziklatzen maila handia eta, kostuei dagokienez, bosgarren edukiontzia sistemaren antzekoak direla. EAJko ordezkariak informazio eta transparentzia falta salatu zuten eta azaldu zuten atez atekoa sistema garestiagoa dela. Udal Gobernuak atez atekoa "inposatzen" ari dela adierazi zuten eta "XXI. mendeko despotismo ilustratuaren ispilua" direla.

Herritarren parte-hartzea

Herritarrek ere hartu zuten hitza astelehenean. Horietako batek alkateari eskatu zion 4.700 sinadurei kasu egiteko. Alkateak azaldu zien eguaztenean Bergara Garbia plataformako ordezkari batekin biltzekoa zela, eta herritar oro gonbidatu zuen bilerara.

Begarako Zero Zabor taldeko kide batek hartu zuen hitz ondoren. Hondakinen kudeaketan paradigma aldaketa beharrezkoa dela adierazi zuten eta herritarrei lasaitasuneko mezua zabaldu nahi izan zien: "Badakigu herritarrek zalantza asko dituztela. Horregatik eskatzen diegu infor-



Osoko bilkuren aretoa bete egin zuten herritarrek eta ordezkari politikoek. | ARRITXU BARRUSO

DATUA

18

MILIOI EURO

Bilketaren esleitze prozesua martxan dago eta gastu muga 18 milioi euro da.

mazio kanpainetan parte hartzeko. Esan nahi diegu orain egiten dutenaren antzekoa izango dela. Ezberdintasun bakarria izango da organikoa bereiziko dutela".

Bideragarritasun txostena

Mankomunitateko kontu-hartzailea ere izan zen osoko bilkuran eta atez atekoaren bideragarritasun plana aurkeztu zuen. Adierazi zuten, besteak beste, hondakinen tratamendua gero eta garestiago bilakatzen ari dela: 2004tik hona hondakinen trata-

mendua %215 garestitu da eta igotzen jarraituko duela aurreikusten da. Mankomunitatearen ustez arazoaren konponbidea da zabor tona murriztea. Elortondok azaldu zuten bilketari dagokionez zalantza barik atez atekoa dela garestiena, baina ezinbestekoa dela hondakinen kudeaketa integrala bere osotasunean aztertzea eta hori eginez gero ikuspegi ekonomiko huts batetik ez dagoela aurrez esaterik zein den garestiagoa. Mankomunitatearen ustez, gastuak murrizteko gakoa da bilketa-modu efizientea lortzea.

Zaborraren kuotaren gaineko datuak ere eman zituen. Hemenetik eta 2016ra bitartean kuota %19,80 igoko da. Lehenengo urtean izango da igoera handiena, %14, baina aurrera egin eta atez atekoa beste herrietan inplantatu ahala kuotaren igoera txikiagoa izango da eta 2016an tasa %3 jaitsiko litzateke. Bestetik, azaldu zuten bilketaren kontratua esleitze prozesuan dagoela eta esleipena-

ren gastuaren muga 18 milioi euro dela.

Galdeketa ez

EAJko ordezkariak behin eta berriz adierazi zuten herri galdeketa beharra. Alkateak azaldu zuten ez dela galdeketa egongo, gaur egun ez delako eza gutzen "atez atekoak bezain emaitza onak ematen dituen beste sistemarik". Horrez gain, Parte-hartzerako zinegotzi Jaione Isazelaiak jeltzaleei adierazi zien garai baten EAJk errauskailuaren aldeko hautua egin zuenean ez zela galdeketa egin.

Ordezkaritza politikoa

Publikoan, ibarreko ordezkari politikoa ugari izan ziren: Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Antzuolako alkateak; Mankomunitateko Ingurumen arduradun Josu Pereda; Oñatiko alkate ohi Lourdes Idoiaga eta Eskoriatzako EAJko zinegotzi Aitor Urrutia, besteak beste.

Balorazioak

UDAL GOBERNUA

"Argi geratu da atez ateko bilketa selektiboa dela ingurumenaren zaintzarako egokiena; baita ekonomikoki bideragarria dela, Mankomunitateko kontu-hartzailearen datuek erakutsi moduan. Sistemaren ezaugarri zehatzak, hau da, bilketa guneak eta bestelako zehaztasunak, urtarrean, herritarrek batera adostuko dira. Fase honek duen garrantziagatik parte-hartzea ahalik eta zabalena izatea nahi dugu".

EAJ

"Udal Gobernuak benetako aurpegia erakutsi zuen: inposizioa. Entzundakoak entzun ondoren, Bilduri herri partaidetza eta herriaren hitza bost axola zaizkiola salatzen dugu. Argi geratu zen erabaki politikoa hartu duela ezker abertzaleak, atez ateko sistema askoz garestiagoa dela, eta alkateak ez duela entzun nahi beste sistema proposamenik. Guk sinesten dugu bergararren konpromisoan eta badakigu behartu gabe gaikako bilketa hobeto egiteko gai garela".

PSE-EE

"Astelehenean gertatutakoa lotsagarria izan zen. Tentsio handia suma zitekeen, eta eztabaida bizia. Momentu batzuetan, gainera, ahotsa behar baino gehiago altxatu zuten batzuek. Eta zertarako? Ezertarako ez. Hiru orduko eztabaida izan zen eta ez ginen adostasun batera ere iritsi. Gainera, erabakia hartuta dago duela urtebetetik. Beraiek datu batzuk eman zituzten, baina guk beste batzuk ditugu".

Bergara Garbiak protesta ekitaldiak antolatu ditu

A.M./M.B. | BERGARA

Atez ate ez, 5. edukiontzia, eman hitza herriari, Bergara Garbia plataformak prentsurrekoa egin zuen martitzenean, atez atekoaren gaineko bilkura monografikoaren biharamunean. Plataformaren helburua herritarrek birziklapenaren gainean "kontzientziatzea eta hezitzea" dela esanda, "hondakin gutxiago sortzearekin batera, horiei tratamendu egokia eman" behar zaie la uste dute, "ahalik eta gehien birziklatuta; baina ez edozein modutan. Ez dugu uste herritarrek behartuz helburua lortuko dugunik".

Bilkuran atez ateko sistema egokientzat jo bazen ere, eurak ez daude horren alde: "Garestia da, herriaren itxura degradatuko duena eta deserosoa, batez ere nagusi eta ezinduendako".



Bergara Garbia plataformako kideak martitzeneko agerraldian. | ANDER MONEDERO

Inposatutako sistema dela azpimarratu zuten, eta batu zituzten 4.691 sinadurei "Udal Gobernuak bizkarra eman" diela esanda, herri kontsulta eskatu zuten. Bosgarren edukiontzia aldeko aldarrikapenean jarraituko dutela esan zuten, eta protesta ekimenak iragarri zituzten. Hala, paperez bete-

tako plastikozko poltsak jarriko dituzte leiho eta balkoietan, "atez atekoa jartzeak eragingo duen inpaktu bisuala irudikatzen" eta herritarrei ekimenarekin bat egiteko dei egin diete. Debagoien mailako manifestazioa antolatzen ere ari dira ibarreko gainerako plataformekin.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Zero Zabor-ek dio EAJk alarma soziala piztu duela

G.A. | BERGARA

Atez ateko bilketa sistemaren aldeko hautua berretsi du Bergara Zero Zabor taldeak, erredakziora bidalitako prentsa ohar baten bidez. Bertan dio garbi duela norabide horretan lanean hasia "ezinbestekoa" dela "egiazko" garapen jasagarria lortzeko eta pairatzen ari garen "krisi sistemikoa" atzean uzten joateko. Erraustegiari atek itxi, zabortegi toxiko konbentzionalei amaiera eman eta gaikako hondakin bilketa selektiboa atez ateko sistema bidez egiteko hartutako erabakiak babesten dituztela gogora ekarri dute, eta EAJri "alarma soziala" piztea ere egotzi diote.

Horrekin batera, herritarrak informatzen jarraituko dutela ere azpimarratu dute: "Hamaika saio eta hitzaldi antolatu ditugu, eta baita Udalak ere, eta aurreantzean ildo berean jarraituko dugu, guztion artean ahalik eta eredu egokiena osatu ahal izateko". Lasaitasun mezua ere bidali diete herritarrei.

Bergara Garbiaren eta Udalaren arteko batzarra "adeitsua" izan da

Eguaztenean egin zuten, plataformak eskatuta

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Hondakin bilketa sistemaren gaineko desadostasuna nabarmena izan arren, "komunean zenbait puntu dituztela" ikusi zuten Bergara Garbia plataformako ordezkariak eta Udal Gobernuako kideek eguaztenean, plataformaren eskariz udaletxean egindako batzarrean.

Plataformako lau kide joan ziren batzarrera atez atekoaren ezarpen prozesua bertan behear uzteko eskatzera, eta horietako batek, Josu Leturiak, esandakoaren arabera, "batzarra ondo joan zen, eta bilketa sistemaren gainean iritzi oso ezberdina izan arren, era oso adeitsuan".

Leire Iruinek ere, Ingurumen zinegotziak, gauza bera azpimarratu du: "Bilera oso lasai joan zen, ondo; iritzi ezberdinak izanda, norik berea argudiatuta".

Zenbait puntu komunean

Bergara Garbiakoek hondakin gaiaren gainean duten ikuspuntua azaldu zieten Jesus Elortza alkateari eta Leire Iruin zinegotziari eta bosgarren edukiontzia zergatik hobesten duten azaldu zieten. Hobenu taldeko kideek ere gauza bera egin zuten eta bi aldeek komunean zenbait puntu dituztela ikusi zuten.



Edukiontzia kalean. | GOIENA

"Komunean gauza asko ditugu, eta puntu askotan ados gaude, gainera; hondakinekin dugun arazoarekin, esaterako", esan du Iruin zinegotziak.

Bergara Garbia plataformako ordezkari Josu Leturia ere iritzi berekoa da: "Gure ikuspuntuak mahai gaineratu genituen, eta, hainbat gauzatan ados ez gauden arren, beste batzuetan bagaudela ikusi genuen, oso agerikoak direlako. Esaterako, garbi geratu zen gaur egun egiten dugun edukiontzien erabilera ez dela egokia, edozein modutan botatzen ditugulako gauzak".

Aranzadi Ikastolakoek elkartasun azoka egingo dute bihar, zapatua, San Martin plazan

Ikasleekin lantzen dituzten eskubide, betebeharrak eta arduen gaiarekin lotuta, eman, hartu, elkartasuna, beste errealitate batzuen ikuspegia... lantzeko, Gabonetan elkartasun kanpaina egiten dute, herri osoari zabaldua. Horren barruan, elkartasun mahaia jarriko dute, 11:00etatik aurrera, San Martin plazan, eta jostailu eta eskola materiala batuko dituzte.

Zenbait ekintza izango dituzte datozen egunetan San Joxepe elkarteok Santo Tomas atarian

Hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunetarako. Astelehen, hilak 17, mus txapelketa izango dute; hilaren 18an, tute txapelketa; eta hilaren 20an, berriz, briska txapelketa. Santo Tomas egunean, hilaren 21ean, banatuko dituzte lehiaketa horietako sariak; txistorra ogitartekoak ere emango dituzte Santo Tomas egunean, eta ondoren dantzaldia egingo da.

Eguaztenean, hilaren 19an, Kirol Kontseiluak batzarra egingo du Agorrosin Ekintza Gunean

Datorren eguaztenean, hilaren 19an, Kirol Kontseiluak batzarra egingo du Agorrosin, ikus-entzunezkoen aretoan, 19:00etan. Bertan, 2012-15eko Kirol Zerbitzuko plangintza estrategikoaren zirriborroa aurkeztuko da, eta 2012. urtean zehar egin dutena baloratuko da. Deialdia irekia da eta herritar guztiak daude gonbidatuak parte hartzera.

Athletic Zaleek urteko batzarra egingo dute hilaren 18an, martitzenean, Artatse elkartearen

Athletic Zaleen Elkarteak urteroko batzarra egingo du datorren martitzenean, hilaren 18an, eta bazkideei joateko dei egiten diete. Artatse elkartearen egingo dute bilkura. Batzarrarekin batera, egutegiak banatuko dituzte, luntxa ere izango dute, eta bi saski ere zozketatuko dituztela aurreratu dute elkarte bazkideek.

25. URTEURRENA
Etor zaitez gurekin ospatzera!

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93
Newniak 38tik 60ra

Aprobetxa itzazu!

%20 %30 %40 %50 DESKONTUAK

Euskal dantzen ikastaroa, Jardunekin

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak euskal dantzen ikastaroa antolatu du urtarrilean hasi eta ekainera bitartean. Trikitia, porrusalda, aurrekua, fandangoa eta arin-arina erakutsiko dituzte.

Eskolak eguaztenetan izango dira, urtarrilaren 9an hasita, 19:30etik 21:00etara, Zabalotegin, eta Abarka eskolako kideak izango dira irakasleak, Juantxo Urbieta, Janire Urbieta eta Jon Arri-laga.

Izena emateko Jardunen bulegora (Errotalde jauregi) jo daiteke, 943 76 36 61 zenbakira deitu edo jardunkultura@topagunea.com helbidera idatzi.

Ikastaroaren prezioa 15 euro da hilean Jarduneko bazkideendako –ikastaro osoa 90 euro dira–, eta 17 euro, berriz, gainontzekoendako –ikastaro osoa 102 euro–. Ikastaroan izena emanda sei hilabeteko konpromisoa hartzen da.

Ikastaroa aurrera eramateko gutxienez 20 pertsona behar dira.



Belceblues taldea, Eskoriatzan egindako kontzertu baten. | GOIENA

Riffs&Chip's eta Belceblues bihar gaztetxean Txaparen eskutik

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Txapa Irratiak blues jaialdia antolatu du biharko, hilak 15, gaztetxean. 22:30ean hasiko da eta Riffs&Chip's taldearen kontzertuak irekiko du gaua.

Gasteizko laukote horren ondoren, Belceblues bergararrak igoko dira taula gainera. Azken horiek urtarrilean Menphisen (AEB) ospatuko den nazioarteko blues txapelketarako prestatzen ari dira, eta biharko kontzertuan erakutsiko dute zertarako gai diren.

Gainera, taldearen 101. zuzeneko ere badenez, ezusteko ugari ere prestatu dituzte, kontzertura hurbiltzen diren guztiendako.

'Jam session' ere bai

Gaua borobiltzeko, *jam session* egongo da Funk Junkers taldearekin eta animatzen den beste edonorekin. Hori horrela, interesa duenak instrumentua eraman bestetik ez du parte hartze-ko.

Jaialdiaren sarrerako prezioa borondatea izango da.

Txapa Irratiko kideek azpimarratu duten moduan, kontzertua zuzenean entzuteko aukera izango da irrati libre horren bitartez. FMan entzuteko, 97.20 sintonizatu behar da Bergara inguruan, eta Internet bidez entzuteko, berriz, <http://www.txapairratia.org/> webgunean entzun daiteke.

Hasi dira Udalaren egutegia banatzen, eta etxe, denda eta elkarte guztietara iristen saiatuko dira

Postontzian sartzeko egutegia tolestu beharra dagoen kasuetan, atarrietan etxe bakoitzerako bana lagako dira pilotxoan. 20an amaituko dute 2013ko egutegia banatzen. Data horren ondoren, Udaltzaingoan jasotzeko aukera izango da etxeren batean jaso ez bada. Udaletik azpimarratu dute Udaltzaingoak ez duela banatze-ko alerik izango banaketa era ofizialean bukatu arte.

Euskal Herriko IV. Mus Txapelketako kanporaketa jokatu da bihar, 16:00etan, Artatse elkarte

Izen-ematea momentuan egingo da, bikoteko 20 euro ordainduta. Bihar sailkatzen direnek Euskal Herriko finala jokatu dute. Hori izango da sari nagusia, baina bestelakoak ere egongo dira: 200 euro, lehenendako; 100, bigarrenendako; bi txuleta eta sorpresa, hirugarrenendako; eta untxia eta sorpresa, laugarrenendako. Euskal Herriko finala Agurainen izango da, martxoaren 9an.

Gabonetako pilota txapelketan neskaz osatutako kategoria bat izango da, lehenengo aldiz

Gabonak gainean ditugu eta gero eta gutxiago falta da Gabonetako pilota txapelketarako. Zenbait berrikuntzarekin dator aurtur, gainera. Normalean hil amaieran bukatu izan den arren, aurtur hileren 23an izango da finala, pilotaz gain, beste zenbait ekintza ere egingo direlako Gabonetan pilotalekuan. Bestalde, neskaz bakarrik osatutako benjamin kategoria izango da, lehenengoz.

Urtea kantuan agurtuko dute Alaiak Taldekoek 22an San Antonion eta herriko kaleetan 24an

Urte amaiera kantuan agurtuko du Alaiak Taldeak datozen asteotan. Elgetan abestu zuten eguaztenean, eta herrian borobilduko dute egitaraua. Hilaren 22an San Antonion abestuko dute, han urtero egiten den Napar Ferian. Eta bukatzeko, Gabon egunean urteroko kalejira egingo dute Alaiak Taldeko kideek herriko kaleetan barrena.



Ondo pasa Gabon jaietan!



ERAKUSKETAK AROZTEGI ARETOAN			
Buztinzale zeramika elkartearen erakusketa. Abenduaren 14tik 23ra Beart arte elkartearen erakusketa. Abenduaren 28tik urtarrilaren 20ra Ordutegia: Asteartetik ostiralera: 18:00 – 20:30 Larunbatetan: 12:00 – 14:00 eta 18:00 – 20:30 Igandetan: 12:00 – 14:00			
ABENDUA OSTIRALA 14	ABENDUA LARUNBATA 15	ABENDUA IGANDEA 16	
22:00 Txintxaun kolektiboaren "The Full Monty" antzezlan Zabalotegin. Sarrera: 8 €	18:30-21:30 DJ jaialdia Zabalotegin. Doan. 20:00 Bergarako Orfeoiaren gabonetako kontzertua Mariaren Lagundiko elizan. Doan.	Zinea Zabalotegin. 17:00* - 19:30: <i>Barrura Begiratzeko leihoak.</i> 4 € * Eneko Olasagasti zuzendariarekin solasaldia. Zine-kluba gaztetxean 18:00: <i>El precio de la verdad</i>	
ABENDUA ASTEAZKENA 19	ABENDUA OSTIRALA 21	ABENDUA LARUNBATA 22	ABENDUA IGANDEA 23
Zine kluba Zabalotegin. 20:00 <i>Morir de dia.</i> 3€	18:30: Musika eskolaren Gabonetako kontzertua Udal Pilotalekuan. Sarrera 12 urtetik beherakoek 2€, hortik gorakoek 4€	NAPAR FERIA San Antonion. Egunean zehar festa giroa. 22:30: Gabonetako kontzertua Udal Pilotalekuan. 8€	19:00: "The wolves" kale antzerkia San Martin plazan.
ABENDUA ASTELEHENA 24	ABENDUA ASTEAZKENA 26	ABENDUA OSTEGUNA 27	ABENDUA OSTIRALA 28
11:30: Olentzero Bateratua herriko haur eta gurasoekin 19:00 Olentzero eta Mari Domingi kantuz Bergarako kaleetan. Irteera Udal biltegitik.	Ludoteka kalera. Munibe Plazan. 11:00-13:00. Goazen ume eta gurasoak elkarrekin jolastera. Zabalotegin. 17:30-19:30 Gabonetako 3x3 Saskibaloiturneo Udal pilotalekuan.	Ur jolasak Agorrosinen. 11:00 – 13:00 16:00 – 18:00 18:00 Lorategian 1-3 urteko umeentzako antzezlan Zabalotegin. 4€	11:00-13:00 Ludoteka kalera! Munibe plazan. 18:00: Taun Taun taldearen "Batuta" 5 urtetik gorako umeentzako txotxongilo emanaldia Zabalotegin. 4€
ABENDUA LARUNBATA 29			
09:00-14:00 Saskibaloiturneo mailako torneo. Labegarrietan. 19:00 eta 22:30 Bergarako Musika Eskolako Peter Pan musikala. Udal Pilotalekuan. Sarrerak: Butakan 15€ eta harmailan 12€.			
ABENDUA IGANDEA 30			
09:00-14:00 Saskibaloiturneo mailako torneo. Labegarrietan. 19:00 Bergarako Musika Eskolako Peter Pan musikala. Udal Pilotalekuan. Sarrerak: Butakan 15€ eta harmailan 12€.			
URTARRILA ASTEARTEA 1	URTARRILA ASTEAZKENA 2	URTARRILA OSTEGUNA 3 ETA OSTIRALA 4	URTARRILA LARUNBATA 5
Ongi etorri 2013!!!		Ur jolasak Agorrosinen 11:00 – 13:00 / 16:00 – 18:00 Tailerrak Agorrosingo ekintza gunean 11:00 - 13:00 / 17:00 – 20:00 Agorrosingo ludotekan 11:00-13:00 Eskulanak 17:00 Dantza familiar 17:00 Aurpegi margoketa 18:00 Haurrentzako dantza 19:00 Karaokea 19:15 Dantza ikuskizuna	Jolas Parkea Udal Pilotalekuan 2-10 urte bitarteko haurrentzat 11:00 – 13:00 / 17:00 – 20:00 Eguneko sarrera: 3€ / Bi egunetakoa: 5€
URTARRILA IGANDEA 6			
17:00 BIZAR ZURIK udal txapelketan haurren gutunak jasoko ditu. 19:00 ERREGE KABALGATA. 21:30 Gazteen arteko Afaria. 22:30-01:00 Amaia Txintxurretarekin DJ jaialdia			
<h2 style="color: white;">Errege eguna.</h2>			



Ainhoa Moiu teknikaria, Javier Bravo hezitzailea, Isidro Pouzas terapeuta eta Amaia Apraiz hezitzailea. | TXOMIN MADINA

Adingabeekin lan egiteko 'Denok bat' programa

Udalak abian ipini duen heziketa programan bi hezitzailek eta psikoterapeuta batek dihardute

T. MADINA/M.BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udalak arriskuan dauden adingabeak dituzten herriko familietan esku-hartze eta kale-heziketa programak ipini ditu abian. *Denok bat* programan bi hezitzaile, Javier Bravo eta Amaia Apraiz, eta psikoterapeuta bat, Isidro Pouzas, egongo dira lanean. Udalak Bidebarrietan duen lokal-tako baten izango du egoitza zerbitzuak; hain justu ere, Pausokak erabiltzen duen lokalean. Adingabeekin lan egiteko programaren aurrekontua 100.000 euro da.

Bi ildo nagusi ditu

Adingabeekin lan egingo duen programak bi ildo nagusi ditu:

alde batetik, arlo terapeutikoa dago: edozein adinetako adingabeendako da, eta familia-terapeutarekin eta familia-hezitzaile batekin egingo da; eta, beste alde batetik, kalean garatuko den arloa dago, gazteekin hartu-eman zuzena izango duten hezitzaileek egingo dutena. Azken horretan, 11-17 urte arteko gazteak sartzen dira.

Denok bat programaren helburu nagusia prebentzioa da. "Ahalik eta azkarren antzeman behar dugu arazoa. Posible bada, sortu aurretik, lehen sintomekin, egoera zaildu eta gogortu baino lehen lanean hasteko", esan digu Ainhoa Moiuak, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak.

Programa integrala

Udalak lehiaketara atera zuen adingabeendako zerbitzua, eta Izan zentroak dauka ardura. Horretarako, hiru pertsonak dihardute lanean.

Programa integrala, osoa izatea gura dute. Hau da, izan daitezkeen arazoei osotasunean erantzuna emango diena. Helburu hori lortzeko bidean, herriko ikastetxeekin, kirol elkarte eta beste hainbat eragilerekin hartu-emanetan daude.

Hezitzaileak izango dira arazoak detektatuko dituztenak, baina, inork arazorik badu, euren-gana joatea eskatu dute. "Arazoren bat egon daitekeela uste duena lasai etor dadila guregana.

DATUA

3

LANGILE

Horiek dira zerbitzu berrian lanean jardungo duten pertsonak: bi kale hezitzaileak izango dira eta bestea psikoterapeuta.

ESANAK

"Programaren helburua prebentzioa da: arazoa azkar antzematea"

AINHOA MOIUA | TEKNIKARIA

"Herrian dauden beharrak ikusten ari gara"

ISIDRO POUZAS | PSIKOTERAPEUTA

Kasu zehatz batekin izan daiteke, edo informazioa eskatzeko, besterik barik, baina etor dadila", dio Moiuak.

Euren burua aurkeztu

Javier Bravo, Amaia Apraiz eta Isidro Pouzas lanean hasi zirenetik, herriko errealitatea ezagutzen egon dira. Ikusten dutenaren arabera plan zehatzak egingo dituzte ondoren. "Elkar-lana bultzatu gura dugu. Eragile ezberdinekin egongo gara, herrian dauden beharrak ikusteko", esan digu Isidro Pouzas terapeuta.

Denok bat programaren kale-hezitzaileek Oñati ezagutzen dihardute egunotan. Era berean, euren burua ezagutzera eman gura dute, gazteek arazoren bat badute norengana jo jakin dezaten.

Erakusleiho lehiaketan botoa eman daiteke

M.B. | OÑATI

Oñatiko Udalak eta Txanda dendarien elkarteak antolatutako V. erakusleiho lehiaketan botoa emateko epea zabalik dago. 41 establezimenduk eman dute izena (ikus beheko taula) eta dagoeneko apaindu dituzte komertzioak. Adituen epaimahai batek bost sari emango ditu, baina herri-tarrek euren gustukoena aukeratzeko bidea ere badute. Txartel horiek udaletxeko harrera bulegoan, Turismo Bulegoan eta Sozioekonomia Zerbitzuan utz daitezke, hilaren 20a baino lehen.

4.500 euro saritan

Udalak 4.500 euro banatuko ditu saritan: lehenak 1.500 euro; bigarrenak 1.000; hirugarrenak 500, laugarrenak 300 eta bosgarrenak 200. Gainera, 500 euro jasoko ditu urtean zehar erakusleiho aldaketa gehien egin dituenak.

PARTE HARTZAILEAK

Amalur belar-denda
Aranburu margoak
Aranburu bitxitegia
Arkaux optika
Baio arropa-denda
Barue barne dekorazioa
Bellotza loradenda
Beloki iturgintza
Distira estetika
D'or estetika
Ene Bada
Haritza liburu-denda
Hirugar liburu-denda
Iñurritegi iturgintza
Itziar optika
Juanitosa bazarra
Kimu loradenda
Korosti kafea
Kukumiku arropa-denda
Kuttun lentzeria
Laket
Laket 2
Lantzen
Letamendi arropa-denda
Maria Jose ile-apaindegia
Maibi dekorazioa
Marku arropa-denda
Mendizabal kirol-denda
Murua-Ogiberri
Oinath arropa-denda
Sesiñena ile-apaindegia
Sua bitxi-denda
Sustrai fruta-denda
Sustrai fruta-denda
Thalasso-Eder
Txantxiku elektrizitatea
Txokolateixia
Urrutia gizonak
Urrutia emakumeak
Urtaza lentzeria
Urtxin loradenda



Musika eskolakoak sariekin akordeoi lehiaketatik

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek lan bikaina egin zuten Arrasateko akordeoi lehiaketan. Oihane Lazkanoiturburuk (12 urte) urrezko domina lortu zuen B mailan; Maddi San Krutzek (10 urte) urrezkoa jantzi zuen A mailan;

eta akordeoi taldeak zilarrezko domina eta 300 euro jaso zituen egindako lanarengatik. "Lan ikaragarria egin dute guztiek. Zorionak!", esan dute irakasleek. Txapelketan parte hartzeaz gain, kalejira egin zuten Arrasateko kaleetan.

MUSIKA ESKOLA

Bera Bera eta Barakaldo, aurrez aurre Zubikoan

O.E. | OÑATI

Bera Bera eta Zuazo Barakaldo eskubaloi taldeek partidua jokatu dute bihar, zapatua, Zubikoan, 18:00etan. Aloña Mendiko eskubaloi sailak antolatu du partidua.

Emakumezko eskubaloiak Serbian du orain hitzordu garrantzitsua, Europako txapelketa jokatu dute eta han. Hori horrela, ohorezko mailako taldeak erdi oportetan daude, eta geldione hori aprobetxatu gura izan du Aloña Mendik goi mailako bi talde Oñatira ekartzeko. Bera Bera taldearekin harreman ona du Aloña Mendik, eta, harreman hori baliatuz, talde horrekin harremanetan jarri ziren oñatiarrak herriko jaiak pasatu zirenean. Talde aurkaria Zuazo Barakaldo izango da. Abenduko geldionea pasa ostean, urtarrian jarraituko du emakumezkoen ligak, eta lehen partidua, hain zuzen, Bera Bera eta Zuazo Barakaldo taldeen artekoa izango da.

Urtarrilean, aldiz, gizonzkoek mundiala izango dute jokoan Espainian, eta, geldione hori aprobetxatuta, Asobal ligako bi talde ekarri gura ditu Aloña Mendik Oñatira. Dagoeneko jarri dira harremanetan talde batekin baino gehiagorekin.

Bera Beraren eta Zuazo Barakaldoren arteko partidua doan izango da.



Joan den urtean egin zen moduan, aurten ere herriko plazan egingo dute elkartasun azoka. | ELKAR HEZI

Gobernuz kanpoko 18 erakunde eta postu ugari biharko elkartasun azokan

Elkar Hezik antolatuta, hainbat produktu erakutsi eta oinetako eta bizikleta bilketa egingo dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bihar, zapatua, egingo du Elkar Hezik urteroko Elkartasun Tauladak izeneko azoka. Herriko plazan izango da, 10:00etatik 14:30era bitartean.

Euskal Herri osoko gobernuz kanpoko 18 erakunde etorriko dira. Bakoitzak egiten dituen proiektuen inguruko informazioa eta dituen produktuak ekarriko ditu, erakusteko eta saltzeko. Horrez gain, baina, beste hainbat

postu ere egongo dira; tartean, Eskola Agenda 21eko postua. Txoko horretan, hondakinen gaiarekin lotutako erakusketak eta berrerabilitako olio eta ontzietan xaboi egiteko tailerrak egingo dituzte. Aurpegi-margoketa tailerra ere izango da.

Zapatak eta bitxiak

Joan den urteko arrakasta ikusita, aurten ere oinetakoen bilketa egongo da Bilboko Zorua

oinetako-dendaren bitartez. Zapata horiek Saharara bidaliko dituzte gero. Horrekin batera, bizikletak ere batuko dituzte, Gazteak eta Garapena izeneko gobernuz kanpoko erakundearen eskutik. Bada, bizikletak Beninera bidaliko dituzte.

Bestalde, Elkar Heziko guraso eta ikasle zein irakasleek egingo duten gozogintza eta berrerabilitako bitxigintza postuak ere jarriko dituzte. Bi postu horietan batuko duten dirua Maliko proiektuetara bideratuko dute. Perkusio emanaldi txiki bat eta txosna ere egongo dira goizean.

Elkartasun azokak Elkar Hezik antolatutako abenduko lehen hamabostaldiko egitarau oparoa bukatuko du. Tartean, gaur bertan batxilergoko lehen mailako ikasleek natura eta artea uztartzen dituen Garaionekin egingo duten naturartelana.

Etxe-kaleratzei buruzko hitzaldia eguaztenean

Debagoieneko Kaleratzei Stop plataformako kide bat etorriko da datorren eguaztenean, etxe-kaleratzei buruz berba egitera. Krisiaren aurkako Oñatiko plataformak antolatu du hitzordua, eta hitzaldia hasi aurretik taldea aurkeztuko dute. Hitzaldia hilaren 19an izango da, 19:00etan, kultura etxean.

Hipo eta Tomax pailazoak Errekalde herri eskolara datoz

Papo pupa du izena Hipo eta Tomax pailazoaren abentura berriak, eta lan horixe erakuskerak datoz bihar, zapatua, Errekalde herri eskolara. Tomax udaltzainaren eta Hipotolomeo garbitzailearen arteko garbeherak kontatuko dituzte. Bihar da antzezlan, Institutuan, eta sarrerak 4 euro balio du.

Salgai gaztetxearen inaugurazio eguneko bazkarirako txartelak

Hilaren 20an inauguratuko dute Antixenako gaztetxea. Egun osoko egitaraua prestatu dute, tartean, bazkaria, eta txartelak dagoeneko salgai daude Arrano, Ona eta Boga tabernetan. Bazkaldu aurretik, batukada eta poteoa egingo dituzte, eta ondoren, *Gaztetxelandia*. 22:00etan, berriz, hainbat musika talderen kontzertua izango da.

Gabonetako kontzertua domekan da, parrokan

Domekan, hilak 16, izango da Gabonetako kontzertua parrokan, 19:00etan. Musika bandak, Oñati abesbatzak, parrokiako koruak, Ganbara abesbatzak, Ganbara Txiki abesbatzak eta Txantxiku Ikastolako abesbatzak hartuko dute parte. Inaxio Ibarrodok zuzenduko du eta batutako dirua Malira bidaliko dute.

Oihulari Klownek bi emanaldi egingo ditu haur liburutegian

Virginia Imazek bi saio egingo ditu hilaren 20an haurren liburutegian, 18:00etan hasita. Lehenengoa 3 eta 5 urteko umei zuzenduta egongo da eta bigarrena, 6 eta 9 urteko umei. 30 ume hartuko ditu saioak ordu erdi-koak izango dira. Haur liburutegian jaso behar dira gonbidapenak.



SAN LORENZO AUZOA BERGARA

Logela bateko etxebizitza	139.000 €-tik aurrera 23.127.654 pta
Bi logelako etxebizitza	168.000 €-tik aurrera 27.952.848 pta
Hiru logelako etxebizitza	216.000 €-tik aurrera 35.939.376 pta

- 1, 2, 3 eta 4 logela, sukaldea barne.
- Garaje eta trastelekuak

Lehen ~~BEZ-a %8~~ Orain Etxebizitza berrian **BEZ-a %4**

Etxebizitzen bukaera **2012**

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES



Sustatzailea



Argibidea eta Salmenta

943 424 430
www.ormak.es

GABONAK 2012

+ SANTAMASAK

Nola aukeratu jostailuak

**Postal eta egutegi
pertsonalatuak**

Gabonetarako lau menu

Gabonetan, etxera buelta


Gabonetan non-zer

**Santamasetan,
euskal musika tresnak**

**Punta-puntako
bertsolariak
Santamasetan**



ERABILI GEHIGARRI HAU
GABONETANI!



gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1 - OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxe: 943 78 15 51

EGUBAKOITZA

21

MUSIKA

BERGARA Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua
Udal Pilotalekuan, 18:30etan.

ARRASATE Never Surrender
Gaztetxean, 22:30etan.

ANTZERKIA

ANTZUOLA Domingo Chinchillarekin helduentzako ipuinak
Torresoroan izango da emanaldia, 22:00etan.

OSPAKIZUNAK

ARRASATE Haitzama taldearekin dantzaldia
Herriko Plazan, 20:00etan.

ANTZUOLA Txistorra banatuko da erretiratuen elkartean
17:00etan hasita. Izena eman behar da bertan.

KIROLA

ELGETA Pilota txapelketako finalurrekoak
Gabonetako txapelketa. Umeen 12 norgehiagoka, 17:30etan; beterranoen norgehiagokak, 19:00etan. Pilotalekuan.

BERTSOLARITZA

ARRASATE Bertso desafioa
Bertso Eskolako eta Gaztetzeko bertsolarien artean. Herriko kale eta tabernetan, 19:00etan.

GABONETAN
NON-ZERABENDUA 21
URTARRILA 5**DEBAGOIENA** Badator Olentzero!

Umeek maiteen duten ikazkina Debagoienara etorriko da, menditik, eta ume eta gurasoek ongietorria egiteko aukera izango dute Olen-

tzero opariak banatzen hasi aurretik. Hilaren 24an, Gabon bezperan etorriko da, ilunkeran. Adi egon, beraz, herri bakoitzeko ongietorri ospakizunei!

BESTELAKOAK

ARETXABALETA Murrukixoren mendi astea: 'Dolomitak'
Nerea Ulezia aretxabaletarrak eskainiko du saioa. Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan.

ELGETA Bisita Mizpirualdera
Taldea 15:30ean abiatuko da Mendizaleen plazatik.

ARRASATE Zezensuzkoa
Herriko Plazan, 21:30etan.

ARRASATE Portaloi taldearen kantu kalejira
Erdigunean, 19:00etan.

ARRASATE Erraldoi eta kilikien kalejira
Herriko Plazan, 18:30etan.

OÑATI Oñati Kirol Sariak 2012
Udaletxean, 19:00etan.

ZAPATUA

22

MUSIKA

BERGARA Gabonetako kontzertua pilotalekuan
Bergarako Udal Musika Banda-rekin, Aritzeta-rekin, Bergarako Orkestra Sinfonikoarekin eta Bergarako Orfeoia-rekin. Udal Pilotalekuan, 22:30etan.

OÑATI Gabonetako kontzertua
Agustindarren elizan, Oñati Abesbatzaren eskutik. 20:15ean hasiko da.

ARETXABALETA Akordeoi orkestraren Gabonetako kontzertua
Sarrera, debalde. Arkupeko Zaraia aretoan, 20:00etan.

Aldape Taberna
Jatetxea

(Batzokia)

ONDO PASAU
SANTAMASAK!

Eguneko menua, asteburuetako menu bereziak, despedidak, banketeak, eta abar.

Iturriotz 41. ARRASATE
Tel.: 943 79 63 69



OSPAKIZUNAK

ARRASATE Benta Zaharreko Mutiko Alaien euskal kantu kalejira
Erdigunean, 12:00etan hasita.

ARRASATE Aramaioko sagardoa eta taloak probatzeko aukera
Herriko Plazan, 11:00etan.

OÑATI Antixena gaztetxearen inaugurazioa

Hainbat ekintza 12:00etatik gaue-
ra arte; poteoa, pregoia, bazkaria
eta kontzertuak, besteak beste.

ARRASATE Txerri-dantza eta larrain-dantza

Herriko Plazan, txerri-dantza
herrikoa 13:45ean. Gero, 19:30ean,
txerri-dantza eta larrain-dantza
emanaldiak izango dira.

ARRASATE EAren Santamasetako ospakizuna

Txistorra banatuko dute Alkar-
tetxean, 12:00etan.

JAIK

BERGARA Napar Feria San Antonion
10:00etan hasita, azoka eta beste
hainbat ekintza.

BERTSOLARITZA

ARRASATE Santamasetako bertso jaialdia, AEDk antolatuta

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio,
Igor Elortza eta Amaia Agirre.
Gai-jartzailea: Josu Goikoetxea.
Amaia antzokian, 20:30ean.

KIROLA

ANTZUOLA Futbola:
Antzuola-Zestoa

Futbol partidua izango da: Antzu-
ola-Zestoa. 16:00etan, Ezitalan.

OÑATI Tobera

Debagoienak Oñati epaituko
du. Besteak beste, Oñatiren
inkomunikazioa interesatua
dela leporatu diete bailarako
beste herriek. Oñatiren defen-
tsak horrek oinarririk ez
duela demostratu beharko du.
Antzerki satiriko hori oña-
tiarrek antzeztua da eta Baga-
ra elkarteak antolatua. Hila-
ren 28an izango da *epaiketa*,
Zubikoan, 19:30an.



JOSETXO ARANTZABAL

ARETXABALETA Leixargaratera irteera

Murruxoren egoitzan, 09:00e-
tan.

ARRASATE Herri kirolak

Iñaki Perurena; aizkoran, Nafa-
rroa Gipuzkoaren kontra; ema-
kumezkoen trontza... Zaldibarren,
12:00etan.

BESTELAKOAK

ELGETA Jostailu truke azoka
Herriko Plazan.

ESKORIATZA Mahai jolas maratoia
Gaztelekuan, 18:00etan

DOMEKA

23

MUSIKA

ARRASATE Mississippi Mass Choir
Gospel emanaldia Amaia antzo-
kian, 20:00etan.

OÑATI Gabonetako kontzertua,
udaletxeko arkupeetan

Jose de Azpiazu musika eskola-
ko txistulari eta soinu-joleek eta
Aita Madina txistulari taldeak.
Foruen plazan, 19:00etan.

ARAMAIO Gabon kantaldia San Martin elizan

Otxandio, Arrasate (Portaloi tal-
dea), Legutio eta Aramaioko
ordezkariekin. 19:00etan.

ESKORIATZA Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua

Kiroldegian, 18:00etan.

ANTZERKIA

BERGARA 'The Wolves' kale antzerkia

Deabru Beltzak konpainiarena.
San Martin plazan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Zapata gorriak' umeendako ikuskizuna

Patata Tropikala taldearekin. Arku-
peko Zaraia aretoan, 17:00etan.

ARRASATE Martin Abaderi buruzko ipuin kontaketa

Hirune Iribecamos, Julene Etxa-
dona eta Vanessa Gonzalez. Kul-
turateko areto nagusian, 18:00e-
tan.

OSPAKIZUNAK

ELGETA Txokolate jana

Guraso elkartearen eskutik. Herri-
ko Plazan, 17:00etan.

ELGETA 'Elgeta kantuan', Gabonak

Kalez kale eta tabernaz taberna
kantuan egiteko gonbita. 13:00.

ZINEMA

ESKORIATZA Gaztelekua: zinema

Gabonetako emanaldi berezia.
18:00etan hasiko da.

UMEAK

ARETXABALETA Mahai-futbol txapelketa ludotekan

8 eta 12 urte artekoendako. 17:00.

KIROLA

OÑATI III. ziklo-kros txapelketa

San Martinen, 09:00etan. Aloña
Mendiko txirrindularitza taldeak
antolatuta.

ARRASATE Pilota jaialdia

Uarkapen, 18:00etan.

ESKORIATZA Aretu-futbola: Euskal Liga
Eskoriatza-Lagun Onak partidua.
Kiroldegian, 16:00etan.

ASTELEHENA

24

OSPAKIZUNAK

ARETXABALETA Gabon kantuak kaleetan

Herriko umeak eta gurasoak.
Herriko Plazan, 10:30ean.

ESKORIATZA Trikitixa Eskolakoekin kalejira

13:00etan hasiko da.

ESKORIATZA Gabon kantaldia

Plazan elkartuko dira umeak eta
kalejira egingo dute, 12:30ean.

LEINTZ GATZAGA Gabon kantuan

Gureleko ume eta gurasoak Herri-
ko Plazan batuko dira, 09:30ean.

ARRASATE Txoronpio, Txoronpia eta Martin Abade

11:40ean abiatuko dira Munarretik,
13:15ean Seber Altuben. Egu-
raldi txarra bada, Uarkapen.

ELGETA Gabon kantuak

Guraso elkarteak antolatutako
irteera, 10:00etan. Amaitutakoan
saldia eta txorizoa plazan.

BERGARA Olentzero eta Mari Domingi

11:30ean hiru ikatetxeetako
umeak ibiliko dira kantuan.
19:00etan kalerik kale ibiliko
dira gutunak jasotzen Olentzero
eta Mari Domingi.

BERGARA Alai Taldeak kaleak alaituko ditu

Kalejira egingo dute iluntzean.

4. orrialdean, jarraipena.



Oparitarako artikulua • Larruzko artikulua • Bitxiak • Kosmetika

Kanpantorpea 4, behea

Arrasate

Tel.: 943 79 12 19



3. orrialdetik dator.

BERGARA Preso eta iheslarien alde kantuan aterako dira
Espolitoik abiatuta, 10:00etan.

BESTELAKOAK

BERGARA Preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzea

Hator Hator elkarretaratzea San Martin plazan, 19:30ean.

BERGARA Mojito-gaua
Gaztetxean, 01:30ean.

OÑATI Herrira salmenta
Askotariko gauzak salduko dituzte Foruen plazan, 18:00etan.

EGUAZTENA

26

UMEAK

BERGARA Goazen Ume eta Gurasoak Elkarrekin Jolastera
Euskal kantu eta jolasak Zabalotegin, 17:30ean. Doan.

BERGARA Ludoteka, Munibe plazan
Karpan ipiniko dute, 11:00etan.

ESKORIATZA Puzgarriak igerilekuan
11:00-13:00: 11 eta 13 urte artekoak;
17:00-18:00: 0 eta 6 urte; 18:30-20:00:
7 eta 10 urte.

ARETXABALETA Poxpolin Park
Ibarra kiroldegian. 11:00-13:00 eta

17:00-20:00. Sarrera debalde kiroldegiko bazkideentzat; bestela, 5 euro.

ARAMAIO Umeendako tailerrak
Ludotekan, 12:00etan.

ELGETA Gabonetako tailerra ludotekan
Ludotekan. 17:00etan.

KIROLA

BERGARA Hiruko saskibaloiturnea
Udal Pilotalekuan, 10:00etan.
Antolatzailea: BKE saskibaloia.

ELGETA Pilota
Umeen Gabonetako pilota txapelketa. Pilotalekuan; 11:00.

OÑATI Eskola mailako Debarroko esku pilota txapelketa
Larrañan, 10:00etan.

ANTZERKIA

ARAMAIO 'Antzokiko istorioak' antzezlana kultur etxean
Jakin eta Jolas antzerki taldearen obra da. 17:00etan.

ESKORIATZA Joko zaharren maratokia
Gaztelekuan, 18:00etan.

GAZTETXOAK

ESKORIATZA Bilboko PINera irteera
Gaztelekukoendako da.

BERGARA Merienda handia
Gaztelekuan, 17:00etan.

ZINEMA

OÑATI 'The fish wish' filma umeendako, euskaraz
Kultura etxean, 17:00etan.

MUSIKA

ARRASATE Arkada social, Des-kontrol, Rat-Zinger eta Screemers & Sinners kontzertu solidarioa
Garun-paralisia duen Naiara Agredari laguntzeko. Gaztetxean, 10:00etan.

EGUENA

27

ANTZERKIA

BERGARA 'Lorategian', 1-3 urte arteko umeendako antzezlana
Teatro Paraisorekin. Zabalotegi aretoan, 18:00etan. 4 euro.

ARAMAIO Magia ikuskizuna
Kultura etxean, 17:00etan.

UMEAK

ELGETA Gabonetako tailerra
Ludotekan, 17:00etan.

ESKORIATZA Gabonetako parkea: kiroldegiko kantxako parkea
11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ARETXABALETA Uretako puzgarriak
Ibarra kiroldegian, 11:00etan.

OÑATI 'Arrikutz, aintzinako animalien artean'
3-8 urte bitarteko umei zuzenduta. Informazioa: 943 08 20 00.

ARAMAIO Umeendako tailerrak
Ludotekan, 12:00etan.

BERGARA Ur jolasak
Agorrosinen, 11:00etan.

OSPAKIZUNAK

BERGARA Sukaldaritza tailerra eta afaria, gaztetxean
21:00etan hasiko da afaria.

GAZTETXOAK

ESKORIATZA Izotz pista irteera
Gaztelekukoak Gasteizera.

MUSIKA

ARETXABALETA Abesbatzaren Gabonetako kontzertua
Parrokian, 19:00etan. Debalde.

OÑATI Musika Eskolako emanaldia eguneko zentroan
11:00etan hasiko da kontzertua.

OÑATI Gospela, Ganbara Txiki eta Gazte abesbatzen eskutik
Musika erlijiosoa begiratzeko beste modu bat zikloko laugarren kontzertua. Zuzendaria: Aitor

Biaín Bidarte. Santa Anan, 19:00etan.

KIROLA

OÑATI Eskola mailako Gabonetako Debarroko esku pilota txapelketa
Larrañan, 10:00etan.

ZINEMA

ARETXABALETA 'El hombre de al lado' filma
Arkupeko Zaria aretoan, 19:30ean.
Sarrera, 4 euro.

BESTELAKOAK

ARETXABALETA Gaztaina saltzailea
Mitarte kalean, 18:00etan.

ANTZUOLA Antzuolarrak munduan zehar: Australia
Xabier Legorburu eta Ainhoa Lazkano. Orlanen, 18:30ean.

EGUBAKOITZA

28

MUSIKA

ARRASATE Maika Makovski
Gaztemaniak! gazte programak antolatutako kontzertua egingo du Maika Makovski komposatzaile eta musikariak. Amaia antzokian, 20:00etan.

ALDEDI

Ondo pasau Santamasak!

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

ESKORIATZA Hesian taldearen kontzertu akustikoa

Inkernu tabernan, 23:00etan.

ELGETA Musika ikasleen emanaldia

Lorea Larrañagaren ikasleen eskutik. Elgetako koruak ere abestuko du. Espaloia antzokian, 19:00etan.

ANTZERKIA**BERGARA 'Batuta' txotxongilo emanaldia**

Taun-Taun taldearekin. Zabalo-tegin, 18:00etan. 5 urtetik gorako haurrendako. Sarrera, 4 euro.

ANTZUOLA Maite Franko ipuin kontalaria Torresoroan

17:30ean: 3-4 urtekoendako; 18:00etan: 5-8 urtekoendako.

KIROLA**OÑATI Gabonetako areto futbol txapelketa, Herrirak antolatuta** Zubikoan, 09:30ean.**OÑATI Eskola mailako Debarroko esku pilota txapelketa** Larrañan, 10:00etan.**ERAKUSKETAK****BERGARA Zeramika eta margo erakusketa Aroztegin**

Buztinzale eta Beart elkarteak. Martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta

BERGARA 'Peter Pan' musikala eta pintxo bereziakUdal Pilotalekuan izango dira emanaldiak; abenduaren 29an, 19:00etan eta 22:30ean, eta 30ean, 19:00etan. Butakako sarrerak 15 euro kostatuko dira eta harmailetakook, 12 euro. Hilaren 27an, eguna, pintxo-poteoan, *Peter Pan*-en inguruko pintxo berezi bat egongo da taberna guztietan, hilaren 30era arte.

MAIDER ARREGI

18:00-20:30; eta domeka eta jaiegunetan: 12:00-14:00.

UMEAK**ARAMAIO Umeendako tailerrak** Ludotekan, 12:00etan.**ESKORIATZA Gabonetako parkea kiroldegiko kantxan**

11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Prezioa: 4 egunerako txartela, 12 euro; egun bat: 5 euro.

BERGARA Ludoteka Munibe plazan Karpan jarriko dute. 11:00etan.**BESTELAKOAK****ELGETA Biodantza familian** Ana Sousaren eskutik, saio irekia. Herri eskolan, 17:00etan.**OÑATI 'Supernovas: la llave del lado oscuro del Universo'**

Lluís Galbanyren hitzaldia, Iltargi Astronomia Taldeak antolatuta. Kultura etxean, 19:00etan.

BERGARA Makillaje tailerra Gaztelekuan, 17:00etan.**BERGARA Trikitizaleen Gaztaina-erre Eguna gaztetxean** 18:00etan.

ZAPATUA

29**ZINEMA****ARRASATE 'Campanilla y el secreto de las hadas' filma**

Amaia antzokian, 17:00etan. Umeendako egokia da.

ARRASATE 'La vida de Pi' filma Amaia antzokian, 22:00etan.**UMEAK****ESKORIATZA Puzgarriak igerilekuan** 11:00-13:00: 11 eta 13 urte bitartekoak; 17:00-18:00: 0 eta 6 urte bitartekoak; 18:30-20:00: 7 eta 10 urte bitartekoak.**KIROLA****BERGARA Saskibaloiko infantil mailako torneo** Labegaraietan, 09:00etan.**OÑATI Espeletxiki, pasarelaz kanpoko abentura Arrikutzen**

8-12 urte arteko umeendako. Informazioa: 943 08 20 00.

ELGETA Defentsa pertsonala.

Tai txi txuan eta makilarekin defentsa pertsonal ikastaro irekia. Kiroldegian, 10:30ean.

BERGARA Luis Herzogen omenezko Gabonetako Futbol Txapelketa BKE-Reala (Ipintza, 16:30).**ESKORIATZA 1/18 Rally Game**

Gabonetako iraupen lasterketa. Kiroldegian, 16:00etan.

OÑATI Debarroko pilota txapelketa, eskola mailakoa

Larrañan, 10:00etan.

ANTZERKIA**ARETXABAETA 'Bua txabal'**

Unai Iturriagak idatzitako antzez-lana Arkupen, 22:00etan. 4 euro.

ELGETA Ipuin kontalaria

Gaztetxoendako ipuin kontalari saioa Amaia Arriaranen eskutik. Gaztelekuan, 18:00etan.

BESTELAKOAK**ESKORIATZA Euskal Selektzioaren Jaia antolatu dute**

Gaztelekuan.

OÑATI Urteko azken egubakoitzeko elkarretaratzea

Foruen plazan, 19:00etan. 6. orrialdean, jarraipena.

TRATAMENDU ESTETIKOAK**%20ko
deskontua**aurpegi eta gorputz
programetan**%20ko
deskontua**

mikropigmentazioan

... aurten ere, inoiz baino gehiago Gabonetan
EDERTASUNA OPARITU!**%10eko
deskontua**tratamenduetarako
produktuetan**AG****Amagara**Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09**Gabon zoriontsuak,
guztioi!**

5. orrialdetik dator.

BERGARA Sukaldaritza tailerra
Gaztelekuan, 17:00etan.

DOMEKA

30

KIROLA

BERGARA Saskibaloiko infantil mailako tornea
Labegaraietan, 11:00etan

OÑATI Koadrilen arteko saskibalo txapelketa
Zubikoan, 09:30ean.

BERGARA Luis Herzogen omenezko Gabonetako Futbol Txapelketa
Eibar-UDA (Ipintza, 17:00).

ANTZERKIA

ARETXABAETA 'Izar eta Zenaida' umeendako antzezlan
3 euro. Arkupen, 17:00etan.

ZINEMA

ARRASATE 'Campanilla y el secreto de las hadas' filma
Amaia antzokian, 17:00etan.

ARRASATE 'La vida de Pi' filma
Amaia antzokian, 19:30ean.

ARAMAIO 'Baztan' filma

Agoteak dira filmeko gaia. Kultura etxean, 19:00etan.

DANTZA

ELGETA 'Herrixa dantzan' Espaloian

Patxi Monteroren eskutik. 18:00etan haur eta gurasoendako, eta 19:00etan helduendako. Doan.

GAZTETXOAK

ESKORIATZA Gaztelekua: 'Gaba elegantia'

Gazte guztiei egiten diete dei.

BERGARA Lip duba egingo dute
Gaztelekuan, 17:00etan.

MUSIKA

BERGARA Xabier Montoia
Gaztetxean, 19:00etan.

ASTELEHENA

31

KIROLA

OÑATI 2012 ixa 2013 San Silvestre herri lasterketa

Herri lasterketa, Antxintxiketan taldeak antolatuta. 16:00etan gaztetxoan lasterketa eta 16:30ean, helduena.

ELGETA Gabonetako pilota txapelketako finalak

Umeen finalak, 10:00etan; bete-ranoenak, 11:30ean.

ESKORIATZA V. Silbestradie eta II. Manuel Muñoz milia

Herri lasterketa egingo dute ume eta helduendako. 11:00: umeen izen-ematea; 12:00: haurren lasterketa (14 urtetik beherakoak); 12:30: txistorra-jana; 17:00: helduen lasterketarako izen-ematea; 17:30: helduen lasterketa, Herriko Plazan. Manuel Muñoz milia: lasterketako azkena izango da. 18:00: luncha.

BERGARA Luis Herzogen omenezko Gabonetako Futbol Txapelketa
Finala (Agorrosin, 16:00).

BERGARA Presoen aldeko brindisa
Herriko Plazan, 01:00etan.

ARAMAIO Gabonetako Pilota Kopa pilotalekuan: finala

Pilota Eskolak antolatu du eta Bergara, Antzuola, Arrasate, Eskoriatza, Oñati, Aretxabaeta eta Aramaio pilotariak hartu dute parte. Finalak, 10:00etan.

OÑATI Koadrilen arteko Gabonetako saskibalo txapelketa
Zubikoan, 09:30ean.

MUSIKA

ARRASATE Arrasate Musikaleko Bandaren Gabon zahar kontzertua
Amaia antzokian, 13:00etan.

OÑATI Musika bandaren kalejira

Foruen plazan hasita, 19:00etan.

UMEAK

ARAMAIO Bilboko PINera irteera
Kiroldegian, 10:00etan.

ARETXABAETA Bizar Zuriren bisita
Ibarra kiroldegitik irten (18:30) eta Herriko Plazara joango da.

BESTELAKOAK

BERGARA Preso eta iheslarien aldeko giza-katea

Fraiskozurin hasi eta San Martin plazaraino. 19:00etan.

OÑATI Manifestazioa, Herrirak deituta

Foruen plazan, 19:00etan.

BERGARA Karaoke gaua

Gaztetxean, 02:00etan.

MARTITZENA

1

OSPAKIZUNAK

ANTZUOLA Urte berriari ongietorria
Arrola mendian, gauerdian.

ESKORIATZA Presoen aldeko brindisa

Herriko Plazan, 01:00etan.

ARAMAIO Orixol mendira irteera

Kiroldegian, 09:00etan. Urte berriari ongietorria egingo diote.

EGUAZTENA

2

UMEAK

ARAMAIO Ipuin kontalarien bi saio
Patata Tropikala taldearen eskutik. Kultura etxean, 17:00etan.

BERGARA Ur jolasak eta tailerrak Agorrosinen

11:00-13:00 eta 16:00-18:00, ur jolasak. 11:00-13:00 eta 17:00-20:00, tailerrak ludotekan. Ikus-entzuzko aretoan, 17:00etan, familiartereko dantza; 18:00etan, haurrentzako dantza; eta 19:15ean, dantza ikuskizuna.

BERGARA PINera irteera gaztelekutik

10:00etan irtengo da autobusa.

OÑATI Gabonetako ur jolasak

Zubikoa kiroldegian izango da. Orduetgia: 10:00etatik 12:30era eta 16:30etik 20:30era.

ZINEMA

OÑATI 'The fish wish' umeendako filma, euskaraz
Kultura etxean izango da emaldia, 17:00etan.



zenbaki aholkulariak-abokatuak

Zure enpresa elkarrekin eramango dugu aurrera

**LAN ZERBITZUAK
ZERBITZU FISKALAK
KONTABILITATE ZERBITZUAK
ABOKATUAK**

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

CERT ISO 9001

Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa • 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.es

EGUENA

3

UMEAK

ANTZUOLA Jolas parkea

Eskolako patioan. 11:00-13:30 eta 16:30-19:00.

ELGETA Gabonetako haur parkea

Frontoian, 17:00etan. Udalak antolatuta.

ARAMAIO Umeendako dantzaldia

Kiroldegian, 17:00etan.

BERGARA Jolasparkea Udal Pilotalekuan

11:00etatik 20:00etara.

ARRASATE Txikilandia 2013

Txatxilipurdik antolatuta. Uurkapen, 11:00etan.

ESKORIATZA Bilboko PINera irteera

Tortolis ludotekan eta Gazteria Zerbitzuan eman dezakete izena 8-12 urte arteko umeek.

ARETXABALETA PINera irteera

Izena emateko azken eguna, abenduak 21.

OÑATI Haur parkea, egubakoitzean

11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara, Zubikoan.

OÑATI Ur jolasak

Zubikoan izango da, 10:30etik 12:30era.

ANTZUOLA 'Euskarazetamol' antzezlan barregarria

Ez Dok Hiru Bikoteatroko aktoreak, Mikel Martinez eta Patxo Telleria, euskaraz ikasteko pilulak hartzen dabilta. Euren gorabeheren kontura nahiko barre egiteko aukera izango duzue *Euskarazetamol* antzezlan umoretsu eta ironikoan, abenduaren 29an, zapatuan, Torresoroan, 22:00etan.



JOSETXO ARANTZABAL

HITZALDIAK

ARAMAIO Arabako EAJren historia

Roman Berriozabal Arabako Uri Buru Batzarreko idazkariak egin duen ikerlana aurkeztuko du. Kultura etxean izango da ekitaldia, 12:00etan.

BERTSOLARITZA

ARAMAIO Gabonetako bertso emanaldia

Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Aitor Sarriegi, Miren Amuritz eta Xabi Igoa. Kultura etxean izango da, 19:30ean.

ANTZERKIA

BERGARA Antzerkia gaztetxean

Ispilu aurrean delako antzezlan egingo dute, 22:00etan.

EGUBAKOITZA

4

UMEAK

ELGETA Gabonetako haur parkea

Frontoian, 17:00etan. Udalak antolatuta.

ARAMAIO Gabonetako haur parkea

Kiroldegian, 10:00etan.

ZAPATUA

5

OSPAKIZUNAK

BERGARA Bizar Zurik umeen gutunak jasoko ditu

Errege Magoendako gutunak jasotzera etorriko da Bizar Zuri. Udaletxean izango da, 17:00etan.

BERGARA Errege kabalgata

Udal Biltegi parean. 19:00etan hasiko da.

ESKORIATZA Errege kabalgata

Pilotalekutik abiatuko dira Errege Magoak, 18:30ean.

ARETXABALETA Errege kabalgata

Ibarra kiroldegitik irten (18:30) eta Herriko Plazara joango dira.

OÑATI Errege kabalgata

Plazatik abiatuko da, parrokia ondotik, 17:30ean.

BERGARA Gazteen arteko afaria

Izen-ematea kultura etxean da urtarilaren 2a baino lehen. Nork bere afaria eraman behar du. Afalostean, Amaia Txintxurrearekin DJ jaialdia. Afarria 19:00etan hasiko da.

BERTSOLARITZA

OÑATI Gabonetako bertso jaialdia

Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Julio Soto, Unai Iturriaga eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Oñatiko Bertso Eskola. Zubikoan, 22:30ean.

BESTELAKOAK

OÑATI Jinkana: 'Oñati ezagutzen'

7 eta 12 urte bitarteko umeendako, Turismo Bulegoak eta Txandak antolatuta. 11:00etan hasiko da. Sariak arratsaldean banatuko dituzte.



ARKAUZ
MUEBLAS

ARETXABALETA

ETXE MOBEL
ALTZARIAK

ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL

ARETXABALETA

FAGOR
banatzaile ofiziala

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS

ARETXABALETA

expert
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2012 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Zorionak
eta
Urte berri on!

Zazpi ahizparen gai den oihala ebakirikan erditik, alde batera hiru soineko, utzirik lau bestetik; guraizikin berezi arren bakoitza bere aldetik, ezagutzen da jantzi dirala zazpiak oihal batetik.

Oihaltzat hartu zagun Euskadi guraizitat Bidasoa, hibai koxkor bat besterik ez da hutsa... balitz itsasoa. Elkarren hurbil daude zazpiak, muga daitzen da Pausoa. Zergatik izan ez behar degu famili bakar osoa?

Arbola baten zainetatikan sortzen diran landareak bezala gara Bidasoaren bi aldetako jendeak; berdinak dira gure jatorri, ohitura eta legeak, ama euskarak magal berean hazitako senideak.

EUSKAL PRESOKAK



EUSKAL HERRIRA



Santamasak 2012
Arrasate

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Ekaitz • Iluntz • Irati • Iturriotz
Mondra • Muxibar • Osorik • Taupa.**



Jostailuen truke azoka. | ARANTZA OSORO

Sormena garatzen duten jostailuak

Umearen gustukoa izan behar du jostailuak, eta ez gurasoen gustukoa, umea baita jolas egingo duena

AMAIA GARATE | ARRASATE

Laster iritsiko da Olentzero Debagoienera, eta txikienei, jostailuak aukeratzeko ordua iritsi zaie. Batek baino gehiagok jada aukeratuak izango dituen arren, beste asko oraindik gutuna idazten ari dira.

Guraso guztiek dituzte buruhausteak garai hauetan; jostailu jakin batzuk seme-alabentzat egokiak diren edo ez jakitea ez da lan makala. Haurren etorkizunari begira beharrezkoa izaten da aukeraketa ona egitea, jolas egiteko izateaz gain ikasteko ere balioko diete-eta.

Arantza Osoro Txantxilipurdiko haurren saileko dinamizatzaileak dio fantasia eta sormena bultzatzen duten jostailuak badira askoz hobekak direla. Azkenean, umeentzako oinarrikoenetako gauza bat da jolas egitea, eta komenigarria da ondo aukeratzeko jostailuak erosteko orduan.

Jarraian, opariak erosteko orduan kontuan hartu beharreko aholku pare bat.

Interesa pizteko jostailuak

Haur bakoitza desberdina da, nor bere berezitasunak ditu. Adin berekoak izan arren hezkuntza maila desberdina izan dezakete. Hori dela eta, haur bakoitzaren intereseko jostailuak opari egin beharko lirakete.

Adinari begiratzea garrantzitsua den arren, gurasoak jakin behar du zein den hauraren hiz-

kuntza maila. Ahulguneak indaritzen saiatu behar den arren, neurria hartu behar zaio, umea frustratua senti ez dadin jostailuarekin ezin duenean gozatu. Azkenean, umeari interesa piztuko dion jostailua izan behar du, eta ez gurasoen interesekoa, haurra baita jolas egingo duena.

Taldeko jostailuekin adi

Taldeko jostailuak opari egitea komenigarria da haurarentzat,

baina kontuan izan behar da umeak ez badu norekin jolas egin, akats larria izango litzatekeela mota horretako jostailuak erostea. Jakinaren gainean egon behar dugu haurrak norekin jolas egin baduen edo ez.

Taldeko jolasen garrantziaz gain, banakako jostailuak ere aberasgarriak dira etxeko txikieneen sormena lantzeko. Bestalde, bai hauekin eta bai taldekoekin gaitasunak lantzen dituzte.

ARANTZA OSORO | TXATXILIPURDIKO DINAMIZATZAILEA

"Urtetik urtera gero eta arrakasta handiagoa du jostailuen truke azokak"

Aurten ere abian da Txatxilipurdi elkar-tearen eskutik egingo den jostailuen truke azoka.

Zertan datza truke azoka hori?

Izenak berak esaten duen moduan, jostailu zaharren edo jada erabiltzen ez diren trukea egitean datza. Bakoitzari, ematen duen jostailu bakoitzeko txartel bat ematen zaio, eta ondoren, truke egunean txartel hori beste jostailu batengatik aldatzen da.



ARANTZA OSORO

Nolako harrera izan du?

Urtetik urtera gero eta arrakasta handiagoa lortu du jostailuen truke azokak, eta hori oso pozgarria da. Aurreko urtean jende asko hurbildu zen bertara, eta aurten, berriz, jostailuak jasotzen hasi aurretik, jendearen deiak jasotzen hasi gara honen berri jakin nahian.

Jendeak interesa duela erakusten du; hortaz, sentsazio onak ditugu aurten.

"Urte berri on" esateko badago modu berezi bat

Etxekoen argazkiekin egindako Gabonetako postalek eta egutegiek xarma berezia daukate

M.A. | ARRASATE

Zorionak eta urte berri on. Hori- xe esateko bidaltzen ditugu postalak Gabonetan. Sasoi batean mordo, eta orain gutxiago; sasoi batean, postaria noiz pasatuko zain egoten ginen, eta orain, e-postaz jasotakoak dira gehienak.

Gobernuz kanpoko erakunde eta elkarte askok eskaintzen dituzte postalak. Batzuek musika dute, beste batzuek irudi politak eta mezu dotoreak. Baina badaude beste batzuk guztien artean bereziak, norberak etxekoen argazkiekin egindakoak.

Kapritxodunek egin izan dituzte horiek, eta gehienak seme-alabak izan ondoren hasten dira halakoak egin eta bidaltzen.

Batzuek familia osoaren argazkia erabiltzen dute, baina gehienek umeen argazkiak. Baserritar jantzita edo udazkeneko giroan ateratakoak izan ohi dira asko. Eta, zalantza barik, beste edozein postal baino gusturago jasotzen dituzte senideek eta lagunek.

Egutegiak ere bai

Postalak beharrezko egutegiak egiten dituzte beste batzuek; haiek ere etxekoen argazkiekin. Aretxabaletako Iker Altunak, esaterako, hiru ezberdin egiten ditu: emaztearen familiarendako, bata; bere familiarendako, bestea; eta etxerako, hirugarrena. Senideen eta lagunen urtebetetze egunak zehazten ditu, gainera.

EGUTEGIA Iker Altuna aretxabaletarrak hiru egutegi ezberdin egiten ditu urtero etxekoen argazkiekin, eta Gabon zahar egunean banatu: "Zain egoten dira, baina kanpaik jo baino lehen ez diet banatzen".



SEMEA Jon semea jaioren hasi zen postalak bidaltzen Elgetan bizi den Ziortza Martin. Gabonak hurreratzean senideei eta lagunei bidaltzen dizkie, gehienak posta elektronikoa erabilita.

FAMILIA Felis Beltran de Herediak familia osoaren argazkiarekin egiten du postalak azken 13 urteotan: "Hala, umeak zelan doazen hazten ikusten dute kanpoan bizi diren senideek eta lagunek".



Zure bataio, jaunartze edota ezkontza ospakizunendako aproposa



leku eta egun ahaztezinak



Etxe-Aundi

Hotela - Jantokoa

Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90

etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com



Etxe-Aundiren zilarrezko ezteiak ospatzen ditugula-eta, ezkontza-bazkaria gurean egiten duten bikote guztiek Tenerifera astebeterako eta mantenu osoan joateko egingo dugun zozketan parte hartuko dute, orain arte ezkonberriei ematen dizkiegun opariez gain.

Menurako ideiak hartu eta on egin, guztioi!

Mahaia dotore jantzi eta menu goxoak dastatu nahi? Hemen dituzue hainbat proposamen

MAIALEN GONZALEZ | ARRASATE
Sukaldean ibiltzeko zaletasuna duzuenok edota ideia handirik ez baina zerbait berezia prestatu nahian zabiltzatenok, adi! Eloi Iartzak eta Iker Basurkok –Oñatiko Etxe-Aundi jatetxeko sukaldariak– eta Koldo Lasak –Bergarako Lasa jatetxeko jabea– hainbat proposamen egiten dizkizue Gabonetan etxeko mahaia jaki goxoz betetzeko.

Baita menu merkeagoak ere
Gabonak heltzean daude eta zerbait bereziagoa prestatu nahi bai baina diru asko gastatzeko gogorik ez baduzu, lasai. Izan ere, jaki goxoak dastatzeko dirua barra-barra xahutzeko beharrik

ez dago. Horrela, Etxe-Aundi eta Lasa jatetxeetako sukaldariak menu bina proposatzen dizkizute. Bata (lehenen), ekonomikoagoa dena; bestea (bigarrena), apur bat garestiagoa dena.

Sukaldariak azpimarratu dutenez, "etxe bakoitzeko egoera ekonomikoak ez dezala Gabonetako mahai-ingurua baldintzatu, gutxiago gastatuta ere menu politak eta goxoak presta daitezke-eta. Hori bai, merkeago izateak ez du sukaldeko lana murrizten".

Beraz, sukaldean iaioak zaretenok edota trebatzen hasi nahi duzuenok hemen dituzue zenbait ideia, Gabonetan familiari sorpresa bat emateko aproposak.

1. menua

LEHENENGO PLATERA

Penkak urdaiazpikoz beteta, bi saltsarekin

- ▶ Denbora: 30 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★
- ▶ Prestaketa: zortzi penkaren gainean beste horrenbeste urdaiazpiko-xerra jarriko ditugu. Eta horien gainean, koilarakada bana bexamel. Berrito beste penka batekin estaliko dugu eta irinetan eta arrautzetan pasatuaz frijitu. Bestalde, saltsak prestatu beharko ditugu. Esne-gain erdia ziazerbekin egosi 10 minutuz; beste erdia piperrekin egosi. Ondoren, turmixetik pasatu. Plater bakoitzean bi saltsak jarriko ditugu, eta hauen gainean, penka arrautzetzatuak.

BIGARREN PLATERA

Bakailaoa piperradan

- ▶ Denbora: 3 ordu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★
- ▶ Prestaketa: kipula eta piper berdea oso fin ebakiko ditugu eta su txikitan potxatzen jarri ordubetez. Piper gorria xerratuta gehitu eta gatza bota. Ondoren, dena ondo egosi. Bestalde, bakailaoa zartagin batean egin, lehenengo su bizian eta ondoren, su txikitan. Prest dagoenean, ontzi batera atera eta piperradarekin estali.

POSTREA

Goxua

- ▶ Denbora: 60 minutu.
- ▶ Zailtasuna: ★★★★★
- ▶ Prestaketa: 4 ontzi borobiletan bizkotxoa jarriko dugu azpialdean, eta kafe-likore apur bateaz bustiko dugu. Ondoren, ontzi horietan esne-gaina ondo banatuko dugu eta honen gainean, krema jarri. Gainetik azukrea botako dugu, dezente. Azkenik, ongi erre.

Eloi Iartza, Iker Basurko | Etxe-Aundi jatetxea "Polita da etxekoekin afaria prestatzen egotea"




Eloi Iartza eta Iker Basurko, Etxe-Aundi jatetxeko sukaldariak. | M.G.



HOTEL JATETXEA SANTA ANA ★★★

Uribarri 37 (Udala bidean)
Tel: 943 79 49 39
Arrasate
www.santaanamondragon.com



Menu berezia Karta

11 dastatze-menu

Kinto bazkariak dantzarekin

Bazkari familiarrak

Terrazan eta jangelan ogitartekoak, arrazioak, entsaladak eta plater konbinatuak

Aurrez prestatutako jakiak prestatzen dira etxera eramateko

Arrazioak eta entsaladak hutsean ontziratuta prestatzen ditugu bidaia eta ibilaldietarako.



2. menua

LEHENENGO PLATERA

Bieira perretxikoz eta langostinoz beteta

- Denbora: 60 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: Lehenik eta behin, lau bieirak ireki eta ondo garbituko ditugu. Zartagin batean bieirak, langostinoak eta perretxikoak salteatuko ditugu. Ondoren, marisko-krema gehitu eta minutu batez egosiko dugu. Nahasketa honekin, lau bieira-oskolak beteko ditugu, eta bexamelaz estali ondoren, gainerre.

BIGARREN PLATERA

Legatz ondoz beteta, berikat berri saltsarekin

- Denbora: 20 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: gurin zatitxo bat urtuko dugu. Ondoren, ziazerba eta ondoak gehituko dizkiogu. Ondo txikituta egon daitezela. Nahastu eta esne beroa botako dugu, eta hau ongi mugitu. Gatza eman eta epeltzen utziko dugu. Ondoren, lau legatz zatiak masa honekin bete eta albardatu egingo ditugu. Azkenik, berikat berriak txikitu eta erregosten direnean, esne-gaina gehitu eta gatza eman. Mahaira ateratzeko garaian, legatz-bete albardatuaren gainetik bota.

POSTREA

Pantxineta

- Denbora: 30 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: hostorea bi zatitan ebaki eta apur bat zabalduko dugu. Zati baten gainean krema zabaldu eta beste hostore zatiaz estaliko dugu. Sardexka baten laguntzaz alboak ondo itsatsi. Gainetik arrautzaz margotu eta labera sartu 180 gradura, 30 minutuz, gutxi gorabehera.

Koldo Lasa | Lasa jatetxea

"Mahaia dotore jantzi eta jai zoriontsuak, guztioi!"

Koldo Lasa, Lasa jatetxeko sukaldaria. | M.G.

1. menua

LEHENENGO PLATERA

Pisto-nahaskia

- Denbora: 30 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: lehenik eta behin, barazkiak garbitu eta ebaki. Olio berotu, berakatza gorritu eta txigortuta dagoenean, gainontzeko barazkiak gehitu, kalabazina eta tomate-saltsa izan ezik. Kalabazina 10 minutura gehituko dugu eta tomate saltsa, barazkiak bigun dagoenean, 30 minutura, gutxi gorabehera. Ondoren, gatza eta azukrea bota, eta zelulan hozten utzi. Bestalde, arrautzak irabiatu eta mamitzen hasi. Ia mamituta dagoenean, pistoa gehituko dugu. Ondo nahastu, eta platererako prest.

BIGARREN PLATERA

Eper gisatua ehiztari erara

- Denbora: 45-90 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: oliotan eperra gorritu eta barazkiekin bete. Eginda dagoenean, ardo zuria eta espainiar saltsa gehitu. Estali eta poliki egin. Ondoren, saltsa puregailu batekin pasatu. Azkenik, tomate eta perretxiko txikitua bota.

POSTREA

Laranja-budina

- Denbora: 40 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: zartagin bat sutan jarri eta 50 g azukre bota. Karamelatua dagoenean, oinarrian bota. Karamelu hori hozten den bitartean, esnea sutan jarri eta ogia eta laranja-azalak moztzen hasi. Hauek karameluaren gainean jarriko ditugu. Azukrea arrautza irabiatuekin nahastu eta esne beroa gehitu. Oinarria bete eta Maria bainuan 90 gradura egosi.

2. menua

LEHENENGO PLATERA

Ahate-zopa

- Denbora: 60 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: ahatea oliotan gorritzen jarriko dugu. Barazkiak ondo garbitu eta juliana erara ebaki. Ahatea eta barazkiak ardo zuriarekin, tomate-saltsarekin eta urarekin nahastu, guztiz estali arte. Egosi eta ahatea atera. Hotza dagoenean, xehatu eta gorde. Zopari koipea kendu eta zerbitzatzeko prest legoke. Ondoren, 10 minutuz pasteurizatu 92 gradura. Gauza bera egin ahatearekin. Ahate-gibel eta erremolatxa zatiak plateraren behealdean jarri. Zopa pitxarretik gehituko diogu.

BIGARREN PLATERA


Zapoa armorikana erara

- Denbora: 20 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: lehenik eta behin, zapoa gazitu eta ondu behar da. Ondoren, solomoak irinetik pasatu eta ardo zuria eta brandya gehitu. Gero, tomate-saltsa eta abakando krema. Gero, txirlak gehituko ditugu eta ireki arte irakiten jarri. Prozesua amaitzean, atera eta zapoa egiten amaitu. Eginda dagoenean, txirlak berriro ere sartu eta plateran jarri.

POSTREA

Kafe-biskuita

- Denbora: 45 minutu.
- Zailtasuna: ★★★★★
- Prestaketa: 12 gramo azukre, 21 gramo esne-gain, 10 zuringo eta 10 poltsa-Nescafe nahastu. Beste 500 gramo azukre gehitu, epeldu eta muntatu. Guztia nahasita dagoenean, gelditzen diren 10 gorrigoak gehitu eta hiru kopa Karpy likore gehitu.

**LIZARRALDE****KIROLAK****BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETAK**ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86**Urtaza**Lentzeria • Mertzzeria • Kortsetegia
Gabon zoriontsuak!

Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89



JEAN BURGET JAKA. Salneurria: 98,60 € -%30eko deskontua = **69 €**.
0 eta 14 urte arterako aukera ezin hobeak. %30eko deskontua.

KILIMA HAUR JANTZI DENDA.
Ilargi plaza 6. ARETXABALETA.



Opariak



SALOMON GORE-TEX BOTAK.
Gabonetarako eskaintza bereziak.

LORAMENDI KIROLAK.
San Andres / Garibai. ARRASATE



TWIN LENTZERIA FINENA.
%10eko deskontua hainbat produktutan.

TITARE LENTZERIA-MERTZERIA.
Errekabarren 3. ARETXABALETA.




SIKOL. Oparitu barruko arropa familia guztiari: pijama, batak, barruko kamisetak, aterkiak, bainu-batak...
OLARTE KALEA 7 (kokapen berria) ARRASATE.
Tel.: 943 79 89 32

KAPIKUA Opariak eta osagarriak. Opariak, osagarriak, oinetakoak, txanoak, ilarako osagarriak, bitxiak, erlojuak... Neska eta mutilentzat. BEZ-aren igoera gure kontu! Orduategia: egunero: 09:30-13:00 / 16:30-20:00
Ostiraletan: ordutegi jarraia: 09:30-20:00
Larunbatetan: 10:00-13:00 / 17:00-20:00
Bañez doktorea, 4 ARRASATE. TEL.: 943 79 19 94



PASSIONATA KONJUNTOA. Lenteria marka onenekin egiten dugu lan: Prima Donna, Láventure, Marie Jo, Selmark, Simone Perele, Freya... Opari intimoenak gurean aurkituko dituzu. Gizonezko zein emakumeentzako aukera zabala barruko arropa, pijama...

KUTTUN LENTZERIA. Bidebarrieta kalea 19. OÑATI. TEL.: 943 78 34 44
Argazkiko modeloaren salneurria: goiko partea: 40,90 euro. Behekoa: 25,90 euro.



geurean

CHANTELLE PARIS KONJUNTOA. 108,80 €
Intimitatean ere, dotore eta eroso. Bea Lentzeria, zure aukerakoa.

BEA LENTZERIA.
Iturriotz 4 . ARRASATE.



UMEENTZAKO JOSTAILUAK.

Arropa, zapata eta jostailu hezigarrietan aukera zabalena!

TIPI-TAPA UMEEN DENDA.
Otalora lizentziaduna, 25.
ARRASATE.




Mujika jantzi denda. Gabon jai hauetan eta 2013an eraman ezazu zure estiloa aldean. Mujika jantzi dendak jai zoriontsuak opa dizkizue!
Barrenkale 1 - BERGARA - Tel.: 943 762991

XINKONA UMEEN JANTZIDENDA.

ESKAINITZA BEREZIAK BILDUMA ALDAKETAGATIK! Jantzi zure haurra kolore bizi eta alaiez! Hanketatik bururainoko prakak, soineko, txapel, body... ezberdinak! (0-6 urteko haurrentzat). ZATOZ IKUSTERA!
Buztinzuri 11. ANTZUOLA



JOLAS. Bergarako Jolas-en kalitatezko jolas didaktikoak aurkituko dituzu, ez bakarrik umeentzat, izan ere, 0 eta 100 urte arteko pertsonentzat ditugu jolasak. Beraz, jolas egin nahi? Ondo pasa Gabon jai hauetan.
JOLAS - Barrenkale 27 - BERGARA - Tel.: 943 76 46 48



XUXU.

- Neurriak 36-54
- Neska eta mutilendako
- Levis eta beste zenbat marka.
Gabonetan eskaintza bereziak!
Xuxu. San Pedro kalea 14, behe. Bergara. Tel.: 943 76 07 55

Gabonetan, turroiarekin batera etxera

- ▶ Familiarekin eta lagunekin pasatzeko egunak dira
- ▶ Bost debagoiendarrekin egin dugu berba
- ▶ Ikasketak bukatzera eta lanera joan ziren kanpora

M. GONZALEZ/M. BIKUÑA | ARRASATE
Duela urte batzuk, bazegoen iragarki bat telebistan Gabonen aurrerapena egiten zuena. Turroi marka baten iragarkia zen, eta Gabonetan etxera itzultzen zen mutil baten eta Gabonetan etxetan kontsumitzen dugun turroia-
ren arteko parekotasuna egiten zuen.

Gabonak familiarekin eta lagunekin pasatzeko egunak izan ohi dira. Hori horrela, urtean zehar etxetik kanpo dauden hainbat herritar, hainbat debagoien-
dar, euren etxetara itzuliko dira abenduaren 20aren bueltan. Batzuk Urteberri egunaren ondo-

ren itzuliko dira. Beste batzuk Errege Egunera arte geratuko dira gurean.

Gehienak, ikasketak bukatzera
Datozen lerroetan, kanpoan daude bost debagoiendarren berbak jaso ditugu: Mikel Barrenetxea aretxabaletarra, Amaia Carrilo arrasatearra, Mikel Arana eskoriatzarra, Usoa Mendikute bergararra eta Amagoia Madina oñatiarra. Hurrenez hurren, Bruselan, Bartzelonan, Glasgown, Bartzelonan eta Lausanan bizi dira, eta, hiru hilean behin etxera etortzen diren arren, Gabonetan ez dute hutsik egiten.

"Egun bereziak izaten dira". "Etxekoekin eta lagunekin egoteko aprobeztatzen dugu". "Ahal dela ez dut hutsik egiten". "Aurten Bartzelonan ospatuko ditut". Horiek dira datozen orrietan irakurri ahal dituzuen berbak.

Gurera ekarri ditugun bost debagoiendarretatik lau ikasketak bukatzera joan ziren kanpora. Karrera bukatuta, lana topatu eta gustura asko daude han bizi izaten. "Jaioterrira itzultzea beti da pozgarria, baina, oporrak bukatuta, lanera joateko ueña heltzen denean ere gustura joaten gara. Etxekoak eta lagunak Debagoiengan, eta lana, atzerrian.



Usoa Mendikute, lehen neska ezkerretik, 1979ko Gabonetan. Hiru urte zituen. | U.M.

USOA MENDIKUTE | MARGOLARIA

"Abenduaren 24ko afaria azaroan egiten dut, etxekoekin eta lagunekin"

Usoa Mendikute bergararrak 2001ean utzi zuen jaioterrria. Lehen norakoa Londres izan zen. Han egon zen 2009. urtera arte. Ordutik hona, Bartzelonan bizi da. Margolaria da, eta egun, jatetxe japoniar batean dihardu lanean. Aurten ere ez da Gabonetan etxera joango. "Ostalaritzan dihardut eta Gabonetan lan handia daukagu. Azkeneko aldiz 2005ean egon nintzen Gabonetan, Bergaran", esan digu. Dena den, etxekoekin ez egon arren, eta hiriburu handian bizi denez, Gabonak gertutik bizi dituela esan digu: "Londresen lehenengo eta Bartzelonan orain, oso azkar ipintzen dituzte Gabonetako argiak eta apaingarriak. Gainera, lankide eta lagun asko nire egoera berean daude: ez dira etxera joaten Gabonetan. Elkarrekin ospatzen ditugu". Lankideen eta Bartzelonako lagunekin arintzen du herrimina.

ARRASATEKO EUSKAL
ESKOLA PUBLIK***A**



Mina ezkutuan duten denei eskainiz elkartasuna behingoz guztiok batu gaitezen eraikiz etorkizuna.

Esperantza apurrik balego bizi oparotasuna

Gabonak datozela jakinik familian maitasuna.

Egilea: Sara del Campo 4.DBH

Doinua: "Badira hiru aste" Mikel Urdangarin

Ilustrazioa: Xabier Zubillaga 2.Batxilergoa





AMAGOIA MADINA | INFORMATIKA INGENIARIA

"Bi hilean behin joaten naiz etxera, baina Gabonetan ez dut hutsik egiten"

Amagoia Madina oñatiarra Lausanan, Suitzan bizi da. Duela zortzi urte joan zen Informatika Ingeniaritza ikasketak bukatzeko. Asmoa zen bi urte eta erdi Suitzan geratzea, baina, lanerako zituen aukerak ikusita, han geratzea erabaki zuen. "Ikasketengatik etorri nintzen Suitzara. Karrera bukatzean, geratzea erabaki nuen. Oso gustura nago hemen", dio Amagoia Madinak.

Gabonetan Oñatira joango da, gurasoak eta lagunak bisitatzeraz. "Abenduaren 22an, Loteria egunean helduko naiz etxera, eta urtarrilaren 5ean hartuko dut itzulerako hegazkina. Hortaz, Gabonetako egun guztiak etxean pasako ditut", esan digu. Urtea etxekoekin bukatzea "oso garrantzitsua" da Madinarendako. "Etxetik kanpo nagoenetik ez dut hutsik egin. Oso inportantea da Gabonak etxekoekin pasatzea. Ahal dudan neurrian, behintzat, ez nuke kalerik egin gura", esan digu.

Teknologia berriak

Zortzi urte badira Madina Lausanan dagoena, eta, tarteka, herrimina izan duela dio. Dena den, gaineratu digu teknologia berriek eguneroko hartu-emanaz izateko aukera ematen dutela: "Interne-tek bide asko ematen ditu zuzeneko kontaktua izateko. Nik asko erabiltzen ditut teknologia berriak. Beste aukera bat da hegazkina hartu eta aste bukaera-pasa etxera joatea. Azken hori, noski, noizean behin egin daiteke", dio Madinak.

Hura bi hilabete behin joaten da etxekoak eta lagunak bisitatzeraz. "Eurekin egon, afariren bat egin... Egun gehien Gabonetan egoten naiz, eta aukera handiagoa daukat guztiak egoteko".




Madina, anaiarekin, zuhaitzaren aurrean. | A.M.

"Teknologia berriekin hartu-eman handiagoa izan daiteke"

Suitzan dagoenean herrimina sentitzen duela esan digu. Eta Suitzara itzultzeko orduan?: "Bai eta ez [Barre]. Gabonetatik itzultzen naizenean,

eski sasoi bete-bete daude Suitzan. Hori horrela, itzulera arinagoa egiten zait. Gabonetako apaingarrietatik eski-pistetara salto egiten dugu. Ez da aldaketa txarra. Horrek laguntzen dit herrimina eta Suitzarako itzulera arintzen. Gustura nago etxekoekin, eta baita Lausnako lankide eta lagunekin", dio Madinak.



BARTZELONA

Abenduan izan ordez, azaroan

Gabonetan ez, baina abenduaren 24an etxekoekin egiten ez duen afaria azaroan egiteko ohitura dauka. "Urtean zehar hainbat alditan joaten naiz Bergarara. Horietako bisita bat azaroan egiten dut. Niri ez zait eguna axola. Garrantzitsua da urtean behin, gutxienez, etxekoekin

"Esango nuke ez ditudala Gabonak era tradizionalen ospatzen"

eta lagunekin elkartzea. Afaria egiten dugu, eta kontu kontari egoten gara. Esango nuke Gabonak ez ditudala era tradizionalen ospatzen [Barre]", dio Mendikutek.

Begarara etortzeko beste aitzakia bat aldika herrian egiten dituen margolan erakusketak izaten dira.



LAUSANA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

ENE BADA

EMAKUMEEN JANTZI DENDA

Ene Bada
Txiki
umeentzako jantziak eta opariak

Kale Barria 22 • Oñati. Tel.: 943 77 66 45

MIKEL ARANA | BEZERO-HARREMANAK

"Gabonak familian igarotzea gustatzen zait eta aurten ere etxean izango naiz"

1999ko azaroa ezker dago Mikel Arana eskoriatzara Glasgown (Eskozia). Ingelesa praktikatzeko asmotan joan zen hara. "Sei hilabeterako egonaldia zen hura. Eta begira non nagoen oraindik!". Izan ere, urte erdirako esperientzia zen hartatik hamahiru igaro dira.



Urrun, baina pozik

"Etxetik kanpo bizitzateak alde onak eta ez hain onak ditu, denak bezala", dio.

"Beste leku bat ezagutzeko aukera dugu: hiri berriak, kultura berria, jende berria... Pertsonalki oso aberasgarria izan daitekeen esperientzia da".

Azkenaldian denon ahotan dagoen lanaren gaia ere garrantzitsutzat hartzen du. "Gauzak dauden moduan, lan seguru bat izatea altxorra da gaur egun. Etxetik kanpo egoteak ez ditu beti lan aukera hobeak

bermatzen, baina, gauzak dauden moduan, herrialde batzuetan aukera zabalagoak egongo dira beste batzuetan baino".

Hala ere, alde ez hain onak ere badaudela aipatzen du: "Etxetik kanpo gaudenean familia eta lagunak urrun daude, eta haien falta sumatzen da, nahi eta nahi ez. Zerbait gertatuz gero, nahi eta distantzia oso handia ez izan, ez nago etxean. Gainera, janaria, Euskal Herrian moduan, ez dago inon ere!", dio.

"Etxetik urrun gaudenean, gertuko falta somatzen da nahi eta nahi ez"

Gabonetan itxi egiten du; beraz, arazorik ez daukat etxera etortzeko. Bereziki gustuko dudak garaia da. Urtean zehar izandako gorabehera guztien ostean, familia guztia elkartzea polita da. Kanean ere ohikoa ez den giroa antzematen da", dio. Aurten ere, Gabonetan Eskoriatzara bueltatuko da Mikel Arana.

Gabonetan, etxera
Urtean hiru bat aldiz bueltatzen da Mikel Arana Eskoriatzara. Horietako bat Gabonak dira. "Gabonak familian ospatzeko garaia da. Lan egiten dudak enpresak



Mikel Arana, familiarekin. | MIKEL ARANA



Mikel Barrenetxea, txikitik, Aretxabaletan, baserritar kantzita. | M.B.

MIKEL BARRENETXEA | TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIA

"Gauza txikiei balio handia ematen ikasten da etxetik urrun gaudenean"

Duela hiru urte joan zen Mikel Barrenetxea aretxabaletarra Belgikako Leuve herrira, urtebeteterako, Erasmusean. Ikasketak amaitu zituenean, curriculumak bidaltzen hasi zen eta lan-eskaintza on bat iritsi zitzaion, oraingo honetan Bruselan. Hantxe dago harrezkero.

Esperientzia aberasgarria

"Ingelesa eta beste hizkuntza batzuk ikasteaz gainera, kultura askotariko jendea ezagutu dut. Gainera, kanpoan egoteak norberaren herrialdeari buruzko perspektiba aldatzen du. Detalle txikiei balio handia ematen diet orain". "Hala ere, lehenago edo geroago, gauza asko igartzen dira faltan; familia eta lagunak, batez ere". Urtean lauzpabost aldiz dator etxera. "Azken finean, Belgika

www.citroen.es
CITROËNek nahiago du TOTAL

Citroen C-Elysee

10.860€-tik aurrera

Pive plana barne eta Citroen Bank-ekin gutxieneko finantzazioa eginez gero.

ZATOZ,
ikus eta probatu,
T. Chapime-n eta
Automoviles Ion-en.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE



Debagoieneko Citroën zerbitzu ofizialak:
TALLERES CHAPIME S.C.L. - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE
AUTOS ION - Amillaga 36 - Tel.: 943 76 47 49 - BERGARA



AMAIA CARRILLO | INGENIARIA

"Gabonak etxetik urrun ospatzea ez dago nire aukera posibleen artean"

Unibertsitateko ikasketak etxetik kanpo egin nahi zituela argi zeukan Amaia Carrillo arrasatearrak. Bartzelonan ikasi zuen Ingeniaritza, eta ikasketak bukatu eta berehala lanean hasi zen. Ordutik hona, bederatzi urte igaro dira, eta Bartzelona du bizitoki arrasatearrak.

Txanponaren bi aldeak

Bartzelona oso gustuko du Arrasatekoak, baina etxetik kanpo egoteak dituen alde ez hain onak ere gogoratzen ditu. "Gauza guztiek bezala, kanpoan bizitzeak bere alde onak eta txarrak ditu. Egunaren arabera sentsazioa aldatzen da. Batzuetan, Arrasaten ez nagoenez, bizipen eta istorio asko galtzen ditudala sentitzen dut; beste batzuetan, ordea, Bartzelonara etorri izan ez banintz, gaur egun nire bizitzan garrantzitsuak diren beste batzuk ez nituzkeen ezagutuko. Txanponak beti ditu bi alde. Orokorrean, esperientzia positiboa da. Izan ere, etxekoengandik urrun bizi garenean, zenbait gauzatan edo egoeratan *bakarrik* moldatzen eta autonomoago izaten ikasten da".

Gabonak, beti berezi

Hiru hilabete behin etxera etortzen ahalegintzen da. "Nahiko familiarra izan naiz beti, eta urte osoan zehar, horrenbeste urtez etxetik kanpo egonda, Gabonak heltzen direnean etxean egotea garrantzitsua da niretzat. Bai niretzat, eta baita nire familiarentzat ere. Aitzakia perfektua da urtean behin bada ere familia guztia elkartzeko".

Aurten ere etxera bueltatuko da Gabonetan. Gabonek xarma berezia dutela uste du: "Batzuoi




Amaia Carrillo txikitán, Arrasaten. | A.C.

"Gabonek xarma berezia dute. Berriro etxean nagoela sentitzen dut"

beste batzuei baino gehiago gustatzen zaizkigu Gabonak. Nire uste, Gabonak beti izan dira bereziak. Ahal dudan guztietan, Gabonganean, Eguberri egunean, Gabon

zaharretan eta Urteberri egunean etxean nago. Bazkari eta afari berezietan gain, ikusten ez ditudan senitartekoekin egoteak eta familiako txikienekin Olentzerorekin bizi duten poztasuna sentitzeak berriro etxean nagoela sentiarazten naute. Eta, aurrerantzean, ahal dudan bitartean, behintzat, ohitura honekin jarraituko dut".



LEUVE

eta Aretxabaleta ez daude hain urrutik. Ordu eta erdiko hegaldi baten ostean, etxean nago".

Gabonak, etxean

"Betik pentsatu izan dut Gabonak familian eta lagunekin egoteko direla". Egun bereziak direla aitortzen du: "Egun bereziak, zergatik? Galdera hau txikitán egin izan bazenit, opariengatik dela esango nizukeen! Bromak alde batera, Gabon garaian, familiarekin eta gertukoekin elkartzeko aukera daukat, eta horregatik ditut Gabonak hain gustuko".

"Gabonek xarma berezia dute, berriro etxean nagoela sentitzen dut"



BARTZELONA

RESUSTA Karririkiri

Arrasatearren artean 150 urte baino gehiago

Erdiko Kale 38. Arrasate • Tel.: 943 79 01 07



OPARIAK • ETXEKO TRESNERIAK • DEKORAZIOA
Ondo pasau jaixak!



SANTAMASAK 2012

Azoka eta iazkoa baino biziagoa den txerria, aurten ere jaietako ikurrak

'Luixifer' txerria Garagartzakoa da aurten ere; hilaren 22ko feria, ohi bezain erakargarria

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Badator urteko azokarik garrantzitsuena, gure jatorria gogoratzera ekartzeko jairik esanguratsuen. Badatoz Santamasak.

Komisiñoak, Udalarekin eta herriko kultur taldeekin elkarlanean, martitzenean eman zuen aurtengo egitarauaren berri. Urteroko egitarau zabala prestatu dute, adin eta gustu guztiak asetzeko moduko ekintzekin.

'Luixifer'-ek, 240 kilo inguru


Aurten ere Garagartzako Korreona baserrira jo dute Komisiñoek txerriaren bila; *Luixifer* izena jarri diote. Pieza handia da Egoitz Zuazubizkarrek hazi duen txerria:



Luixifer txerria ondo mimatu dute aurten ere Korreona baserrian. Irudian, *Luixifer* Egoitz Zuazubizkarrekin. | JOKIN BEREZIARTUA

"Iazkoak 240 kilo hartu zituen eta aurtengoak ere antzeko pisua izango du; kilo gehiago, akaso". Iazko txerria baino zikinagoa ei da aurtengoak: "Iazkoak alde batean egiten zuen kaka eta beste baten lo. Aurtengoak, berriz, kaka eta lo leku berean egiten du".

Baserriko kortan alde batetik bestera korrika aritu izan da: "Iazkoa baino gehiago mugitzen da, jolasean arituko balitz moduan korrika egiten du. Hobe horrela, hiltzen dugunerako koipez josita egon baino muskulu gehiago izango ditu-eta", dio Zuazubizkarrek umoretsu. Txerria ondo zainduta izan dute Korreonan. Horren adierazle da jai zenetik izan duen



SANTAMAS JAIETAKO EGITARAUA

ABENDUAK 21

18:30 ETXAFUEGOAK.

18:30 Arrasateko ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA. Irteera Herriko Plazatik.

18:30 Herriko Plazan, LUIXIFER txerriaren aurkezpena.

19:00 PORTALOI taldearen eskutik, KANTU KALEJIRA.

20:00 Herriko Plazan dantzaldia HAITZAMA taldearekin.

21:30 Herriko Plazan, ZEZEN SUZKOA.

22:30 NEVER SURRENDER taldearen disko berriaren aurkezpena GAZTETXEAN.

ABENDUAK 22

09:00 ETXAFUEGOAK.

09:30 UDALAXPE txistulari taldearekin DIANA.

10:00 Laubiden, GANADU FERIA.

10:00 Biteri etorbidean, HEGAZTI ERAKUSKETA.

10:00 Seber Altube plazan, FRUTA eta BARAZKI ERAKUSKETA eta LEHIAKETA.

10:30 Jokin Zaitegi plazan, ARTISAU langintzen jarduera FERIA. Euskal Herriko musika tresnen monografikoa. Musika tresnak egiten dituzten artisauek lanean ikusteko aukera egongo da.

11:00 Herriko Plazan, Aramaioko sagardogileen SAGARDO dastatzea eta TALOAK.

11:30 KALEJIRA: ARROSTAITZ eta LORE GAZTEAK dantza taldeak, Arrasateko TRIKITILARIAK, UDALAXPE txistulari taldea eta Arrasateko GAITEROAK.

11:30 ITURENGO JOALDUNAK.

11:30 INCANSABLES txaranga.

11:30 Herriko Plazan, ARROSTAITZ dantza taldearen ekitaldia.

12:00 Zaldibarren, HERRI KIROLAK. Iñaki Perurena harrijasotzailea etorriko da. Aizkora, trontza eta motozerra ERAKUSTALDIAK ere egongo dira.

12:00 BENTA ZAHARREKO MUTIKO ALAIAK, euskal KANTU KALEJIRA herriko kaleetan.

12:30 Herriko Plazan, ARRASATEKO ALBOKARI eta TXALAPARTARlen ekitaldia.

13:00 Herriko Plazan, LORE GAZTEAK dantza taldearen ekitaldia.

13:45 Herriko Plazan, TXERRI DANTZA herrikoia.

14:15 Portaloitik irtenda KALEJIRA HERRIKOIA Musakolako kiroldegiraino.

14:30 Musakolako kiroldegian, HERRI BAZKARIA. Txartelak salgai 18 eurotan: Monte, Kajoi, Basati eta Bengoa tabernetan. Umeentzako tailerrak egongo dira, Txatxilipurdiren eskutik.

18:00 Uarkape Udal Pilotalekuan PILOTA JAIALDIA.

19:30 Herriko Plazan, TXERRI DANTZA eta LARRAIN DANTZA.

20:00 Herriko Plazan, TXERRI ZOZKETA.

20:00 Herriko Plazan, dantzaldia EGAN taldearekin.

20:30 Amaia antzokian, BERTSO SAIOA AEDK antolatuta. Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Andoni Egafia, Igor Elortza eta Amaia Agirre. Gai jartzalea: Josu Goikoetxea.



Ganadu feriak jende asko erakartzen du urtero. | ARTXIBOA

dieta; ederto elikatu dute: "Ortuan momentuan egon izan dena jan du. Kalabaza ugari jan ditu, baina baita artoz, babarrunaz eta garagarraz egindako pentsua ere". Jaietako zozketa egin ostean txerria etxera bueltatuko da: "Animalia biziak zozketatzea debekatutako dago, legeak ez du uzten", dio Zuazubizkarrek.

Txerria zaintzea lan gogorra da, egunero egin beharrekoa. Hala ere, pena ere sentitzen du Zuazubizkarrek Komisiñoak Garagartzan agertzen direnean, txerriaren bila: "Gogorrena da txerria eramaten dutenean. Iaz asko sufritu zuen, eta, Komisiño-k kideen arabera, aurtengo beste

sistema batekin egingo dute. Beste karro bat ekarriko dute eta espero dugu errazago kargatuko dutela".

Azoka, erakusketa, lehiaketa...

Txerria da Santamasetako ikurra, ez dago dudarik. Baina beste ikurren bat zehaztu behar bada, hori azoka da, zalantza barik. Ganadu feria Laubide plazan, hegazti erakusketa Biterin, fruta eta barazki erakusketa eta lehiaketa Seber Altuben, artisauek azoka Jokin Zaitegi plazan, herri kirolak Zaldibar pilotalekuan... Krisiak krisi, aurtengo azokak ez du hutsik egingo; zer ikusi, erosi eta dastatu egongo da.

*Paraje eder
baten kokatua*

*Razio hotzak ardo bereziarekin dastatzeko aukera bikaina
Bazkaria hasteko beste modu berezi bat*



♦ Menu bereziak
aukeran: 18 €

♦ Karta

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel.: 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

Zorionak eta Urte berri on!

Nobedade bete zaku Santamasetan

Aurtengo Santamasetako artisau ferian euskal musika tresnek toki berezia izango dute

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Martitzenean aurkeztu zuten aurtengo Santamasetako egitaraua, eta hainbat nobedade dakartza Garagartzako Korriona baserrian baratzeko produktu ekologikoen bidez hezitako *Luixifer* txerria protagonista duen festak.

Euskal arraza nagusi

Santamas egunez, ganaduak, animaliek, barazki eta frutek eta artisauak protagonismoa izaten dute. Hori ez da aurtengo aldatuko, baina zenbait nobedadekin egingo dugu topo.

Laubide plazan egingo den ganadu feriarri dagokionez, "hainbat animaliarren kasuan, Euskal Herriko arraza autoktonoa ikusleentzako jartzen" saiaturik direla adierazi dute antolatzaileek. Bestalde, Biteri etorbidean hegaztien erakusketa egingo da, eta Aretxabaleta, Urretxu, Sorraluze eta Arrasateko bertako 100 hegazti inguru behatu ahal izango dira: oilarrak, kapoiak, indioilarrak...

Euskal musika tresnak

Artisau feriarri dagokionez, Biteri plazaren bueltan erakusmahai ezberdinak ipiniko dituzte, eta tailagintza, larrugintza edota bitxigintza moduko lanbideak bertatik bertara jarraitzeko aukera egingo da. Baina aurtengo bigarren, langintza konkretu bat aukeratu dute eta monografiko gisara lantzea pentsatu



Lorentxo Altube euskal musika tresnetan aditua da eta erakusketa egingo du Harresi aretoan. | GOIENA

dute antolatzaileek: "Iaz bailarako artzaintzaren nondik norakoak landu genituen, eta aurtengo musika tresnen artisautzari egin gura diogu omenaldia". Hala, Euskal Herriko musika tresnak egiten dituzten artisauak lanean ikusi ahal izango dira.

Baina Santamasen aurretik ere landuko dute musikaren gaia. Hain zuzen, hilaren 15etik 19ra bitartean, Harresi aretoan,

Lorentxo Altube arrasatearren Euskal Herriko musika tresnen erakusketa egingo da ikusgai.

Erakusketaren azken egunean, gainera, Oreka TX taldeak perkusio eta txalaparta tailerra eskainiko du Harresi aretoan bertan: "Txalaparta ezagutzeko lehenengo pausoak landuko dituzte bertan, eta gura duten guztiek har dezateke parte".

Martin Abaderen bisita

Santamasetako ajearen ostean, Olentzerok bisita egingo die arrasatearrei abenduaren 24an. Neska-mutiek, ohi bezala, eskutitza helaraziko diote ikazkinari, eta, mezulari lanak egiteko xedez, Txoronpio eta Txoronpia kalera irtengo dira.

Azken urteetan, gainera, lagun bereziak izan dituzte alboan; hain zuzen ere, euskal mitologiako

pertsonaiak irten izan dira haurren mezuak jasotzera. Basajaun eta Basandere Arrasaten izan ziren duela pare bat urte, iaz Akerbeltzek eraman zizkion haurren gurariak Olentzerori, eta aurtengo berriz, Martin Abade izeneko pertsonaia izango dute lagun Txoronpio eta Txoronpiak.

Herriko eskoletan ere Arrasateko pertsonaia mitologikoari buruzko informazioa banatuko dutela eman zuten aditzera Santamasetako antolatzaileek. "Irakasleekiko esker oneko dago Olentzerori, bere gonbidatuei buruzko informazioa zabalduko dute-lako".

Hala ere, Martin Abaderen bisita jaso aurretik, bezperan, hau da, abenduaren 23an, Kultureko areto nagusian pertsonaia-ri buruzko ipuin kontaketa saioa egingo dute Hirune Iribecampos, Julene Etxedona eta Vanessa Gonzalezek.

Baina nor izan zen Martin Abade? Abade gipuzkoarra izan ei zen, ehiztari amorratua, gainera. Kondairak dioenez, Udalan meza esaten ari zen egun batean, txakurren zaunkak entzun zituen, eta, egiten ari zena utzi, eskopeta hartu eta mendira joan zen erbi erraldoi baten atzetik. Orduetik hona ez ei dute Martin Abade gehiago ikusi, baina entzun bai, entzun ei dituzte haren txistuak, eta baita txakurren zaunkak ere.

Gabon bezperan ezagutuko dugu, beraz, bertatik bertara.

ION ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMAIRUAK
leihoak

ARRASATE

Telleria kalea 4 • Pab. 11
Aramaioko bidea
(Markulete Ind. inguruan)
Tel.: 943 79 11 35

GASTEIZ

Olagibel 51
Tel.: 945 25 71 73

ventaion.com

WEBGUNE
BERRIA!

Gora, Santamasak!



KÖMMERLING®





LEIHOETAN
ESKAINTZARIK
ONENAK



C aroztegia
arrascal

SUKALDEAK
ARMAIRUAK
BAINUAK



ZEURE NEURRIRA ZEURE GUSTURA

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Urbarri Auzoa • 20500 Arrasate • Tel.: 943 79 01 82 • Faxa: 943 10 69 66 • scarrasc_1@infonegocio.com

Kontxi Berezibar | Baserritarra

"Betiko bezeroak ikusi eta eurekin egotea polita da"

- ▶ Azokan egongo da semearen eta errainaren laguntzarekin
- ▶ Etxean egindako produktuak eramaten ditu azokara

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Garagartzarra jaiotzez, Bedoñako Bidezoro baserrian bizi da Kontxi Berezibar. Ogia, gazta, txerrikiak... horiek guztiak saltzen ikusiko dugu Santamasetako azokan. Tartetxo bat hartu du gurekin berba egiteko.

Santamasetako azokan ikusiko zaitugu. Zer ekarriko duzu?

Ogia, gazta, txerrikiak, barazkiak... ekartzen ditut. Etxean egindakoa izaten da dena. Semearekin eta errainarekin etortzen naiz egun horretan.

Nolako azoka izaten da Santamasetakoa?

Ona, oso ona izaten da. Orain artekoak onak izan dira; ez dakiguna da aurten zelakoa izango den. Normalean, jendeak oso ondo erantzuten du. Arrasateko jendeaz gain, Aretxabaletakoak, Eskoriatzakoak, Bergarakoak, Oñatikoak... jende asko etortzen da Santamasetako azokara. Gai-

nera, bezero asko urtero etortzen dira, bezero finkoak. Oso polita izaten da eurekin egotea.

Bezero horiekin egoteko aukera polita izango da azoka.

Bai, eurak ikusi eta harremana mantentzeko balio izaten dute azokek.

"Goizean eta arratsaldean egiten dut gazta; garai ona bada, 12 bat"

"Txerrikiak da ondoen saltzen dena, eta ekarritako dena saltzen dugu"

Ogia eta gazta egiteko, adibidez, noren laguntza izaten duzu?

Ogia egiten semeak laguntzen dit eta gazta nik neuk egiten dut. Etxeko ardien esnearekin egiten dut gazta.

Zenbat burutako artaldea duzu?

150 bat ardi izango ditugu. Goizean eta arratsaldean egiten dut gazta. Garai onean, egunero, 12 bat gazta egingo ditut. Gainontzean, zertxobait gutxiago. Martxo-apiril ingurua izaten da garai ona, arkumeak kentzen ditugunean. Hortik aurrera esne gutxiago ematen dute.

Zenbat ogi egiten dituzue?

Santamas azokarako lau labealdi egiten ditugu; eta, labealdi bakoitzean, 30 bat ogi egiten ditugu. Oso ondo saltzen dira ogiak.

Txerrikiak ere ekartzen dituzu: txerrikiak eta odolosteak.

Santamas azokan txerrikiak dira ondoen saltzen direnak. Jendeak



Kontxi Berezibar, Arrasateko azokan. | A.E.

oso gustura hartzen ditu; normalean, denak saltzen ditugu. Barazkiak, adibidez, ez dira hainbeste saltzen. Egun horretan barazkiak begiratzeko bakarrik izaten dira!

Betidanik etorri izan zara Arrasateko azokara?

Bai. 10 urte nituenetik etortzen naiz. Pentsa... zenbat euri egin duen ordutik! Lehen, etxeko barazkiak ekartzen nituen, eta Bedoña-

ra ezkondu nintzanean hasi nintzen ogia eta gazta ere ekartzen.

Askok aldatu da Santamasetako azoka?

Bai. Lehen, 13:30etik 14:30era bitartean asko saltzen zen; gaur egun, 13:30erako jendea joaten hasten da. Eguraldiak ere eragin handia izaten du; euria egiten bada, ez da oso eroso izaten aterki artean ibiltzea.

Oparitu edertasuna eta ongizatea

Lirain

Estetika Zentrua

Jai zoriontsuak!

www.lirainestetika.com

Bixente Ferrer, 1 Arrasate

Tel.: 943 79 52 17

Masaje erlaxagarria olio esentzialekin

50 €

Jong Bao

Txokolate-masajea

60 €

Goxo-goxoa

Gorputz Peelinga + hidromasajea + masaje erlaxagarria

70 €

Saio erlaxagarria

Aurpegia hidratatzea + masaje erlaxagarria

80 €

Mima zaitetz

Eskaintza zabala poltsa eta osagarrietan. Sartu gure webgunean.



Maialen Lujanbio. | BERTSOA.COM



Maialen Lujanbio. | KLAKETANET



Maialen Lujanbio. | JOSETXO ARANTZABAL



Maialen Lujanbio. | GAZTEZULO

Aurpegi ezagunak hilaren 22ko bertso saioan

Aurtengo Santamasetarako ere antolatu du AEDk bertso jaialdia; Lujanbio, Egaña, Agirre eta Elortza izango dira taula gainean

PERU ARREGI | ARRASATE

Aurtengo Santamasetarako ere antolatu du AEDk bertso saioa; abenduaren 22rako, alegia. Ohi-turari eustea da haien asmoa, eta, bertsozaleak edo horren zaleak ez direnak erakartzeko baliatu nahi dute aukera hori.

Iaz jaialdi berezia izan zen, proposamen berri moduan emakumezkoak protagonista izan baitziren. Bertsolariak Amaia Agirre, Alaia Martin, Oihane Enbeitia, Miren Amuritza eta

Andere Arriolabengoa izan ziren eta gai-jartzailea, Maite Berriozabal.

Aurtengo Santamasetan, ordea, urte askoan egin izan den moduan, bertsolari esperientziadunak biltzea lortu dute; izan ere, aurpegi ezagunak igoko dira taula gainean. Bertan izango dira Andoni Egaña (Zarautz, 1961), Maialen Lujanbio (Hernani, 1976), Igor Elortza (Durango, 1975) eta Amaia Agirre (Villabona, 1977). "Azken urteetan ezin izan ditugu ekarri, baina oraingoan lortu dugu",

adierazi dute AEDko lagunek. Iraila ezker daramate Santamasetako antolaketa lanean, eta, kostata izan bada ere, aspaldiko partez Egaña eta Lujanbio elkar-tzea lortu dute. Gai-jartzaile moduan, aldiz, Josu Goikoetxea ibiliko da, eta gaur egungo gaiak izango dira solasgai.

Saioa Amaia antzokian izango da, 20:30ean. Bertso saiora joan ahal izateko sarrerak salgai egongo dira Arrasateko hainbat tokitan: Irati eta Monte tabernetan, alde batetik, eta AED elkar-

tean, bestetik. Edozelan ere, denboraz larri dabilenarentzako, jaialdiaren egunean antzokian bertan ere erosi ahal izango dira; hain zuzen ere, leihatilan egongo dira salgai saioa hasi baino ordu erdi lehenago.

AEDn bertsojaritza ekintzak

Bertsojaritza euskal kulturaren ikur ezaguna denez, beti izan du tokia AEDren kultur jardueren barruan. San Juango eta Santamasetako jaialdiez gain, beste ekitaldi asko antolatzen dira -afariak, txikiteoak, koplakantaldiak...-, euskal ohitura hori bultzatzeko helburuarekin.


AEDk bertso eskola ere izan zuen. Alde batetik, 1995ean Patxi Goikolearen, Unai Bergaretxeren eta Aitor Zabaloren laguntzarekin sortu zuten. Ondoren, Ainhoa Agirrezaldegik, Asier Iriondok, Oihane Pereak, Nerea Urrak eta Jokin Labaienek eutsi zioten jorratutako bideari. Jarraian, helduen eskola jarri zen martxan hiru urtez, Danel Goikoleak gidatuta. Beste alde batetik, 2008an Arrasateko Bertso Eskola sortu zen, AEDren babespean

DATUA

10

EURO

AEDko bazkideek eta Goiena Klubekoek 2 euroko deskontua izango dute sarreretan. Irati eta Monte tabernetan eta AED elkarteetan daude salgai.



**kanpazar
obate**
— harrobiak —

Ondo ibili Santamasetan!

ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK ETA HORMIGOIAK

KANPAZAR HARROBIA S.A.

Meatz-Erreka auzoa 21
ARRASATE 20500
Tel.: 943 77 10 83
Faxa: 943 77 00 25

KOBATE KAROBIA ETA HARROBIA S.L.

Garagartza auzoa 52
ARRASATE 20500
Tel.: 943 71 24 03
Faxa: 943 77 02 51



Grupo Amantegi



JOSTAILUAK

2012ko azaroaren 8tik abenduaren 24ra arte





Gozatu deigun geurie!!

Santamasak 2012



Bihar zehaztuko da Joseba Lasagabasterren oinordekoa

M.B. | OÑATI

Oñatiko VI. bertsolari txapelketako txapela jokoan ipiniko dute bihar, zapatua, 18:00etan, gaztelekuan. Sei bertsolari ariko dira nor baino nor gehiago, 2008an Joseba Lasagabasterrek jantzi zuen txapelaren bila. Baina nor izango da haren oinordekoa? Josebak berak aukera asko ditu, bi kanporaketak jokatu ostean puntu gehien batu dituen bertsolaria izan delako. Harekin lehiatuko dira Josu Igartua, Andoni Goitia, Maider Arregi, Iñaki Olalde eta Joseba Urtzelai *Urze*.

Epaimahaia kanporaketako kide berberak osatuko dute: Lander Diaz de Gereñu, Iñaki

Beristain, Jerardo Elortza eta Patxi Goikoleak. Eurek aukeratu dute irabazlea.

Bazkaria finalaren aurretik

Bihar arratsaldeko finala izango da VI. bertsolari txapelketako azken geltokia. Baina biharko egunak baditu beste geltoki batzuk. Final eguna jaiegun bihurtu dute bertso eskolako lagunek. Jaia 13:00etan hasiko dute. Triki-poteoa egingo dute kalerik kale, eta gero, 14:30ean, bazkaria egingo dute gaztelekuan. Bazkarirako txartelak salgai daude Arrano tabernan 10 eurotan. Sorpresak egongo dira.

Pilatesa, fit-bikea eta gimnasia harmonikoa protagonista kiroldegiko fitness jaian

M.B. | OÑATI

Oñatiko Udalak, Zubikoa kiroldegia eta han zerbitzua ematen duen E-goitek enpresak fitness jaia egingo du aste bukarran. Bi saio prestatu dituzte: alde batetik, pilatesa; eta beste alde batetik, gimnasia harmonikoa, bosu eta body pumpa eta fit-bikea. Lehena gaur, egu-

bakoitza, egingo dute, 18:30ean; eta bigarrena bihar, zapatuan, 10:00etan hasita.

Deialdia Kirol Zerbitzuko erabiltzaileen artean egin dute, baina gainerako herritarrek ere badute parte hartzeko aukera. Erabiltzaileek eurek erabakiko dute zenbat ekintzatan parte hartu gura duten.



Divine Gospel Reunion taldeko hiru kideak. | GOIENA

Musika espiritualala oinarri duen emanaldia gaur

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Joniece Jamison, Victoria *Tori* Robinson eta Linda Lee Hopkins. Hiru emakume. Hiru ahots. Bakar-kako bidea egin ondoren, Divine Gospel Reunion taldea sortu zuten. Eurak izango dira protagonista gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Sarrerak www.barrabarra.eu atarian eros daitezke 10 eurotan. "Urtebete da sarrerak Internetez salgai ipintzen hasi ginela, eta gospel kontzertua da erantzun zabalena izan duena", esan digu Manu Egañak, Kultura zinegotziak.

Divine Gospel Reunion taldeak emanaldi jendetsuak egin ditu, besteak beste, Oviedo, Manresa eta Villenako jazz jaialdietan.

"Gospela maite" dutelako

Hiru emakume. Hiru estilo. Hiru ahots. Hirurak gospela "maite" dutelako elkartu dira, baina batez ere "gospela eta beltz espiritualaren doinu eta erritmoak barruan sentitzen" dituztelako.

Hori horrela, gospelaren oinarriko kantuak eta doinuak eskainiko dituzte, Michael Marnet piano-jotzailearen laguntzarekin. "Erritmo eta energiak betetako kantaldia egingo dute", diote antolatzaileek.

Era berean, pop eta jazz estiloko kantuek beteko du Santa Ana antzokia: Charles Aznavour, Eurythmics, Ray Charles, Duran Duran eta Elton Johnen bertsoak egingo dituzte.

Irakurtzeko taldea sortu gura dute Pake Leku elkarteak

M.B. | OÑATI

Pake Leku elkarteak irakurtzeko taldea sortu gura dute. Erretiratu batzuek egindako eskaera aintzat hartuta, literatura solasaldiak egingo dituen taldea sortu gura dute. Oraingoan, deialdia egin dute erretiratu elkarteak: izena emateko epea zabaldu dute. "Gure asmoa da urtarrilean hasita. Euskarazko liburuak irakurtzen hasiko ginateke", diote zuzendaritza batzordekoek.

Irakurtzeko taldearen dinamika honakoa izango da: taldeko kide guztiek euskarazko liburu bera irakurri eta guztion artean solasaldia egin.

Era berean, deialdia egin dute yoga taldea sortzeko. Interesatuak erretiratu elkarteak eman behar dute izena.

Bazkaria finalaren aurretik

Bestalde, Ikusi Makusikoek *¿Dónde está la pierna del alcalde?* antzezlan egingo dute herritarrendako: bihar, 21:00etan, Santa Anan. Azkenik, hilaren 20an, txistorra-jana egingo dute elkarteak, erretiratuendako, 17:00etan.



Etxe bat baino gehiago
behe solairuak
terrazarekin

estudio edota bulegoa,
jangela, egongela, trasteleku,
umeentzako jolasteko logela...
bihurtu daitezkeen gun
zabalekin

ARRASATE





LKS

943 71 22 59

PROMOZIOAREN
FINANTZAKETA ETA
ABAL EMATEA



UTE URIBARRI

GURE BERMEAREKIN:




Erakusleiho lehiaketa deitu du Udalak hainbat nobedade tarteko direla

Saria izango da plaka bat eta urtetik urtera merkataria irabazleak hurrengoari pasatuko dio

M.A. | ARETXABALETA

Azken urteotan legez erakusleiho lehiaketa deitu du Udalak, baina aurten hainbat nobedadekin dator. Hala, ez da egongo izenik eman beharrik eta herriko denda guztiek hartuko dute parte. Hori bai, erakusleiho horiek abenduaren 15etik 31ra bitartean izan beharko dituzte apainduta.

Epaimahaia osatuko dute Ana Bolinaga alkateak, Zigor Quintanilla Kultura zinegotziak eta Nahia Agirre Udaleko enplegu teknikariak. Imajinazioa, originaltasuna eta Gabonetako mezua euskaraz ematea hartu-

ko dituzte kontuan horiek. Gainera, saltokiko ohiko produktuekin apainduta egon beharko dute. Lehiaketak iraun bitartean erakusleihoak argiztatuta izatea eskatu dute.

Sari bakarra

Saria erakusleiho bakarrak jasoko du eta izango da plaka bat. Plaka hori urtero lekuko moduan pasatuko dio aurreko urteko irabazleak hurrengoari. Plakarekin batera ezusteko oparia ere jasoko du.

Irabazlearen berri urtarriaren 6a baino lehen emango du epaimahaia.

Gurasoendako saioak antolatu dituzte Nerea Mendizabal psikopedagogoarekin

M.A. | ARETXABALETA

Kuku Miku elkarteak gurasoendako saioak antolatu ditu Nerea Mendizabal psikopedagogoarekin. Urtarriletik maiatzera bitartean izango dira, hilabetean saio bat (17:30-19:30), eta hainbat gai landuko dituzte.

Interesatutako gurasoek abenduaren 28a baino lehen eman behar dute izena, kukumikuelkarrea@gmail.com helbidera idatzita edo 650 93 96 93ra deituta (Nerea). Saioren prezioa 7 euro da bazkideendako eta 10 euro gainerakoendako.

Lehen saioan, oinarriak

Lau saio eskainiko ditu Mendizabalek: urtarrilaren 7an, *Haurtzaroaren oinarri sendoa*; otsailaren 4an, *Errespetuzko komunikazioa*; martxoaren 4an, *Esaten dizudana bete eta ez haserretu*; eta maiatzaren 6an, *Ez dut zigortu nahi*.

Lehen saioan, gurasoek eza-gutu eta zaindu beharreko oinarrien gainean jardungo dute, segurtasunez eta konfiantzaz hornitu eta egoera zaileri aurre egiteko "aukera gehiago" izan ditzaten umeei.

'Barrura begiratzeko leihoak' filma emango dute gaur eta bihar arratsaldean eta gauean, 'Skyfall'

Zeresan handia eman duen *Barrura begiratzeko leihoak* filma izango da Arkupen gaur eta bihar (19:30). Bost euskal presoren erretratuak eskaintzen ditu filmak, bost zinemagileren eskutik: Josu Martinez, Txaber Larreategi, Mireia Gabilondo, Enara Goikoetxea eta Eneko Olasagasti.

Eta gauean *Skyfall* emango dute, James Bonden azken abenturak: gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeendako, ostera, *Jacobo lobo* filma dago bihar eta etzi (17:00).

Murrukixoren 25. urteurrena ospatuko dute egunotan

Afaltzeko elkartuko dira bihar, eta martitzenetik zapatara bitartean Mendi Astea egingo dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Murrukixoko mendizale elkarteak abenduaren 22an beteko ditu 25 urte. Egunerok ez da halako urteurrena betetzen, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi iragarri dituzte, tartean Mendi Astea martitzenetik zapatara, hiru hitzaldi eta irteera batekin.

25. urteurrenako ospakizunak dagoeneko hasi dituzte Murrukixoko lagunek, eta hainbat irteera egin. Bihar, ostera, hitzordu garrantzitsua dute, goiz partean herriko elizateetan ibilaldia –saso batean urtero egiten zuten– eta gauean afaria Taberna Berri jatetxean. Murrukixoko bazkide eta lagunak batuko dira, 60 bat lagun, eta sasoi bateko bizipenen eta oraingo kon-

tuen gainean jarduteko aparteko aukera izango dute.

Hilaren 22an Leixargaratera

Datorren astean, ostera, Mendi Astea egingo dute, hiru hitzaldirekin –Arkupeko Zeraia aretoa, 19:00etan–. Martitzenean, hilak 18, Txilen egindako eski-ibilaldia- ren gaineko ikus-entzunezkoa eskainiko du Andoni Ormazabal urretxuarrak, Aretxabaletan oso ezaguna denak. Eguaztenean, ostera, Igor Mendizabal *Goxerri* eskalatzailerik mutrikuarrak berbalde teknikoagoa eskainiko du; eta egubakoitzean, Nerea Ulezia aretxabaletarrek Dolomiten gainean jardungo du. Zapatuan, astea eta urteurrenako ekitaldiak buka-

EMANALDIAK

ABENDUAK 18

19:00 Andoni Ormazal:
Txile: eski-zeharkaldia.

ABENDUAK 19

19:00 *Goxerri*: Kanada-Yukon; Las Inescalables eta Flower ibilbidea.

ABENDUAK 21

19:00 Nerea Ulezia:
Dolomitek.

tzeko, Leixargarateko aterpetxera ibilalditxoa egingo dute: "Oraintsu berrituta dago, eta goiz-pasa joango gara", dio Iñaki San Migelek, elkarteko presidentek.

Argazki emanaldia

Bestalde, 25 urteotako argazkiak jasoko dituzte CDan. Hango eta hemengo argazkiak jasotzen ibili dira, tartean Kurtzebarri gurutzera igo zituztenekoak, eta horiek guztiak Murrukixoko egoitzaren aurrean botako dituzte Gabonetako egunetan.



NURIA FDEZ. ARROIBABE

Bartzelonan kantuan, baita Sagrada Familian ere

Bartzelona aldean ibili ziren Aretxabaleta Abesbatzako kideak joan den aste bukaeran; ederto ibili ere! Orfeo Laudatekoek gurera egindako bisita itzuli zieten, eta kontzertu ofiziala emandakoan hiriko bisita etorri zen: "Sagrada Familian demaseko ilarak zeuden, baina, Orfeoko lagun bati esker, alboko atetik sartu eta parrokoarekin egon ginen. Kanturen bat kantatzeko eskatu eta lau kantatu genituen. Harrituta geratu ziren bertako bisitariak".



KURTZEBARRI ESKOLA

'Mila patxotan lehertzen den izarra, zuentzat!'

Gu sortu ginen enbor beretik... leloarekin ekintza mordoa egin dituzte Kurtzebarri eskolan: "Ikasleen izarrik preziazuenen distiraz gozatzeko aukera izan dugu eta izar-hauts hori etxe guztietatik iritsi zaigu; ikasleen aitaitek eta amamek ekarri digute. Gaztetako argazki, abesti, jostailu, kontu, eta abarrez, zuhaitzen adarrek belaunaldiz belaunaldi loratzen dihardutela erakutsi digute. Horregatik, bizitzaren mastru-maistra horiei gure aitortza eta eskerrik handienak: *Mila patxotan lehertzen den izarra, zuentzat!*"

JOU DÍAZ
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Eugeni Sasiain saria jasotzen Brasileña Espe Perezen eskuetatik. | ARETXARTE

Gaztaina saltzailea aurten ere gurean Aretxarteri esker

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak aurten ere herritarrei Gabonak girotu guran dabil, eta hirugarren urtez gonbidatu du gaztaina saltzailea. Atzo egon zen Mitarte kalean, eta datozen bi eguenetan, hilak 21 eta 27, berriro etorriko da. Aretxarteko kideak, gainera, txartelak banatzen dabilta egunotan bezeroen artean, gaztainak debalde jan ditzaten.

Horrez gain, hiru opari eder zozketatuko ditu Aretxartek abenduaren 22an, zapatua. Kalitate oneneko jakiz betetako hiru otzara -urdaiazpiko iberikoa, xanpaina, turroiak, ardo ondua...-, eta lehenengo sarituak, gainera, irteera irabaziko du: globoan ibilaldi-

txoa; Ramon Bilbao upategira bisita gidatua; Vieja Bodega jate-txean afaria; eta Errioxako Palacio de Casafuerte hotelean gaua, gosari eta guzti. Aretxarteko dendetan erosketak egiten dituztenek hartuko dute parte zozketan.

Abenduko saritua

Gabonak iritsi bitartean ere sariak banatzen jarraitzen dute Aretxarteko kideek, gainerako hilabeteetan legez. Eugeni Sasiainek turroi, kafe eta antzeko jakiz betetako otzaratxoa jaso zuen Brasileña kafetegian, Asensio jantzi-dendan erosketa egiteagatik. Eta aste honetan beste bi saritu izango direla iragarri dute.

ZER OTE?

Zelan esaten da moldaviaz zorianak eta urte berri on?

Arkupen eta Ibarra kiroldegian, herrian hitz egiten diren hizkuntzen pistekin topo egingo duzue.

Erantzunendako postontziak:

Arkupe, kiroldegia, Loramendi eta ikastetxeetan.

Erantzuteko epea: urtarrilak 7.

Bigarren galderaren erantzuna:

Berbereen hizkuntza den tamazight Marokon eta Aljerian egiten da, batik bat; baita Tunisia, Libia, Egipto, Mali... hizkuntza komunitate txikiagoetan. Wolofera, Senegalen eta Gambian; eta aymara, Bolivian, Perun eta Txilen.

Lehenengo galderaren irabazlea:

Julene Rosado.



AUZOKO

Bilboko jolas parkera joateko irteera antolatu dute 8 eta 12 urte artekoendako

M.A. | ARETXABALETA

Bilboko Gabonetako jolas parkera joateko irteera antolatu dute Gazteria Zerbitzuak eta Poxpolinek 8 eta 12 urte artekoendako. Urtarrilaren 3an izango da; 10:00etan irtengo dira eta 19:00 aldera itzuli.

Izena aurrez eman behar da ludotekan edo Gazteria Zerbitzuan, eta 10 euro ordaindu; azken eguna hilaren 21a da.

Jolas parkea kiroldegian

Bestalde, Gabonetako jolas parkera gurean ere jarriko dute, Ibarra kiroldegian, hain zuzen, abenduaren 26an. Kiroldegiko bazkideendako debalde izango da sarrera eta gainerakoendako, berriz, 5 euro.

Eta abenduaren 27an uretako puzgarriak izango dituzte neska-mutikoez kiroldegiko igerilekuan.

OHARRAK

PAGOLAK ESANDAKOEN GAINEKO HAUSNARKETA

32. Teologia Kongresuan Jose Antonio Pagolak esandakoen gainean hausnartuko dute gaur Arkupen (19:30).

SORTUREN ERATZE BATZARRA

Sortu alderdiaren eratze proiektuaren bigarren batzarra egingo dute bihar, zapatua, Arkupen. Ponentziak Urbaltz tabernan dituzte.

BIDEZKO MERKATARITZA DENDA

Hiruatz elkarteko kideek bidezko merkataritza denda jarriko dute bihar udaletxe zaharrea (10:00-14:00), bihar, zapatua.

ZIRKU TAILERRA

8 eta 10 urte arteko neska-mutikoez zirkutailerra dute Arkupen (11:00-12:30).

IPIIN KONTAKETA

Enaitzen abenturak euskal mitologian ipuin kontaketa eskainiko dute bihar liburutegian (11:00).

GABON KONTZERTUA

Musika eskolako kideek Gabonetako kontzertua eskainiko dute martitzenean (17:00) parrokian. Taldeka hartuko dute parte: gitarra-joleak, trikitalariak, banda...

Abenduaren 13an, 20an eta 27an
Mitarte kalean, GAZTAINA ERREAK salgai !

Egun horietan, Aretxarte elkarteko
edozein dendatan erosketa egiteagatik
POLTSA BAT GAZTAINA DOAN.

Abenduaren 22an Durana kalean,
3 OTARRE ZOZKETATUKO DITUGU!

Eta honetaz gain... **SARI BEREZIA:**
Globoan bidaia, afari mundiala eta
hotelean gaua gosariarekin 2 pertsonentzat

ANTOLATZAILEA



Laguntzailea



ESKERRIK ASKO
urte hauetan eman diguzuen konfiantzagatik!

JAI ZORIONTSUAK!



OHARRAK**UMEENDAKO EKIMENAK**

Bihar, 17:00etan, *Marraztu Gabonak* ekimena dago pilotalekuan, eta 17:30ean, *Hiru, bi... zast* emanaldia. Jarraian, txokolate-jana dago plazan.

KIROL HITZORDUAK

Partidu bi daude bihar: 10:30ean, herriko gazteak Andraitz taldearen kontra lehiatuko dira, saskibaloian; eta 18:00etan, areto-futboleko lehen erregionaleko norgehiagoka Eskoriatza eta Laudioko Harrobia artean.

'TI TAU!' LEHIAKETA

Eingeinkek antolatuta, *Ti Tau!* film laburren lehiaketa dago etzi. 09:30ean hasi eta egun osoa iraungo du.

'HERRIXA DANTZAN'

Etzi, *Herrixa dantzan* izango da unibertsitatean, 18:30ean.

ATXORROTZEKOA IKUSGAI

Astelehenetik egubakoitzera Atxorrotzeko erakusketa dago Ibarraundin. Azken indusketan lanetan aurkitutako egongo da ikusgai.

PIN-ERA IRTEERA

Hilaren 3an Bilboko PINera doaz 8 eta 12 urte artekoak. Hilaren 21a baino lehen eman behar da izena ludotekan edo Gazteria Zerbitzuan.



Eguaztenean egin zuten lehen batzarra, Ibarraundi museoan; irudian, kultura eta jaietako taldea. | MIRIAN BITERI

Kulturako batzarrarekin hasi dira herriko beharrak aztertzen

Udalak aurrekontuak osatzeko bilerak egiten dihardu

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurrekontuak guztiz zehaztu aurretik, Udalak eskoriatzarren iritzia jakin gura du aurten ere, eta, hori dela-eta, batzarrak egiten hasi da. Eguaztenean egin zuten lehena; hain justu, kultura arlokoa. Aretora sartzean, parte-hartzaileek mapa batean nongoak ziren jakinarazi behar zuten;

gehienak kalekoak ziren, Marin eta Mazmela elizateetakoak baziren ere. Batzar guztietan jasotako datuak aztertuko ditu gero Udalak, datozen urteotan egingo diren batzarretara auzo eta elizate guztietako eskoriatzarrak erakartzeko.

Beñat Hercek hartu zuen jarraian hitza. Amaitzean dagoen

urtearen balorazio laburra egin ostean, jakinarazi zuen datorren urteko kontuetan gastu korrantea sarrera korranteen kopurura egokitzen saiatuko direla, eta arlo ezberdinetako eskaerak mantentzen saiatuko direla. Berbaldia amaitzean, hiru taldetan banatu ziren: hain justu, kultura eta jaiak, euskara eta liburutegia eta

hezkuntza eta gazteria. Mahai bakoitzaren bueltan, arlo bakoitzeko teknikari eta zinegotziak izan ziren. Aurten ondo eginda-koak eta hobetzekoak aztertu zituzten, eta datorren urteko lehentasunak zehaztu. Batzarra amaitu aurretik, balorazioa egiteko aukera egon zen: giroa, erabilitako metodologia eta emaitzak.

Kulturako bilera eguaztenean egin bazen ere, gainerakoak datorren astean izango dira: astelehenetan, hilak 17, kirol arlokoa egingo dute, 18:30ean. Martitzenean, ostera, 19:00etan, ingurumenaren eta turismoaren gainean jarduteko aukera izango da; eta eguaztenean, abenduak 19, gizarte ongizateaz, 17:00etan. Batzar guztiak Ibarraundi museoan izango dira.

Erakusketan 15 proiektu

Batzarrez gain, datorren urterako aurreikusten diren proiektu esanguratsuenen gaineko erakusketa zabalduko dute datorren astean Ibarraundin. Denera, hirigintzarekin lotutako 15 proiektu aurkeztuko ditu Udalak, hala nola erdiko kaleetako asfaltatzea, antzokia amaitzea, gimnasioa handitzea eta hilerrira doan aldapa leuntzea. Eskoriatzarrek horien gainean duten iritzia jakinarazteko aukera izango dute.

Astelehenetik egubakoitzera bisitatu ahal izango da, 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara bitartean.

PREZIO PAREGABEAK

ESKORIATZA

Elorreta Auzoa (erdigunetik oso gertu)

Azken etxebizitzak
%4ko BEZarekin

AUKERA APROBETXATU!

Informa zaitetz

www.sukia.com

sukia

Zure etxean zaude.

943 10 95 95

Karta-jokoak, afaria txistorra-jana eta kina erretiratuen elkarte

Gaur, karta-jokoak izango dira: puntxoak, briska, tutea eta musa. Irabazten duen bikotea bailarako txapelketara joango da. Abenduaren 19an, 20:00etan, elkarteko tabernan lan egin dutenen afaria egingo da; 40 boluntario inguru. 22an, txistorra banatuko dute elkarte, 17:00etan; ondoren, kina izango da. Izena eman behar da tabernan.

Antzuolak Lazkao hartuko du zapatuan Eztalako zelaian

Lider jarraitzen du Antzuolak, 24 punturekin, eta bi puntura dauzka Getariako eta Mutriku. Zapatuan, baina, bosgarren postuan dagoen -21 puntu -Lazkao taldearen aurka neurtu beharko ditu indarrak. Bada, irabaztea garrantzitsua da lehenengo postuari eutsi nahi badiote antzuolarrek. Partidua 15:45ean da, zapatuan, Eztalan.

'Barrura begiratzeko leihoak' dokumentala gaur ikusgai

Ez dut moztuko bizarra! taldeak antolatuta izango da ikusgai *Barrura begiratzeko leihoak* filma gaur Torresoroan, 20:00etan.

Eneko Olasagastik, Josu Martinezek, Txaber Larraetegik, Enara Goikoetxeak eta Mireia Gabilondo bergararrak zuzendu dute dokumentala. Bakoitzak istorio bat kontatu du lanean.

Gazte txokoak aste bukaeran zabalduko dituzte

2012-2013 ikasturteko atea irekiko dituzte gazte txokoak zapatuetan, 17:00etatik 21:00etara; domeketan, 20:00ak arte. Martxoaren 24ra arte egongo da zabalik asteburuetan. Baita Gabonetako jaiegunetan ere -abenduaren 22an eta 23an eta 29an eta 30ean-. Lau begiralek egingo dute lan 12-15 urteko gaztetxoekin, asteburu txandatu.

OHARRAK

ERAKUSKETA

Xinkonan umeez egindako eskulanean erakusketa asteburu, 18:30etik 20:30era.

UZARRAGA BIZIRIK

Uzarragaren egoera eta plangintza aurkeztuko dute Uzarraga Bizirik taldeko kideek hilaren 20an. Batzar irekia arratsaldeko zazpietan da, Olan etxean.



Iaz, Musika Eskolako Antzuolako ikasleen emanaldia, Torresoroan. | MARIJE UGALDE

Herriko 50 bat gaztetxo Gabonetako kontzertuan

Aurten ere, Bergarako Musika Eskolako umeen emanaldiaz gozatzeko aukera izango da Torresoroan

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Gabonak ate joka ditugula-eta, Bergarako Musika Eskolako Antzuolako gaztetxoek urtean zehar ikasitakoa eta prestatutakoa

erakusteko eta entzuteko aukera ezin hobea izango da. Izan ere, Gabonetako kontzertua ia gertu dute musika ikasleek. Astelehenean, abenduaren 17an, Torre-

oroan egingo dute emanaldia, 18:30ean hasita. Antzuolako eta Bergarako hainbat ikasleren eskutik gozatu ahal izango da urteroko musika hitzordua.



Sorturen eratze prozesuko lehen batzarra. | PATXI OLABARRIA

Sortu eratze bigarren batzar irekia bihar

M.A. | ANTZUOLA

Abenduaren 1ean egin zuten antzuolarrek Sortu alderdiaren eratze prozesuko lehen batzarra Olanen. "26 lagun elkartu ginen eta oso ondo joan zen bilera: gerturatu ziren herritarrek parte-hartze handia izan zuten eta landutako edukiak interesgarriak izan ziren", azaldu digute eratze prozesuko bultzatzaileek.

"Helburu estrategikoen inguruan hausnartu genuen. Hurrengo batzarrean helburu estrategikoko horiek lortzeko jarraitu

beharreko bidearen inguruan jardungo dugu; hau da, ildo politikoaren inguruan", gaineratu digute.

Hala, bigarren herri batzarra abenduaren 15ean, zapatuan, izango da, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bata bitartean, Olanen. Azpimarratu dute herritar orori zabalik dagoen prozesua dela.

Esan behar da bihar haurtzaindegi zerbitzua egongo dela, behar dutenendako. Bada, asma da datorren bileran ere haurtzaindegi zerbitzua jartzea.

50 gaztetxo zuzenean

"Gaur egun Antzuolako 50 ikasle inguru ari dira musika ikasten; hainbat instrumentu jotzen dituzte, gainera", azaldu digu Marije Ugaldek, Bergarako Musika Eskolako zuzendariak. Horiek guztiak agertokian ikusiko ditugu asteleheneko emanaldian.

"Gitarra, pianoa, biolina, akordeoia, txistua, txeloa, tronboia, tuba, alboka eta abeslariak entzuteko aukera izango da. Egitarau oparora prestatu dugu", gaineratu digu Ugaldek.

Askotariko doinuak

Nagore Sanzek egingo ditu zuzendari eta gidari lanak Gabonetako kontzertuan. Eta egitarauan askotariko Gabonetako kantuek dade; guztiak oso ezagunak eta herrikoiak; ikuslea dantzan eta kantuan jarriko dutenak, zalan-tza barik.

Besteak beste, *Hator hator* eta *Mundu berri bat nahi nuke* kantuek abestuko dituzte ahots teknikako eta hizkuntza musikaleko ikasle gazteek.

Baina aurretik etorriko dira musika instrumentuen erakustaldia egingo duten zuzendariak -piano, biolin, gitarra, akordeoi eta txistuaz lagunduta-: *Biribil-keta*, *Izartxo bat*, *Bi doinu*, *Lantzeko Ihauteriak*...

Baina, nola ez, ingelesezko bertsio ezagunekin ere animatu dira eta ziur dantzan jarriko dituztela gurusoak eta bertaraten diren senide zein lagunak ondorengo doinuekin: *Gavotte*, *Little brown jug*, *Calypso joe*...

Hori guztia, astelehenean, 18:30ean hasita, Torresoroan.

Stupenda Jones eta Turbo Shit taldeen rock gogorra entzuteko aukera gaur

M.A. | ANTZUOLA

Rock zaleek hitzordu ezin hobea dute gaur gaztetxean, 22:30ean hasita, Stupenda Jones nafarren eta Turbo Shit bergararren gitarra riff-ak entzuteko aukera izango dute-eta.

Rock-and-roll gogorra eta azkarra egiten dutela diote Olzagutiatik datozen Stupenda Jones taldeko mutilek. Busti egingo dira, gainera, euren letra konprometuekin, eta ez dute inor axolagabe, epel utziko.

Bergararrak ere ez dira atzean geratzen eta ez dute gaztetxea

hotz utziko euren punk-rock azkarraren astinduekin.

Maiatzean kaleratu zuen Turbo Shitek lan berria, eta indartsu datoz azken lana aurkeztera. Sarrera doakoa da.

'Bertso musikatuak'

Abenduaren 23an, domekan, berriz, *Bertso musikatuak* egingo dituzte gaztetxean, 21:30ean. Besteak beste, Xalbador, Lazkao Txiki, Andoni Egaña eta Amets Arzallusen bertsoak abestuko dituzte musikaren laguntzarekin. Sarrera doan izango da.



IGELTSEROTZA

Ibon Zabalo
Iban Iraeta

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
Mugikorrak:
615 76 56 50 / 615 76 56 51
zabalos@hotmail.com

ZAHAR BERRITZEAK:

Birgaitzeak

Fatxadak

Teilatuak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Antzerkiaz gozatzeko aukera gaur eta bihar

J.B. | ARAMAIO

Haur zein helduek antzerkiaz gozatzeko aukera izango dute aste bukaeran.

Gaur haurrendako txanda izango da. Panta Rhei antzerki taldearen eskutik *Tira! Aurrera!* antzezlanak ikusi ahal da gaur Kultur etxean, 17:00etan. Aktoreek zein txo-xongiloek hartzen dute parte obran. Pailazo baten istorioa kontatzen du, hiriak bazter-tuta bizi diren haurrak lagundu nahi dituen pailazoaren bizitza. Heziketarako helburu argia du antzezlanak.

Bihar, bestalde, *Euskazatemol* obra ospetsua iritsiko da Kultur etxera (22:30), Txirritola euskara elkartearen eskutik. *Euskazatemol*, Ez Dok Hiru Bikoteatroak *Dibertimentuak* izenez bataiatu zuen trilogiaren azken alea da: "Antzerkiaz tutik ez dakigun arren, gutxienez hirura arte kontatzen badakigu", diote Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek. 2009an estreinatuta zuten obra eta bihar helduko da Aramaioara; euskara eta umorea uztartzen dituen antzezlanak da.

Frankistek 'Lurgorri' erail zutela 75 urte beteko dira domekan

Gudari jeltzalearen sendiak ekitaldi xumea egingo dio haren oroitarrian (13:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

1937ko irailean heriotza-zigorra kondenatu eta 1937ko abenduaren 16an fusilatu zuten Derioko kanposantuko hormaren kontra. Domekan 75 urte beteko dira Jose Mari Azkarraga Mozo *Lurgorri* erail zutela. Aramaio-rikiko lotura ezin hobeto islatzen du honako bitxikeriak: "Zirilo Mondragon aramaioarra nire osabarekin batera zegoen ziegan. Guardiaren bila joan zirenean, nire osabak Zirilori bere jertsea eskatu zion, Aramaiokoa zelako. Jertse horrekin fusilatu zuten; azken unera arte Aramaio barruan eraman zuten", adierazi digu Jose Mari Velez de Mendizabalek, *Lurgorri*-ren ilobetako batek.

Gerra garaian familia osoak alde egin behar izan zuten, eta, Franko hil ostean, 1976an, mugimendu bat sortu zen *Lurgorri*-ren lana eta figura aldarrikatzen: "1935ean osabak Madrildik egindako lana goraiatu gura izan zuten. Izan ere, haren aldarrikapenetako bat izan zen Euskal Herriak bere unibertsitatea izatea. Bada, 1976an osabaren aldeko lehen ekitaldi publikoa egin zen Gasteizen; han izan zen, besteak



Aramaioko etxean, 1929an. | J.M.V.D.M.

beste, Koldo Mitxelena, gerora lehen errektorea izango zena", dio Velez de Mendizabalek.

Eragile eraginkorra

EAJn aritu zen gudaria, politikaria eta gerrako berriemailea. Baina batez ere euskal abertzale-tasunaren eragile nabarmena izan zen *Lurgorri*: "Ondokoengan eragin handia zuen, eragile ikaragarria zen. Hizlari ona, mutil ederra -hainbat emakumek berretsi dida-

te hori- eta bere inguruan talde polit bat eratzeko gai izan zena". Erail zutenean 21 urte eskas izan arren ibilbide aberatsa izan zuen. Haren lorpenetako bat izan zen, esaterako, Tellamendiko gurutzea: "Eskaera egin zuten eta lagunekin batera jaso zuten gurutzea Tellamendira, 1935ean".

Madriren ikasia, eta abertzalea

Madriren ikasi arren, abertzalea zen: "Aramaioar asko harritu ziren Madrildik ikasketekin zetorren tipo bat abertzalea zela eta harekin kontu zitekeela ikustean. Hau da, abertzaletasuna ez zen lau base-rritarren arteko kontua".

2003an Aramaioak omenaldi ofiziala egin zion eta orduan kale bat eskaini zitzaion. Etxikoa, baina, ekitaldi xume bat izango da. Familiak antolatu du, Udalarekin edo EAJrekin kontatu barik: "Gogoratuko dugu 75 urte betetzen direla erail zutenetik. Lehengusu batek dantza egingo dio eta Joseba Azkarraga ilobak ere berba egingo dugu. *Lurgorri* eta haren inguruan aritu zirenak gogoratuko ditugu". Herritar oro dago gonbidatuta; 13:00etan izango da, haren omenezko oroitarrian.

'Barrura begiratzeko leihoak' dokumentala etzi kultur etxean

Bost euskal presoren istorioak hizpide dituen *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala ikusteko aukera egongo da domekan kultura etxean, 18:30ean. Preso bakoitzaren istorioa zuzendari batek kontatzen du; Eneko Olasagasti, Josu Martinez, Txaber Larrea-tegi, Enara Goikoetxea eta Mireia Gabilondo dira zuzendariak. Olasagastik Arrasateko estreinaldian adierazi zuten filma alde bakarrekoa dela, baina ez dela alde bakarrendako egin.

Aitor Montes hitzaldia diabetesaren gainean hilaren 18an

Alaiak erretiratu taldeak diabetesaren gaineko hitzaldia antolatu du: *Vivir con la diabetes*. Diabetesa zer den, diabetesa duenak zer egin dezakeen, norberak nola jakin diabetesa duen edo ez, diabetesaren gaineko tratamenduak eta beste hainbat gai landuko dira hitzaldian. Aitor Montes Aramaioko medikuak emango du hitzaldia. Datorren martitzenean izango da, hilak 18, kultura etxean (18:00). Agertzen direnen artean opari bat zozketatuko da.



Sukaldeko altzariak eta osagarriak






BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxes: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com

LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxes: 943 515757

www.servimasa.com

Alda ezazu zure sukaldeko zorua obrarik egin gabe. 25 urteko bermea. Informa zaitez!



Sukalde eta bainuentzako zoru laminatu berezia



LOFT GOA

1186 x 2024 x 8



LOFT TOSCANA

1186 x 2024 x 8



ELGETA

Herri osorako wi-fi sarea errealitate bihur daiteke

GipuzkoaShare-ko kide batek proiektua aurkeztuko du Elgetan eguaztenean

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak herri osorako wi-fi sarea sortzeko aukera ikusten du. *Gui-fi.net* proiektuko kide GipuzkoaShare-k egingo luke hedapena. Proiektuak 7.260 euroko inbertsioa dakar: Udalak 2.294 euro ipiniko lituzke, Gipuzkoako Foru Aldundiak 4.966 euroko dirulaguntza ematen baitu.

Egitasmoa zein den azaltzeko eta herritarren artean sor daitezkeen zalantzei erantzuna emateko, GipuzkoaShare-ko kide bat Elgetan izango da eguaztenean, hilak 19. Batzar informatzailea deitu dute 19:00etarako, udaletxean.

Kostua herritarrendako

Internet konexio horretara helteko atari bakoitzak 350 euro inguruko kostua duen gailu bat ipini beharko luke antena kolektiboan. Gero, konexioa eskaintzen duen agentearekin hitzartu beharko litzateke Internetarako konexio kuota. "Asmoa da kuota soziala izatea", adierazten dute bultzatzaileek; "hilean 10 euro baino gutxiago".



Domingo Iturbeko lanak, atzo. | L.Z.

Urtarrilean jarraituko dituzte lanak

Azkenaldian ez da mugimendurik Domingo Iturbeko lan eremuan. Elgetako alkate Oxel Erostarbek asteon egindako Eskola Kontseiluan azaldu duenez, urtarrilean ekingo diete, berriz ere, lanei. Esan duenez, Udala Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren ebazpen baten zain egon da; 317.000 euroko dirulaguntza, hain zuzen ere. Ebazpena abenduaren 28an egingo du publiko Jaurlaritzak. Hormigoizko horma eta harmailak egitea, gune osoa urbanizatzea, frontoi zaharra barrutik txukuntzea eta eskolako ortua egitea falta da.

Hasiak dira truke azokarako jostailuak batzen

L.Z. | ELGETA

Udalak Gabonetako jostailu truke azoka antolatu du. Proposamena da trukatzeko interesatzen zaizkigun jostailuak abenduaren 21a baino lehen ludotekara edo liburutegira eramatea. Kontuan hartu jostailuek egoera onean behar dutela. Jostailu bakoitzeko txartel bat jasoko dugu.

Txartel hori abenduaren 23an, 11:00etan hasita plazan egingo den azokan beste jostailu baten truke aldatzeko aukera izango dugu.

OHARRAK

HERRI BATZARRA

Sortu alderdi politikoaren ildo politikoak zehazteko batzarra. Gaur, barikua, 19:00etan, kultura etxean.

KONTZERTUA ESPALIOAN

BC Bombs, Rat-Zinger, Frydays Crews eta Screammers and Sinners taldeak zapatuan, 22:30ean. Sarrera 6 euro; bazkideek 4.

MARGO ERAKUSKETA

Kontxi Idigoras elgetarrak margo erakusketa zabalduko du Espaloian astelehenean.

ELGETA KANTUAN

Hilaren 23an bigarren saioa egingo dute, 13:00etan hasita. Entseguak hasita daude.

Erretiratuak Gabonetako ekintzetan murgilduta

Bada mugimendua Xalbadorpe elkartearen. Astelehenean Gabonetako bingoa egin zuten —argazkian— eta 30 lagunetik gora elkartu ziren. Eguaztenean, berriz, Alai abesbatzaren kontzertua izan zuten, eta gaurko, barikua, luntxa iragarri dute, 18:00etarako, Ozkarbi elkartearen.



L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Gabon kantua eta talo tailerra dituzte Gurelekoek urtea bukatzeko

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Gurel guraso elkarteko kideak Gabon egunetako kontuak antolatzen hasita daude. Urtero legez, kantuan joango dira Gabon egunean, abenduaren 24an, umeak eta gurasoak. Lehenengo, baserri baserri egingo dute bueltatxo, taldetan banatuta eta trikiti doi-nuak lagun dituztela; batzuk,

Goierrri auzorantz eta besteak, Olaun aldera. Eta ondoren, kalean elkartuko dira guztiak, bertako txoko eta bazterrak Gabon kantuekin alaitzeko.

Taloak egiten ikasi

Gabonetan oporrak hartuko dituzte ludotekako eta liburutegiko lagunek, abenduaren 21ean, bai-

na beste ekintza batzuk egiteko aprobeztatuko dituzte opor egunok Gureleko kideek. Hala, lehen atzeratu beharrean izan ziren talo tailerra egingo dute. Talo goxoak zelan egin erakutsiko diete neska-mutikoei hainbat herritarrek. Horretarako eguna ez daukate guztiz zehaztuta, baina, seguru asko, abenduaren 27an izango da.

Eta beste egun batean kanpora irteeratzoren bat egiteko asmoa daukate; baina horren berri aurrerago emango dute.

IX. PILOTA TXAPELKETA

Ligaxkako azken partidua

Beteranoen Gabonetako pilota txapelketa azken txanpan da; izan ere, aste bukaeran jokatuko dira ligaxkako azken partidua. Antolatzaileek jakinarazten dute hilaren 21eko afarian parte hartu nahi dutenek abenduaren 16a dutela izena emateko azken eguna.

Umeek, berriz, gaur hasiko dute Gabonetako pilota txapelketa. 17:30ean hasiko dira norgehiagokak pilotalekuan.

AZKEN EMAITZAK

Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga	22-12
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua	19-22
Haritz Makarro-Mikel Ormaetxea / Oskar Sarasua-Iñaki Olaortua	22-21

GAURKO PARTIDUAK, 19:00ETAN HASITA

Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga / Asier Morales-Fernando Zenitagoia	
Jose Mari Zubiaurre-Iñaki Ugarteburu / Jabier Bolinaga-Iñaki Izagirre	
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Pello Larrea-Mikel Elkorro	
Sergio Bouzas-Jon Irazabal / Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe	
Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Mikel Ormaetxea-Haritz Makarro	

DOMEKAKO PARTIDUAK, 10:30EAN HASITA

Igor Irazabal-Enrike Elkorro / Pello Larrea-Mikel Elkorro	
Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Iker Irazabal-Jabier Larrañaga	
Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta / Ibon Untzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga	
Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Iban Retolaza-Diego Cantabrana	

Areto futbol txapelketa bizkorra antolatu gura du Udalak, eta Kantsatzekek batzarra egingo du

Udaleko Kirol batzordeak pare bat aste bukaerako iraupena izango duen areto futbol txapelketa antolatu gura du urtarrilerako. Jakiteko zenbat talde dauden parte hartzeko prest, batzar irekia deitu dute gaurko, barikua, 19:00etan, udaletxean. Kantsatzeke mendi taldeak, berriz, eguaztenean, hilak 19, urteko batzar orokorra egingo du, 19:30ean, liburutegian.

Gabon zoriotsuak, guztioi!



Salbador kalea 5, behea. ELGETA

Gabonetako enkarguak hartzen dira
669 95 25 63

ZIKLO-KROSA

Elite mailako ziklistak, Oñatira

Abenduaren 23an egingo duten lasterketan puntako ziklistak batuko dira San Martinen

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Ziklo-krosa bai, eta puntakoa, gainera. Halako hitzordua presatu dute Aloña Mendiko ziklismo saileko lagunek abenduaren 23rako. Oñatin kirol horren aldeko apustua egitea erabaki zutenetik (2010) aurrerapauso handiak eman dituzte, bai etxeko taldea sortzen –Arrikruz Oñatiko Kobak–, eta baita urteroko lasterketa antolatzen ere. Baina azken pausoa falta zen, onenak –elite mailakoak– Oñatira ekartzea. Hala, aurreko edizioetan gazteak eta

beteranoak egon izan dira, baina eliteen kategoria ekartzeko koska bat geratzen zen: "Nahiago dugu pausoak poliki-poliki eman, eliteak ekartzeko antolaketa lan handiagoa behar delako", zioen orduan Pedro Irurtzunek. Bada, eman dute pausoa, hilaren 23an Euskal Herriko egutegi barruan dagoen hitzordua hartuko dutelako.

Asteburuan atsedena
Igorreko lasterketa entsutetsuaren ondoren, ziklistek oraingo asteburuan atseden hartuko dute.



Osintxun egin zituzten lasterketatik ez genituen onenak gurean ikusten; Oñatin izango dira orain. | JOSETXO ARANTZABAL

Igorren Aitor Hernandez (Orbea) izan zen onena, Egoitz Murgoitio (Hirumet) bigarren eta Isaac Suarez (Bio-racer) hirugarren. Eta podiumetik gertu egon ziren Ake-

tza Peña, Constantino Zaballa eta Javier Ruiz de Larrinaga ziklista ezagunak. Hala, Oñatin batuko dira osterera ere guztiak. Aipatzekoa izango da, baita ere,

Oñatik izango duen ordezkari, zortzi herritar izango direlako lasterketan, maila ezberdinetan banatuta. Eta ibarreko ziklistak ere egongo dira.

ATLETISMOA

Ibarreko koadrilei deia, domekan Arrasaten arineketan egiteko

Santamasetako koadrilen arteko krosak 35 urte beteko ditu

XABIER URTZELAI | ARRASATE
Urteurren borobila beteko du domekan (12:30) Santamasetako koadrilen arteko lasterketak: "Dena dela, gu gaztetxoak ginenean ere korrika ibiltzen ginen Santamas eguna aurreko domekan", diosku Fernando Zufiria: "Hitzordua ez da aldatu, baina orduan gaztetxoendako lasterketak izaten ziren, eta, nagusiendako koadrilen artekoa antolatzen hasi ginenean, izena aldatu eta zerotik hasi ginen ostera". Hala, lasterketa horrek urte mordera baditu ere –iaz fotozaharra erakutsi genizuen–, egia da koadrilen arteko parte-hartzearekin 35 urte beteko dituela lasterketak: "Taldeak osatzeko bost laguneko koadrilak behar dira. Lehenago oso emakume gutxi etortzen ziren, eta zailtasunak izaten zituzten koadrilak osatzeko. Azken urteotan, berriz, gehiago etortzen dira, eta gizonetako zein emakumezkoek sari berdinak jasotzen dituzte". Hau da, koadrila azkarrenarendako lagun artean jateko bildots ederra –badira sari gehiago.

Lasterketa 12:30ean hasiko dute –gaztetxoek probak 11:00etan hasiko dituzte eta izen-ematea lasterketa aurretik egin ahal izango da–. Aurten korrikalariak 5 euro ordaindu beharko dituzte: "Erabaki hori hartu dugu lasterketa hau antolatzeko klubak dirua xahutzen zuelako, oparietan eta halakoetan. Eta, 5 euro ordainduta, kostu horri aurre egin ahal izango diogu". Ez da diru asko, gainontzeko herrietako lasterketa gehienetan gehiago kobratzen dute. Eta noski, ez da aitzakia domekan Portaloiko irteera puntuan ez ekartzeko.



Herritarrek iazko lasterketan, lehen metroetan. | XABIER URTZELAI

ORDUTEGIA

ORDUA	ADINA	DISTANTZIA (M)
11:00	13-14	800
11:10	11-12	600
11:20	10	400
11:30	9	400
11:40	8	175
11:50	7	175
12:00	5-6	100
12:30	Koadrilen artekoa	6,4 km

ESANAK

"Lehenago ere egiten ziren lasterketak, gaztetxoek"

"Bost euro ordainduta gastuei aurre egingo diegu"

FERNANDO ZUFIRIA | ANTOLATZAILEA

FUTBOLA

Luis Herzogen omenezko Gabonetako gazte mailako torneoaren 29tik 31ra arte

X.U. | ARRASATE
Bergarako Ipintza eta Agorrosin futbol zelaiek gazte mailako Gabonetako futbol torneoaren hartuko dute aurten ere. Hala, kanporaketa partiduak Ipintzan jokatu dituzte, eta hilaren 31ko finala, berriz, Agorrosin –Iaz Realarrendako izan zen txapelketa, Aretxabaletako gazteen kontra final ikusgarria jokatu ostean–. Aurten, txapelketa egongo diren taldeak dira

Bergara, Reala, Aretxabaleta eta Eibar.

Hala, hilaren 29an (zapatua), 16:15ean, Bergarak eta Realak jokatu dute (hasieran, 16:30ean jokatu behar zuten partidu hori, baina Reala ikustera Anoetara lasai joan ahal izateko norgehiagoka aurreratu dute). Domekan, berriz, Eibarrek eta Aretxabaletak jokatu dute, 17:00etan. Eta finaleko partidua abenduaren 31n izango da, 16:00etan.

ATLETISMOA

Ointxe! saskibaloitza taldeak gazte mailako Gabonetako txapelketa egingo du

X.U. | ARRASATE
Asteburuan egin duten Euskadiko txapelketa arrakastatsuen ondoren, klubeko ordezkariak lanean jarraitzen dute, Gabonetan Ointxe! saskibaloitza taldeak antolatzen duen gazte mailako txapelketa bost urte beteko dituzte. Aurten, txapelketa egongo dute, eta klubeko arduradunak dagoeneko

lanean dabilta egun horietan gazte mailako punta-puntako saskibaloitza taldeak gurera gonbidatzeko.

Horietako talde batzuk dagoeneko klasiko bilakatu dira, baina badira berriak; tartean, Baloncesto Getafe izeneko taldea. Iaz, berriz, Donostiako Easo izan zen onena; abenduaren 28an jokatu zuten finalean 80-65 nagusitu ziren.

SASKIBALOA

Bergarako kiroldegia eta pilotalekuak saskibaloitza txapelketa hartuko dituzte

X.U. | ARRASATE
Bergarako Saskibaloitza Elkarteak Gabonetako oporrei begira dabil, eta, iaz bezala, aurten ere hainbat torneo egingo dituzte harrobia lantzeko –eta Gabonak girotzeko– helburuarekin.

Hirukoa, frontoian
Abenduaren 26an Gabonetako hiruko saskibaloitza txapelketa

egingo dute frontoian, eta txapelketa hori benjamin eta alebin mailetako jokalariei zuzendutakoa izango da. Hala, egun horretan pilotalekua kantxa handi bilakatuko da, eta hainbat saski jarriko dituzte saskibaloian jokatzeko –iazko giroa apartekoa izan zen–. Hilaren 29an eta 30ean, berriz, infantilek txapelketa izango dute Labegaraietan.



Hernaniren kontrako partidu ona zoriontzen; bolada onean da Bergara. | J.A.

SASKIBALOIA

Ander Gartzia, 'MVP', Urretxuren kontrako partiduagatik

X.U. | ARRASATE
Natra Oñati saskibaloitza taldeko Ander Gartzia partidu oso ona egin zuen joan den astean Aluminios Alberdiren kontra, eta erasoan egindako lan hori ez da ustekabeen pasa. Hala, 28 puntu eta 9 errebote lortuta jardunaldiaren amaieran Bergarako izendatu zuten asteko jokalaririk onena moduan; alegia, MVP (*Most Valious Player*). Hala, Bergarako batez beste 20 puntu lortu ditu orain arteko sei partiduetan.

Asteburuan, Oñatiko mutiak Valladolidera abiatuko dira, bihar 18:00etan izango dute partidua.



Ander Gartzia. | GOIENA

FUTBOLA

Gabonen aurretik lanak burutzen joateko azkenurreko aukera

X.U. | ARRASATE
Ganean dira Gabonak, baina oporrak hartu aurretik Ohorezko erregional mailako ordezkariak bi jardunaldi jokatu beharko dituzte. Oraingo asteburuan denak izango dira etxean.

Ibarreko bi talde kategoriako oilar bilakatzen ari dira, Bergaraz (25) eta Aretxabaletaz (23) ari gara. Mahoneroek azken lau partiduetan irabazi egin dituzte -tartean lider dagoen Hernaniren kontra- eta dagoeneko hirugarren daude. Aretxabaleta ere bolada onean da, azken hirurak irabazita. Hala, Bergarako beste oilar baten bisita izango du bihar, bigarren dagoen Real Unioneoak

izango dira Agorrosinen. Aretxabaletak, berriz, Zarautz izango du aurrean.

Aloña eta Mondra

Azken asteotan Arrasatekoek buelta eman diote egoerari, eta *lasaitasun* postuetan daude. Etxe-ko bolada negargarria gauditu-ta, sailkapenaren erdian kontrario zuzena den Hondarribiaren bisita izango Mondragatik (15) Mojategin. Azkenik, Aloñak (14) gutxi-gatik ez zuen joan den astean Real Unionen zelaian ezustekoa eman (2-3). Etzi, berriz, Urolaren kontra Azkoagainen jokoa eongo diren puntuak lotu behar dituzte derrigor.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAKU. BIGARREN MAILA
Eibar-Mondra
Domeka. 15:30. Unbe.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA
Lekeitio-Aretxabaleta
Domeka. 16:30. Larrotegi.

OHOREZKO ERREGIONALA
Aretxabaleta-Zarautz
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Hondarribia
Domeka. 16:30. Mojategi.
Aloña Mendi-Urola
Domeka. 16:30. Azkoagain.
Bergara-Real Union
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Antzuola-Lazkao
Zapatua. 15:45. Estala.

LEHEN ERREGIONALA
Aretxabaleta-UDA B-Arizmendi
Zapatua. 18:00. Ibarra.
Eibartarrak B-Bergara B
Domeka. 17:00. Unbe.

OHOREZKO GAZTEAK
Ostadar-Mondra
Zapatua. 15:30. Lasarte Oria.
Billabona-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Arratzain.
Euskalduna-Bergara
Zapatua. 15:30. Andoain.

GAZTEAK
Aloña Mendi B-Zestoa
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Bergara B-Arizmendi
Zapatua. 17:00. Ipintza.
Urki-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Almen.

OHOREZKO KADETEAK
Elgoibar-Bergara
Zapatua. 12:00. Mintxeta.
Aloña Mendi-Urola
Zapatua. 11:00. Azkoagain.

Lagun Onak-Aretxabaleta UDA
Zapatua. 12:45. Azpeitia.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Eskoriatza
Atsedena.

LEHENENGO MAILA
Aretxabaleta-Bilkoin Legorreta
Gaur. 20:00. Ibarra kiroldegia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Ford Mugarri-Ereintza Aguap.
Zapatua. 17:00. Iturripe.
Escalopios-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Bilbo.

EUSKADIKO TXAPELKETA, EMAKUMEZKO SENIORRA
Aloña Mendi-Pulpo
Zapatua. 16:00. Andoain.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA
Ordizia-Izarraitz Aloña
Domeka. 12:15. Majoria.

GIPUZKOAKO BIG. TXAPELK.
Usurbil-Arrasate
Zapatua. 18:00. Usurbil
Bergara-Gabaz Elgoibar
Zapatua. 16:30. Labegaraiaeta.

GAZTEAK, GIZONEZKOAK
Aloña Mendi-Bergara
Domeka. 12:00. Zubikoa.

KADETEAK, GIZONEZKOAK
Orereta-Soraluce BKE
Zapatua. 17:30. Errenteria.

KADETEAK, EMAKUMEZKO.
Eibar B-Aloña Mendi B
Domeka. 11:00. Ipurua.

SASKIBALOIA

EBA
Valladolid-Natra Oñati
Zapatua. 18:00. Valladolid.

LEHEN NAZIONAL MAILA
Autocares Artieda-MU
Zapatua. 18:15. Iruñea.

SENIOR GIZONEZKOAK
Alde Zaharra-Soraluce BKE
Zapatua. 20:00. Donostia.
Atletiko SS-MU A
Zapatua. 20:30. Donostia.

SENIOR BIGARREN MAILA
Aloña Mendi-STL Azkune
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

SENIOR HIRUGARREN MAILA
Oiarzango Aitona-MU B
Zapatua. 16:30. Oiarzun.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Andraitz-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Legazpia.

GAZTEAK PARTAIDETZA
Alde Zaharra-Soraluce Berg.
Zapatua. 09:00. Donostia.

ERRUGBIA

SENIORRAK
Arrasate-Irun
Zapatua. 16:30. Mojategin.

GIPUZKOAKO TOPAKETAK
Benjamin eta alebinalak
Domeka. 10:00. Mojategi. Talde hauek izango dira: Arrasate, Hernani, la Unica, ATSS, Irun, Eibar, Zarautz eta Errioxa.

ATLETISMOA

KOADRILEN ARTEKO SANTAMASETAKO KROSA
Domeka. 12:30. Arrasaten. (Lehenago gaztetxoendako probak, ikus 28. orria).

PILOTA

SANTAMASETAKO TORNEOKO FINALAK
Zapatua. 11:30. Uarkapan.

ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

ROOMBA 620
350 € iRobot

GARBIGAILUA F-6012
340 € FAGOR

GARBIGAILUA F-7212
385 € FAGOR

GARBIGAILUA F-7212X
450 € FAGOR

GARBIGAILUA F-8212
430 € FAGOR

ONTZI-GARBIGAILUA LVF-13
399 € FAGOR

KONDENTSAZIOZKO LEHORGAILUA SF 820CE
399 € FAGOR

INDUKZIO PLAKA IF-33BS
430 € FAGOR

LABE PIROLITIKOA 6H-760AX
450 € FAGOR

INDUKZIO PLAKA HK-633220XB
450 € AEG

LABE PIROLITIKOA BP-3313091M
475 € AEG

INDUKZIO PLAKA EH651TK11E
465 € SIEMENS

LABE PIROLITIKOA HB7415AS551E
490 € SIEMENS

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren arabeko energia aurreztea.

A+ >>> 70%
A >>> 45%
B >>> 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Orduetgia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karmele Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Maria Maria Oihana Kris Pruden Jon Juan Joakina



Amaia Patxi Juan Andoni Judith M.Angeles Naiara Dionisio Itziar Jesus Meri Idoia Edurne Jesus Jon Eugenio Javier Aitor Tomas Jesus Antonio Jorge Eneko Guillermo Jose Itziar Enrique Karlos Gorka Jose Isidora Begoña Herritxe Juan Mertxe Tomas Maite Fernando Angel Alizia Alaitz Miren M.Luisa Eba Sonia Juan Maite Elena Etxea Gorka Aitor Ramon Inmaculada Jabier Vicente Ignacio Manuel Laurentino Iñaki Nuria Jabier Luis Gotzon Eñaut Joxe Olaia Antonio Amaia Olatz Milagros Felix Miren Dani Begoña Iñaki Iñaki Edurne Iñigo Ion Fernando Garbiñe Jose Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar



Astilerero erretegia bi lagumendako bazkaria + Balentziaga museorako bi sarrera goienakluba



Antonio Mari Izaskun Carlos Jesus Mikaela Ibai Amaia Gabriel Alejandro Rosa Kontxi Juan Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karmele Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze



Amaia Gabriel Alejandro Rosa Kontxi Juan Maider Eneko Agurtzane Mikel Esther Zuhaitz Inazio Xabier Unai M.Pilar Pablo Maite Leire Mikel Erika Amaia Enara Harkaitz Jotxo Itsaso Iñaki Andres Bakarne Maria Iratxe Jone Ulises Olatz Amaia Kontxi Lierni Eugenio Peru Julen Koldo Unai Mikel Irma Mikel Jose Josefina Mari Miren Begoña Maite Juan Irune Maria Joxe Oihana Jesus Karmen Inazio Karmele Amaia Jose Beatriz Blanca Juanita Nerea Jone Julian Eva Luis Jesus Melchor Bingen Xabier Irune Bittor Lia Jose Benito Jose Santiago Eneko Eba Ana Kontxita Esteban Miren Fran Josu Isabel Batirtze Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Maria Maria



Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena Dorleta Etor Amaia Asier Miguel Bixente Mikel Rexu Arantza Maria Juli Maria Maria Xabier Axier Montse Ubane Antonio Mari Izaskun Carlos Jesus Mikaela Ibai

Oihana Kris Pruden Jon Juan Joakina Amaia Patxi Juan Andoni Judith M.Angeles Naiara Dionisio Itziar Jesus Meri Idoia Edurne Jesus Jon Eugenio Javier Aitor Tomas Jesus Antonio Jorge Eneko Guillermo Jose Itziar Enrique Karlos Gorka Jose Isidora Begoña Herritxe Juan Mertxe Tomas Maite Fernando Angel Alizia Alaitz Miren M.Luisa Eba Sonia Juan Maite Elena Etxea Gorka Aitor Ramon Inmaculada Jabier Vicente Ignacio Manuel Laurentino Iñaki Nuria Jabier Luis Gotzon Eñaut Joxe Olaia Antonio Amaia Olatz Milagros Felix Miren Dani Begoña Iñaki Iñaki Edurne Iñigo Ion Fernando Garbiñe Jose Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel

Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena Dorleta Etor Amaia Asier Miguel Bixente Mikel Rexu Arantza Maria Juli Maria Maria Xabier Axier Montse Ubane



Aitor Jesus Luis Juan Mikel Julian Maite Juan Miren Antonio Miren Victoriano Iñaki Joseba Miguel Jose Mikel Oxel Ane Larraitz Antton Agustina Luis M.Pilar Eulogio Vicente Maria Rosa M.Asun Xabi Iñigo Anton Gloria Xabier Arrosane Miren Jose Fermin Julia Marcos Beatriz Esteban Angel Jesusa Jose Asier Imanol Esther Ines Gaizka Eneritz Simon Angelita Luis Eugenio Jose Basilio Karmele Mirentxu Ana Ekaitz Eneko Rosa Andoni Luis Joseba Rafa Carmen Maria Xabier Timoteo Miren Bixente Ana Joxe Juan Alen Arantzazu Edurne Aitzol Miren Ane Manuel Marcos Mari Mertxe Nieves Miguel Iñaki Bittor Edurne Joxe Izaro Maria Kristina Iñaki Anabel Mari Elena

2012an GOIENA KLUBeko bazkide zareten guztioi, eskerrik asko!

Adi egon! Zure fideltasuna eskertzeko, abenduaren 17an, Goiena telebistako Magazinea-n, 20:15ean, honakoa zozketatuko dugu:

Aisia Deba hotelean:

- 2 pertsonarentzako ostatua eta buffet-gosaria (2 gau) eta zirkuitu termala (2 bonu)
- 2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (2 bonu)
- 2 pertsonarentzako gosaria eta relax termala (2 bonu)

Zorte on!



goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



KULTURA

'Goenkale', antzokietara

- ▶ Antzezlanaren estreinaldia izango da ibarrean, domekan, 19:30ean, Amaia antzokian
- ▶ Telesailaren hastapenetik gordeta dagoen sekretua azaleratuko dute protagonistek

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Goenkale, Markesaren erretratua antzezlanaren estreinaldia izango da Deba-goienean. Domekan, Arrasateko amaia antzokira etorriko dira *Goenkale*-ko sei aurpegi ezagun, sei protagonista. Tartean, Maria Kruickshank gazte oñatiarra ikusiko dugu. Sorpresaz beteriko antzezlanaren dela aurreratu digu, baina guk zerbait gehiago atera nahi izan diogu Kruickshanki: "Kondesaren erretratuarekin zerbait gertatzen da, misterioz eta intrigaz betetako istorioa da; Agatha Christieren estiloan. Baina maitasuna eta umorea ere batzen du lan honek. Baina askorik ezin dizuet aurreratu, sorpresa asko ditu-eta!", dio.

Barrea bermatuta

Goenkale-ren genero nagusia drama da; baina antzezlan honek, zalantzarik gabe, badu bestelako ukitu eta xarma berezia: "Antzerkiera eramateko orduan, bestelako ukitua eman behar diogu. Oso dibertigarria da eta ikusleak oso ondo pasatuko du, ez du aspertzeko une bat ere izango".

Sei pertsonaia agertokian

Denak dira *Goenkale*-ko pertsonaia ezagunak: Itsaso, Ibon, Andoni, Rakel, Nelson eta Eider. Kronologikoki *Goenkale*-ko pertsonaiei gertatzen zaienak ere badu jarraipena. Hala, *Goenkale*-ren jarraitzaile sutsuek gustura jarraituko dute istorioa.

Baina jarraitzaile ez direnek ere erraz jarraitzeko moduko antzerkia dela esan digu Maria Kruickshank. "Landetxe batean gertatzen da guztia. Ni, Itsaso, Ibonen neskalaguna naiz, tele-



Ibon, Itsaso eta Eider, *Goenkale*-ko pertsonaia antzezlanaren une batean. | MARIA

sailean moduan. Hala, *Goenkale*-ren jarraitzaileek erraz jarraituko dute. Baina ez da beharrezkoa jakitea nor den nor; izan ere, agertokian hasten den istorioa bertan bukatzen da", kontatu digu ilusioz Maria Kruickshank aktoreak.

Zein da sekretua?

Goenkale-ren hastapenean, orain arte sekretua izan dena argituko dute. Ginna Sinatra nork hil zuen jakingo al dugu, azkenik? Egia da Gaizkak hil zuela? "Ezin dizuet zer datu argituko dugun esan... *Goenkale*-ko jatorriaren gaineko sekretua azaleratuko

dugu, nondik nora datorren. Oso polita izango da, batez ere jarraitzaileendako opari ederra".

Erregistro aldaketa

Telebistan egindako lanak ez du zerikusirik antzerkiarekin. "Erregistro aldaketa derrigorrezkoa da; telebistan dena handiago egin behar duzu. Gidoia ere ezberdina da. Lan egiteko era ezberdina da antzerkian, ez dago *stop* zapaltzerik. Telebistatik zure pertsonaia ateratzea ere polita da beste garapen bat emateko; gainera, zure pertsonaia ustez ez dituen erreakzio batzuk ere ikusten dituzu".

ESANAK

'Goenkale'-ren jatorriaren sekretua azaleratuko da"

MARIA KRUCKSHANK | AKTOREA

"Jarraitzaileei oparia egin nahi izan diegu antzezlanarekin"

MARIA KRUCKSHANK | AKTOREA

Telebistatik antzokietara

19 urteko ibilbide oparoa dauka telesailak, eta *Goenkale*-ren omenez egin dutela azaldu digu. "Jendea ere, horrenbeste denboran

telebistan egonda, uste dugu gustatuko zaiola".

Antzezlanaz gozatzeko aukera, beraz, domekan, 19:30ean, Arrasateko Amaia antzokian.



XBOX 360 + HALO REACH JOKOA
Bidali KLUBA XBOX [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



LIBURUA
Bidali KLUBA LIBURUA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



CDa
Bidali KLUBA CD [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



TXIKILANDIARAKO 4 BONO
Bidali KLUBA TXIKILANDIA [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



GOSPELERA KO SARRERAK
Bidali KLUBA GOSPEL [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



MAIKA MAKOVSKI
Bidali KLUBA KONTZERTUA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: 688 69 00 08
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!



goienakluba 2012
Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

IRABAZLEA

'GOENKALE'-RAKO SARRERAK

JOSE ANTONIO MENTXAKA AGIRREURRETA (Bergara)

ZORIONAK!

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indararen dagoen LOPD 15/1999 legeraren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatuaren bidez sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indararen dagoen sustapena gestioztea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezteztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

Aurtengo tobera Oñatin egingo da, Inuzente Egunean

LAIDA BERISTAIN | OÑATI

Aurreko urtean egin zen lehenengo tobera, Bergaran. Aurtengoa, berriz, hilaren 28an Oñatiko kiroldegian egingo da, eta Debagoieneko herriek Oñati epaituko dute Oñatiren inkomunikazioa interesatua dela egotzita. Inuzente Egunean jakingo da Oñati erruduna edo errugabea den.

25 lagun inguruk parte hartuko dute. Akusazioaren fiskalak zortzi lekuko aurkeztuko ditu, herri bakoitzetik bana, eta Oñatiko herriak bere burua defendatu beharko du epaile jaunaren aurrean. Egoitz Aizpuruk, gidoilarietako bat izateaz gain, oñatiarren defentsako abokatu lanak ere egingo ditu, eta hark ere zortzi lekuko eramango ditu, gaine-

rako herrien akusazioak hantaz gora jartzeko helburuarekin. Herria ondo ordezkaturatuta egongo da.

Ezohiko osoko bilkura

Abenduaren 28ko epaiketa egin ahal izateko, Oñatiko udalbatzak bertara aurkeztea onartzeko osoko bilkura berezia irudikatuko du udaletxeko areto nagusian hilaren 19an, 18:30ean. Osoko bilkuran parte hartuko duten eragile guztien artean erabakiko dute ofizialki epaiketan parte hartzea.

Sarrerak

Sarrerak abenduaren 14an jarriko dira salgai, 8 eurotan. Sarrera lortzeko bi bide daude: Txokolateixa dendan eta www.barrabarra.eu helbidean.



Eteon (Oñati) egindako entsegua. | JOSETXO ARANTZABAL

Bi musika taldek osatutako rock kontzertua Oñatiko Gaztelekuan gaur

Inoren Ero Ni eta Meido taldeek azken diskoak aurkeztuko dituzte gaur, egubakoitza

L.B. | OÑATI

Oñatiko Gaztelekuan bi musika talderen rock kontzertua antolatu dute gaurko, hilak 14. Taldeak rock-hardcorea egiten duen Inoren Ero Ni eta noise musika egiten duen Meido dira.

Hasiera batean Lisabö talde iruindarrak ere hartu behar zuen parte kontzertuan, baina taldekide bat gaixorik dagoenez ezin izango dute kontzertu horretan parte hartu.

Kontzertua 20:30ean hasiko da eta sarrerak leihatilan bertan izango dira salgai, bost euroren truke.

Bi taldeek euren disko berriak aurkeztuko dituzte.

Meido talde bilbotarrak *Double Dragon* diskoa aurkeztuko du. Inoren Ero Ni taldeak, berriz, trilogiaren itxiera den *Fregoli* izeneko diskoa.

Txirli-k esan duenez, Gaztelekua urte askoan hilda egon ondoren, berriro ere funtzionamenduan jartzeko helburuarekin ekintza berriak antolatzen ari dira eta horietako bat kontzertu hori da.

Bada, Lisabö taldea kontzertuan egonda jende gehiago gerturatuko zela argi dutela ere aipatu du *Txirli*-k. Hala ere, kontzertuak harrena ona izatea espero dute, eta jende asko hurbiltzea kontzertuaz gozatzera.



Musikalaren protagonista nagusiak, jantzi eta guzti. | AMAIA TXINTXURRETA

'Peter Pan'-en emanaldi bat gehiago eskainiko dute

Hirugarren emanaldi hori hilaren 29an izango da, 22:30ean

AMAIA GARATE | BERGARA

Peter Pan musikalaren emanaldiak hilaren 29an eta 30ean arratsaldeko zazpitan izango dira, baina, jendea sarrera barik geratzen ari dela-eta, antolatzaileek emanaldi bat gehiago egitea erabaki dute: hilaren 29an.

Aurten, gainera, proiektua herri guztira zabaldu nahi izan dute, eta Bedelkar komertzioen elkarteko dendariak eta herriko tabernariak ere proiektuan inplikatu dira. Era berean, Udaletik

animatu nahi dituzte herriko taberna eta komertzio denak parte hartzera.

Dendariak hilaren 22rako marrazki lehiaketa deitu dute, herriko ume eta gaztetxoendako, eta *Peter Pan*-en inguruko marrazkiak aurkeztu beharko dira lehiaketara. Onenak erakusleihoetan jarriko dituzte, eta sariak banatuko dituzte.

Tabernetan, berriz, eguenero egiten den pintxo-poteoa aprobetxatuko dute *Peter Pan*-en proiektuarekin inplikatuko.

Hilaren 27an, tabernekin *Peter Pan*-en inguruko pintxo berezi bat izango dute eta pintxo berezi hori *Peter Pan* musikalaren emanaldiko asteburura arte luzatuko da.

Hilaren 27an, *Peter Pan*-ekin lotura duen objektu bat herriko erakusleiho baten ezkutatuko dute eta herritarrek objektu hori aurkitu beharko dute. Hori urtarilerara arte izango da eta parte hartzen dutenen artean sari bat zozketatuko dute.

Aurtengo 'Ti tau!' umorezko film laburren III. rallya abenduaren 15ean izango da

Eskoriatzan izango da, urtero legez, Ibarraundi museoan, 09:30etan hasita

A.G. | ESKORIATZA

Aurten hirugarren aldiz antolatu du Eskoriatzako Eingeinke ekimenak *Ti tau!* film laburren rallya, eta abenduaren 15ean izango da.

Aurtengo aldaketa

Aurten umorezko film laburren rallya izango da. Tristura eta hondamendiak modan dauden garai hauetan, umoreari eta alaitasunari merezi duten lekua eman nahi diote. Abenduaren 15ean 09:30ean bilduko dira parte hartzaile guztiak Eskoriatzako Ibarraundi museoan, eta 23:00etan emango zaio bukaera ekitaldiari.

Epaimahaiaren ikus-entzuzko adituak egongo dira, eta film laburretako umorearen erabilera hartuko dute



lazgo rallyan, grabazio bat. | EINGEINKE

kontuan, teknika eta ideiarekin batera.

Irabazlearentzat 300 euroko saria egongo da, eta, bes-

tetik, publikoaren saria. Izen-ematea, berriz, aurreko urtean bezala, www.eingeinke.org webgunean egin beharko da.

Hodei Beitia: "Ondoen egiten dakigunaz ahaleginduko gara Naiarari laguntzen"

Naiara Agreda haurrari laguntzeko kontzertua egingo dute hilaren 26an Arrasateko Gaztetxean

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Des-kontrol eta Arkada Social musika taldeetako abeslari Hodei Beitiarendako, abenduaren 26ko kontzertua berezia izango da: "Pentsatzeaz bakarrik emozionatu egiten naiz", diosku Arrasatekoak. Egun horretan gaztetxea betetzeko lanean dabilta [Sarrerak DAT tabernan], horrek esan nahiko duelako Naiara Agredarendako diru kopuru polita batu dutela: "Naiarari laguntzeko tapoiak batzeko kanpaina abiarazi zuten senitartekoek, baina sistema horrekin denbora luzea behar da diru-sarrerak izateko. Hala, bururatu zitzaigun kontzertu bat eginez Naiarari laguntzea, eta horretan ari gara; ea jendea animatzen den".

Harreman estua Naiararekin

Hodeik eta haren neskalagun Mireiak harreman estua dute Naiararekin. 8 urteko haurrak garun-paralisia dauka eta Mireiak harekin egiten du lan: "Familia-koekin harreman oso ona dugu. Hala, etxean hainbat aldaketa egin behar dituzte Naiararen egunerokoa eramangarriagoa izan dadin, eta horretarako lagun-



Kontzertua antolatzeko lanean dabilta Hodei, Mireia eta Nako, kartelaz. | X.U.

tza behar dute. Besteak beste, Naiarari txiki geratu zaio eguneroko erabiltzen duen aulkia; etxeko komunean obrak egin behar dituzte, autoa egokitu... Gauza mordoa dira, eta laguntza behar dute".

Lau talde taula gainean

Kontzertuan (abenduak 26, 22:00) Arrasateko Gaztetxe taula gainean izango dira Arrasateko hiru talde: Des-kontrol, Arkada Social eta Screamer Sinner. Eta eurekin batera Bilboko Rat-zinger taldeak

ESANAK

"Naiarari laguntzeko kontzertua egitea bururatu zitzaigun, eta antolatzen hasi"

"Eskertzekoa izan da gainontzeko musika taldeek izan duten erantzun ona"

HODEI BEITIA | ABESLARIA

ere joko du: "Arkada Social eta Des-Kontrol taldeetan jotzen dudanez, bi talde horiek lotuta genituen [Barre], eta beste taldeei proposamena egin genienean berehala jaso genuen baietza, eta eskertzekoa da".

Kultura-bonuek mugimendua ekarri dute dendetara

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzaren kultura-bonuek sekulako arrakasta izan dute: 40.000 atera dituzte, eta 28 ordu aski izan dira guztiak saltzeko. 25 euro ordaindu eta 40ra arte gastatu ahal izango dituzte erosleek, eta jada hasi da mugimendua. Primeran datorkiela kontatu digite Debagoieneko liburu-dendetan.

6.800 Araban, 11.200 Gipuzkoan eta 22.000 Bizkaian, 40.000 Euskal Autonomia Erkidego osoan. Astelehen goizean jarri zituzten salgai eta egunean bertan saldu zituzten ia guztiak; 28 orduren buruan jada alferrik zen ahalegintzea, ordurako agortuta zeuden kultura-bonuak.

Epemuga: urtarrilak 18

Blanca Urgell Kultura sailburuaren ustez, kultura-bonuen helburuak lortu dira: data hauetan kultura-kontsumoa sustatzea eta urte osoan kultura banatzen duten dendak herritarrengana hurbiltzea, hain zuzen. Hori bai, urtarrilaren 18ra arte erabili ahal izango dira.

AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



23.900€-tik aurrera

> FORD Kuga
2012 | Diesela | 0 Km

MUGARRI

Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

• Ford Focus	18.500 €
2012 Diesela Km 0	
• Ford Transit	21.700 €
2012 Diesela Km 0	
• Ford Focus Tdci 110	12.500 €
2011 Diesela	
• Citroën Picasso Td 92 Zp	7.800 €
2007	
• Toyota Land Cruiser Td 3 Ate 125 Zp	7.800 €
2000 Diesela	
• Ford Fiesta Tdci 70 Zp	6.800 €
2007 Diesela	
• Ford Connect Tdci 90 Zp	7.900 €
2009 Diesela	
• Kia Sportage Td	12.500 €
2008 Diesela	
• Land Rover Td Freelander	5.500 €
2000 Diesela	
• Mercedes Vito Cdi 8 jarleku	14.500 €
2004 Diesela	



8.950 €

> Renault Clio
2010 | Diesela | 17.015 Km | Txuria

RENAULT AUTOBERRI

San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

HAINBAT AUTOTAN 2012KO PIVE PLANA AUKERAN

• Renault Kangoo Kombi	9.800 €
2010 Diesela 33.800 Km Txuria	
• Renault Kangoo furgota	6.500 €
2008 Diesela 130.000 Km Txuria	
• Renault Scenic	16.800 €
2011 Diesela 14.715 Km Txuria	
• Renault Laguna Grand Tour	20.500 €
2012 Diesela 20.120 Km Grisa	
• Renault Espace	11.500 €
2007 diesela 106.000 Km Gorria	
• Renault Laguna automatikoa	11.300 €
2008 Diesela 15.500 Km Nautilus urdina	
• Renault Megane	12.500 €
2010 Diesela 20.787 Km Grisa edo Urdiña	
• Dacia Sandero	8.950 €
2012 Gasolina 4.500 Km Gorria	
• Dacia Stepway	11.450 €
2012 Diesela 11.250 Km Gorria edo Grisa	



7.800 €

> Citroen C3 1.4HDI Cool
2010 | Diesela | 40.500 km | Beltza

CHAPIME


Debagoieneko kontzesionario ofiziala

San Andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroen Berlingo Com. 1.6HDI 110 SX Multispace	14.500€
2012 Diesela 22.500 km Gris argia	
• Citroen C3 1.4 HDI SX Plus	4.500€
2006 Diesela 146.000 km Zuria	
• CITROEN C3 1.4 HDI Cool	7.800 €
2010 Diesela 40.500 km Beltza	
• Citroen C4 Aircross 1.8HDI Exclusive 2WD 150	31.500 €
2012 Diesela 500 km Marroi iluna	
• Citroen C4 1.6 HDI SX 92	4.750€
2005 Diesela 107.000 km Gris argia	
• Citroen C5 2.0 HDI Business	14.900 €
2010 Diesela 39.600 km Gris argia	
• Citroen C8 2.0 HDI Seduction 160	23.000 €
2011 Diesela 47.000 km Gris iluna	
• Citroen C8 2.0 HDI Seduction 138	21.300 €
2011 Diesela 48.000 km Gris argia	
• CITROEN DS4 1.6 e-HDI Design STT	19.000€
2011 Diesela 6.500 km Urdin iluna	
• CITROEN DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP	38.000 €
2012 Diesela eta elektrikoak 6.500 km Zuria	

Iragarkia jartzeko: 943 25 05 05

Eskaintza baliagarria, akats tipografikorik ez dagoen neurrian.



Mikel Velasco | Eskalatzailea

Mikel Velasco, Araotzen, Oñatin, eskalaten.

JONE ALBENIZ

"Espainiako hainbat lekutan eskalatzeaz gain, Suitza eta Frantzia aldean ere eskalatu izan dut"

LAIDA BERISTAIN | ARRASATE

Mikel Velasco (Arrasate, 1990) Automozio Elektromekanikako bigarren mailako ikaslea da Aretxabaletako institutuan. Haren zaletasun handiena eskalatzea da, eta, eskalatzailea izateaz gain, ume txikiei ikastaroak ematen dizkie, bai Arrasaten, eta baita Aretxabaletan ere.

Noiz hasi zinen eskalatzeko?

Duela sei urte hasi nintzen eskalatzeko, 16 urte nituela. Kirol desberdin asko egiten nituen, baina ez nuen gogokoarik. Azkenean, amak eskalatzeko hasiera animatu ninduen.

Non eskalatzeko duzue normalean?

Normalean, Araotzen edo Altzolan eskalatzeko dut. Txapelketak, ordea, rokodromoetan izaten direnez, txapelketetarako rokodro-

moetan entrenatzen naiz. Horrez gain, urtean zehar, Espainian ere mugitzen gara noizean behin, Katalunian eta Suitza eta Frantzia aldean ere izan naiz eskalatzeko.

Zein txapelketatan hartu izan duzue parte?

Eskalatzeko hasi nintzenetik urtero parte hartu izan dut Euskal Herriko txapelketan. Euskal Herriko txapelketaz gain, Espainiako Kopan, Euskal Herriko boulder txapelketan eta sokako txapelketan hartu izan dut parte azkenaldian.

Esperientzia ona izan da txapelketetan horietan parte hartzea?

Oso esperientzia ona izan da txapelketetan guztietan bizi izan dudana. Askok gustatzen zait eskalada txapelketetan parte hartzea, oso ongi pasatzen dut beti. Oso gus-

tura nago, gainera, lortu ditudan emaitzekin.

Nolatan hasi zinen eskalatzeko ikastaroak ematen?

Gero eta gazte gutxiagok eskalatzeko zutela ohartu ginen, eta eskalatzeko zuten neska-mutilak behar zirela. Hala, hori aldatzeko zerbait egin behar genuela erabaki genuen, eta neska-mutilen ikastaroak ematen hasi ginen. Urteak pasa ahala, gero eta neska-mutil gehiago hasi ziren ikastaroetan izena ematen, eta aurretik, nahiko kopuru handiak eman du izena.

Hasieran nik bakarrik ematen nituen ikastaroak, baina denborarekin gero eta ikasle gehiagok izena eman zuten, beste batzuei laguntza eskatzen hasi nintzen eta orain batek baino gehiagok

ematen ditugu ikastaroak.

Oso gustura nago neska-mutilen eskalatzeko ikastaroak ematen, oso ongi pasatzen dut haiekin, eta esperientzia polita da.

Eskaladaren munduan emakumearen presentzia nola ikusten duzue?

Emakumeak betidanik egon izan dira; nahiz eta banakako batzuk izan, hori egon dira. Pixkanaka, gero eta emakume gehiago dabil mundu honetan. Txapelketan ere gora egin du haien parte hartzeak, maila ona erakutsi dute eta erakusten dute. Edozein rokodromotara joanez gero, lehenengo momentuan mutilak ikusi arren, gehienak mutilak direlako, beti dago neskaren bat.

Ikastaroetan, berriz, denak izatez mistoak diren arren, denetarik dago. Nesken taldeak, mutilen taldeak eta talde mistoak daude. Gauza normaltzat hartzen da, ez du atentziorik ematen neska bat eskalatzeko ikusteak.

Lesio larrikeriaz al duzue eskalatzeko ari zinen bitartean?

Ez, nik neuk ez dut lesio larrikeriaz izan. Behin, indar handiegia egiteagatik tendoiak pixka bat apurtu nituen eta kolperen batzuk ere hartutakoa naiz, baina lesio larrikeriaz ez.

Anekdotak bereziki?

Ba, behin, eskalatzeko joateko sekulako gogoarekin nengoen, baina ez nuen norekin joan. Azkenean, baina, ama animatzea lortu nuen eta nirekin joan zen.

Ongi lotu gabe hasi nintzen, eta eskalatzeko nentzela lurrera erori nintzen. Sekulako kolpea hartu nuen. Amak, berriz, hartu zuen sustoarekin oihuka hasi zen.

Eskalatzeko gain, beste zein zale-tasun duzue?

Lagunekin parrandan ibiltzea eta mendira buelta bat ematera joatea ere gustuko ditut.

PERTSONALA

Zure herriko txoko maitea: Epele.

Gosari gustukoena: Arrautzak txorizoarekin.

Telefono dei pozgarriena: Aspaldian ikusi ez dudana norbaitena.

Kantu gustukoena: Amerika (Bizardunak).

Bidaia gustukoena: Marokora.

Gogoko jarduerak: Lagunekin mendira joatea.

Bizi izateko herri bat: Arrasate.

Etorkizuneko erronka bat: Etorkizuna bera bere osotasunean da erronka bat.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aramaio. Hiru logela, sukaldia, jangela, egongela, bi komun, despentsa, terraza eta garaje itxiko etxebizitza salgai. Kalean. Interesatuak deitu telefono honetara: 660 57 40 66

Aretxabaleta. 61 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela egongela zabala, sukaldia eta komun. 2006an egina. Kiroldegitik gertu. Bizitzera sartzeko gertu. 115.000 euro. Interesatuak deitu telefono honetara: 629 42 01 10

Arasate. Juan Carlos Guerra kalean etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Larra & tilde;aga optikagainean. 90 metro koadrokoa. Prezio oso onean. Hiru logela, egongela eta komun batekin. Bi balkoi ditu etxeak. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. 616 50 67 28 edo 665 72 46 12

Arasate. San Andresko Leintzibar kalean 80 metro koadroko etxebizitza salgai. Hiru logela eta egongela, igogailua eta berokuntza indibiduala. Denak kanpo aldera ematen du. Etxea egoera onean dago eta bizitzen hasteko moduan. Prezio interesgarria. Interesatuak deitu telefono honetara: 649 20 99 97

Oñati. 68 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Sukaldia, egongela, bilogela eta komun. Guztiz jantzia eta bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 237.000 euro. 35 metro koadroko garajea aukeran. Egoera oso onean. Infiugo. Interesatuak deitu telefono honetara: 659 72 06 64

103. ERRENTAN EMAN

Aretxabaleta. 95 metro koadroerabilgarri. Etxebizitza berria, hirugarren solairuan. Igogailuarekin. Hiru logela eta bi bainugelak. Dena kanpo aldera begira. Hilean 680 euro, komunitate gastuak barne. Argazkiak ikusteko: www.euskalnet.net/aguirre. 630 60 47 75

